



**Gestión del paisaje. Patrimonio, territorio y ciudad**  
**Paisaiaren kudeaketa. Ondarea, lurraldea eta hiria**  
**Landscape management. Heritage, territory and city**

**TRABAJO FIN DE MÁSTER**  
**MASTER-AMAIERAKO LANA**  
**FINAL MASTER'S DISSERTATION**

**PAISAIAREN BILAKAERA ETA PAISAIA UNITATEEN**  
**BITARTEZKO PAISAIA-POLITIKAREN AZTERKETA**  
**EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO LURRALDE**  
**PLANGINTZAN**

**PAULA PEREZ PASCUAL**

**Zuzendariak: Mari Jose Ainz Ibarrondo eta Orbange Ormaetxea Arenaza**  
**doktoreak**

**2016/2017**

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco      Euskal Herriko Unibertsitatea



**Gestión del paisaje. Patrimonio, territorio y ciudad**  
**Paisaiaren kudeaketa. Ondarea, lurraldea eta hiria**  
**Landscape management. Heritage, territory and city**

## **Zuzendariaren baimena Master-amaierako lana aurkezteko**

Maria Jose Ainz Ibarondo eta Orbange Ormaetxea Arenaza doktoreek, “Paisaiaren kudeaketa. Ondarea, lurraldea eta hiria” masterreko irakasleak, Paula Perez Pascualek egindako “Paisaiaren bilakaera eta paisaia unitateen bitartezko paisaia-politikaren azterketa Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Plangintzan” izenburua duen master-amaierako lan hau aurkez dadin baimena ematen dute.

Gasteizen, 2017.eko abuztuak 29an

**MARIA JOSE AINZ  
IBARRONDO**

Firmado digitalmente por MARIA JOSE AINZ IBARRONDO  
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=UPV - EHU, ou=PDI,  
ou=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, ou=Ziurtagiri  
korporatibo onartua - Cert. corporativo reconocido,  
ou=Condiciones de uso en www.iizenpe.com nola erabili  
jakiteko, dnQualifier=-dni 72715471M -cif Q4818001B,  
cn=MARIA JOSE AINZ IBARRONDO, givenName=MARIA JOSE,  
sn=AINZ, serialNumber=72715471M  
Fecha: 2017.08.29 17:05:10 +02'00'

**ORBANGE BEGOÑA  
ORMAETXEA  
ARENAZA**

Firmado digitalmente por ORBANGE BEGOÑA ORMAETXEA  
ARENAZA  
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=UPV - EHU, ou=PDI,  
ou=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, ou=Ziurtagiri  
korporatibo onartua - Cert. corporativo reconocido,  
ou=Condiciones de uso en www.iizenpe.com nola erabili jakiteko,  
dnQualifier=-dni 78866529N -cif Q4818001B, cn=ORBANGE  
BEGOÑA ORMAETXEA ARENAZA, givenName=ORBANGE BEGOÑA,  
sn=ORMAETXEA, serialNumber=78866529N  
Fecha: 2017.09.04 10:14:35 +02'00'

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*Paisaiaz arduratzea ezinbestekoa da lurralde bateko gizartearen eta inguruaren arteko oreka bermatzeko. Paisaia, lurralde horrek daukan antolakuntzaren isla nabaria izateaz gain, bertako biztanleen bizi-kalitatearen adierazlea da. Bestalde, paisaia herritarren ondare kultural eta naturalaren adierazpen nabariena dugu, ongizatearen funtsezko osagaia, alegia. Beraz, paisaia berezko lurraldearekin burutzen diren harremanen agerizko emaitza da. Hau da, paisaia izatezko Lurralde Plangintzaren isla dugu. Hortaz, gure paisaiez arduratzea funtsezkoa da eta horretarako Lurralde Plangintzaz baliatu behar gara.*

*Paisaiaren ikerketan, paisaia unitatea, oinarritzko erraminta kontzeptuala eta metodologikoa da. Honen jatorria, bi jakintzagai desberdinen elkargunean topatzen da. Bata, paisaia lurralde-sistema konplexutzat hartzen duena, beraz, lurraldearen irakurketa zientifikoarekin lotuta dagoena. Eta bestea, lurralde antolakuntzaren erronkei erantzuna emateko jaio egin dena. Paisaia unitateak, paisaia-politikarako erabakiak eta paisaia analisisia era bizkor eta zorrotzean bateratzen duen trena izanez (Pérez, 2002; Pérez et al., 2014).*

# AURKIBIDEA

---

<b>Akronimoak</b> .....	3
<b>1. Sarrera</b> .....	4
<b>2. Helburuak</b> .....	7
<b>3. Metodologia eta materialak</b> .....	8
<b>4. Emaitzak</b> .....	11
4.1 Paisaiaren bilakaera EAeko Lurralde Plangintzan.....	11
4.1.1 Paisaiaren edukiera Lurralde Antolakuntzarako Tresnetan.....	11
4.1.2 Paisaia Lurralde Plangintzan xedatzeko instrumentuak.....	15
4.1.2.1 Paisaiaren Katalogoak.....	15
4.1.2.2 Paisaiaren Zehaztapenak.....	18
4.1.2.3 Paisaiaren ekintza-planak eta Paisaian integratzearen azterlanak.....	19
4.2 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateak.....	20
4.2.1 Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Paisaiaren Katalogoa.....	21
4.2.1.1 Lehenengo etapari lotutako memoria.....	21
4.2.1.2 Lehenengo etapari lotutako kartografia.....	23
4.2.1.3 Paisaia unitateen alderaketa.....	28
4.2.2 Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Paisaiaren Katalogoa.....	32
4.2.2.1 Lehenengo etapari lotutako memoria.....	32
4.2.2.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura.....	34
4.2.2.3 Lehenengo etapari lotutako kartografia.....	37
4.2.2.4 Paisaia unitateen alderaketa.....	41
4.2.3 Arabako Errioxa (Guardia) Paisaiaren Katalogoa.....	46
4.2.3.1 Lehenengo etapari lotutako memoria.....	46
4.2.3.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura.....	47
4.2.3.3 Paisaia unitateen alderaketa.....	51
4.2.4 Donostialdea-Bidasoa behea Paisaiaren Katalogoa.....	56
4.2.4.1 Lehenengo etapari lotutako memoria.....	56
4.2.4.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura.....	57
4.2.4.3 Paisaia unitateen alderaketa.....	63
4.3 Paisaia unitateak Paisaia Zehaztapenetan izandako edukiera.....	69
4.3.1 Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) .....	69
4.3.2 Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) .....	73

4.3.3 Arabako Errioxa (Guardia).....	74
4.4 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateen diagnostikoa.....	77
5. <b>Ondorioak</b> .....	82
6. <b>Eskerrak</b> .....	85
7. <b>Bibliografia eta erreferentziak</b> .....	86
8. <b>Eranskinak</b> .....	90

## **AKRONIMOAK**

AF: Arlo Funtzionala

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EPH: Europako Paisaiaren Hitzarmena

LAG: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak

LAT: Lurralde Antolakuntzarako Tresnak

LPP: Lurralde Plan Partziala

LPS: Lurralde Plan Sektoriala

NBALAP: Nekazaritza eta Basozaintzako Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

PEP: Paisaia ekintza-planak

PIA: Paisaia integratzearen azterlanak

PIBE: Paisaia-interes bereziko eremuak

PKH: Paisaiaren kalitate-helburuak

GIS: Geografia Informazio Sistema

## 1. SARRERA

Paisaiaren ardura eta honi lotutako edukiera praktikoa eta teorikoa historian zehar aldakorra izan da. Izan ere, denbora luzetik, Europan paisaia arreta objektua izan da (Zoido, 2010). Dena den, *Europako Paisaiaren Hitzarmenak* (EPH) (EPH, 2000) paisaia lurralde kontua zela ulertu zuenez geroztik, ikuspuntu politiko eta juridiko batetik sorturiko paisaiaren “territorializazioa” gauzatu da, orain dela gutxi gertakizuna izanik (Gómez, 2008).

EPH-k “*Europako paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko tresna berri bat sustatzeko eta herrialde kideek paisaiaren garrantzia haien politiketan barneratzea*” (EPH, 2000: 3.art) du helburutzat. Horretarako, ordurarte berritzailea zen paisaiaren zeharkako definizioa plazaratu zuen: “*paisaia lurraldearen edozein zati da, biztanleriak hauteman duen moduan, zeinaren izaera natura edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza da*” (EPH, 2000, 1: art.).

Lurralde orori dagokion arlo eta interes anitz eta desberdinak batzen dituen kontzeptua dela aitortu zuen. Paisaia “*natura, landa, hiri eta hiri-inguruko eremuak, lehorra eta itsasoa, barruko urak, apartekotzat har litezkeen paisaiak nahiz arruntak edo narriatuak barneratzen ditu*” (EPH, 2000: 2. art.). Are gehiago, paisaiari bestelako ezaugarriak atxiki zioten, hala nola, tresna, baliabidea, nortasuna, ondarea, ongizatea, eskubidea eta ardura. Honen arabera, paisaia interes orokorrerako, kultura, ekologia, ingurumen eta gizarte arloetan oso garrantzitsua da eta jarduera ekonomikorako baliabide egokia ere. Hori dela eta, paisaiaren kalitatea eskubide bihurtzen da. EPH-k, paisaia ondasun publikotzat orokortu zuen, lurralde osoan eta hauteman egiten duen gizartearen eskubidea bihurtuz.

Gainera, plazaratutako paisaiari buruzko esanahi berritzaile horrekin, paisaia ezinbesteko alorra ezartzeaz gain, lurraldean garatzen diren prozesuak azpimarratu zituen (Zoido, 2010). Hortaz, babes politikak sortzeaz gain, antolakuntza eta kudeaketa politikak garatzearen beharra plazaratu zuen (Zoido, 2005), hau da, “paisaia alorreko politika” garatzearen beharra ezarri zuen. Paisaia-politika, bestelako konnotazioak barneratzen dituelarik: Paisaiaren kalitate-helburuak (PKH), paisaiaren babesa, paisaiaren kudeaketa eta paisaia-antolamendua (EPH, 2000: 1. art.), hain zuzen ere.

Beraz, EPH-k, Lurralde Plangintza eta Hirigintza politika europarrek paisaia haien politiketan lehentasunez ezartzeko marko trinko bat eskaintzen du eszenatoki berri honetan. Hirigintza eta Lurralde Plangintza eta hauek garatzen dituzten instrumentuak, lurralde orori dagozkion

helburu eta irizpide paisajistikoak eransteko marko egokiak ditugulako, esparru geografiko osoa eta lurraldean garatzen diren prozesu oro barneratzen dituztelako (Mata, 2006a). Zentzu honetan, “*lurralde eta hirigintza antolamenduko politketan eta alor kultural, ingurumen, nekazaritza, sozial eta ekonomikoan garatzen dituzten politketan nahiz paisaia eragin zuzen edo zeharkakoa izan lezateken bestelako edozein politketan paisaia txertatzea*” (EPH, 2000: 4. art.) adierazi zuen.

Testuinguru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), *90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoaren* (90/2014 Dekretua, 2014) bidez EPH-era atxikitzea adostu zuen. Beraz, honen edukiak eta neurriak barneratzeko eta betetzeko konpromezua hartu zuen.

Hortaz, aipatutako Dekretuak, paisaia juridikoki onartzeaz gain, paisaia lurralde-antolamenduko politketan sartzeko eta hau babestu, kudeatu eta antolatze mekanismo normalizatuak ezarri zituen. Beraz, Lurralde Plangintzan paisaia alorreko politika garatzeko bitartekoak, Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaia ekintza-planak (PEP) eta Paisaia integratzearen azterlanak (PIA) identifikatu zituen<sup>1</sup> (90/2014 Dekretua, 2014: 3. art.). PEP kasuan, Paisaia-interes bereziko eremuetaz (PIBE) eta PIA kasuan, paisaia egokitasunez integratzeaz arduratzen direlarik (90/2014 Dekretua, 2014: 6. art.; 7. art.).

Paisaiaren Katalogoak, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan*<sup>2</sup> ezarritako Arlo Funtzional (AF) bakoitzeko paisaia osoa hartzen duten deskripzio eta prospekzio-agiriak (90/2014 Dekretua, 2014: 4. art.) ezarri zituen, paisaia-politika garatzeko gainontzeko instrumentuen oinarria izanik. Egungo, EAEko 15 AF-tik, badira lau Paisaiaren Katalogoak jasotzen dituztenak. Donostialdea-Bidasoa behea, Arabako Errioxa, Balmaseda-Zalla (Enkarterriak), eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta), hain zuzen ere. Egungo, azkenengo hiruren Paisaiaren Zehaztapenak hasierako onespena jaso dutelarik.

Paisaiaren Zehaztapenak azpieskualdeko lur-antolabideetan, *Lurralde Plan Partzialetan* (LPP), paisaia-politika barneratzeko instrumentuak ditugu. Hauek, Paisaiaren Katalogoetan jatorria dutelarik, beharrezkoak diren Lurralde Plangintza eta Hirigintza instrumentuan garatuko dira.

---

<sup>1</sup>*Hauen artean, sentsibilizatu, trebatu, ikertu eta laguntzeko neurriak ere identifikatu zituen, hala ere, hauek, EAEko herri-administrazioak eta sektore publikoko entitateek, lurralde-antolamendu orekatu eta jasangarri baten barruan garatuko direla baino ez da azaltzen (90/2014 Dekretua: 8. art.).*

<sup>2</sup>*28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarte Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko denaren bidez onartuak.*



PIA edota PEP gomendio gisa ere barneratu ditzake, bi instrumentu hauek, Paisaiaren Katalogoetan oinarritzen direlarik, ere bai (90/2014 Dekretua, 2014: 5. art.).

Nabarmentzekoa da, Paisaiaren Katalogoek burutu beharreko ikerketaren gutxieneko edukierari dagokionez, “*paisaiaren aldetik koherenteak diren eta paisaia babestu, kudeatu edo antolatzeko araubide espezifiko bat, partez edo osoki, hartzeko gai diren eremuak*”, paisaia unitateak, identifikatu behar dituztela (90/2014 Dekretua, 2014: 4. art.). Hauek, EPH-ren paisaiari buruzko esanahi integratzailea barneratzeaz gain, Katalogoak dakarren ikerketan, funtsezko papera dute ikerketa-fase guztien artikulazioan (Nogué et al., 2016). Ondorioz, esan dezakegu, paisaia unitateak Lurralde Plangintzaren erronkei erantzuna emateko jatorria dutela (Nogué eta Sala, 2008). Paisaia unitateak, paisaiaren ikerketaren oinarritzko erraminta metodologikoak eta paisaia-politikarako erabakiaren oinarria bateratzen duen tresnak direlarik (Pérez, 2002; Pérez et al., 2014).

Zentzu honetan, Paisaiaren Zehaztapenak, Katalogoetan jatorria dutelarik, biltzen duten lurralde guztirako, printzipio, helburu eta irizpide paisajistikoak ezarri behar dituzte. Baita, paisaia unitateak, ere. Azken hauek, paisaia bakoitzaren erlazio ekologikoak (naturalak eta giza jatorrizkoak denboran zehar) eta paisaia bakoitzaren natura eta historia fundamentutzat ulertu behar diren prozesuak bildu beharko dituzte. Orientabide hau barik, jarduera paisajistikoa gainazaleko edo makillatzaile eginkizuna baino ez da. Gainera, paisaia alorreko politikak Lurralde Plangintza instrumentuetara ez badira ailegatzen, litekeena esparru oso berezietan mugatzea da. Baita, asmo eta planteamendu erretorikoetan gelditzea ere (Zoido, 2002).

Guzti honengatik, EPH-k EAeko Lurralde Plangintzan izandako edukieraz galdetzea funtsezkoa da. Baita, paisaiak Lurralde Plangintzan izandako bilakaeraz, ere. Aldi berean, gogoan hartuz, jada, badirela lau AF Paisaiaren Katalogoak biltzen dituztenak eta hiru Paisaiaren Zehaztapenak jaso dituztenak. Hortaz, hauetaz arduratzea oinarritzkoa dugu. Araubideak instrumentu hauei paisaia bere osotasunean eta paisaia alorreko politika Lurralde Plangintzan ezartzeko ahalmena ezarri daizkio, eta (Mata, 2006b). Baina, bereziki, paisaia unitateak izandako edukieraz galdetzea ezinbestekoa da. Eremu hauek, EPH-k plazaratutako paisaiaren esanahi bateratuaren eta paisaia alorreko politika garatzeko oinarritzko tresnak direlako, ere bai.

## **2. HELBURUAK**

Aurrekari hauek izanez eta gogoan hartuz, *90/2014 Dekretuak*<sup>3</sup> Paisaiaren Zehaztapenak paisaia alorreko politika bere osotasunean Lurralde Plangintzan barneratzeko bitarteko oinarrizko instrumentutzat ezarri egin zituela, Paisaiaren Katalogoak paisaia-politika lur-antolabideetan garatzeko bitartekoen oinarriak direla eta hauetan zehazten diren paisaia unitateak, paisaiaren esanahi bateratzailea barneratu gain, paisaia-politika garatzeko oinarrizko tresnak direla, ere. Master-Amaierako Lan honek, EPH-ren atxikipean EAeko Lurralde Plangintzan izandako edukiera ezagutzeko xede, hurrengo helburu nagusiak eta helburu zehatzak barneratzen ditu:

**1. Helburua: EAeko Lurralde Plangintzan paisaiak izandako bilakaeraren azterketa.**

**1.1 Lurralde Antolakuntzarako Tresnetan paisaiak izandako edukieraren azterketa.**

**1.2 Paisaia Lurralde Plangintzan xedatzeko bitartekoen izaeraren azterketa eta egungo gauzatuak dauden identifikazioa.**

**2. Helburua: Paisaia unitateen bitartezko EAeko Lurralde Plangintzaren paisaia-politikaren azterketa.**

**2.1 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateen izaeraren azterketa.**

**2.2 Paisaia unitateak Paisaiaren Zehaztapenetan duten edukieraren azterketa.**

**2.3 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateen diagnostikoa.**

**3. Helburua: Paisaiak izandako bilakaera eta paisaia unitateen bitartezko paisaia-politikaren EAeko Lurralde Plangintzaren azterketatik abiatuz, EPH-ren atxikipean EAeko Lurralde Plangintzan izandako edukieraren ezagupenera hurbiltzen gaituen ondorioen eraketa.**

---

<sup>3</sup> *90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.*

### 3. METODOLOGIA ETA MATERIALAK

EPH-ren atxikipenak EAeko Lurralde Plangintzan izandako edukiera ezagutzeko xede, eta aurrean aipatutako helburu nagusiak eta zehatzak jarriki, garatutako metodologia eta erabilitako materialak plazaratu egingo dira:

#### **1. Helburua: Paisaiaren bilakaera EAeko Lurralde Plangintzan:**

##### **1.1 Lurralde Antolakuntzarako Tresnetan paisaiak izandako bilakaeraren azterketa:**

EAeko Lurralde Antolamendu Gidalerroak (LAG), Lurralde Plan Partzialak (LPP) eta Lurralde Plan Sektorialak (LPS) aztertzea beharrezkoa izan da, hauek paisaiarekiko ikuskera eta tratamendua aztertuz.

##### **1.2 Paisaia unitateen bitartezko EAeko Lurralde Plangintzaren paisaia-politikaren azterketa:**

Paisaia juridikoki Lurralde Plangintzan xedatzen duen araubidean oinarrituz, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeke instrumentuen izaeraren azterketa eta gaur egun gauzatuak daudenen ikuskapena.

#### **2. Helburua: Paisaia unitateen bitartezko EAeko Lurralde Plangintzaren paisaia-politikaren azterketa:**

##### **2.1 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateen izaeraren azterketa:**

Katalogo bakoitzekiko gauzatua izan da, gogoan hartuz, hauen izaera hauek zehazteko erabilitako prozeduran eta irizpideetan jatorria izateaz gain, hauek lehengo etapan (paisaiaren ikerketan) duten bilakaeran (funtzionaltasunean) ere duelarik. Hala ere, Katalogoetan existitzen informazioa eta konkordantzia falta dela eta, bakoitzaren arabera, azterketa osatua gauzatzeko helburuz, bakoitzekiko lan-prozedura zehatza izatea beharrezkoa izan da.

- Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) AF:

Lehenengo etapan gauzatutako ikerketaren emaitzat paisaia unitateak plazaratzen dutelako, hauek identifikatzeko ezta zehazteko prozedurari buruzko aipamenik agertzen ez denez eta lehenengo etapari lotutako memorian azalpen deskriptiboak gailentzen direnez gero, hurrengo prozedura jarraitua izan da:

- *Katalogoaren lehenengo etapari lotutako memoriaren azterketa:* Paisaiaren ikerketan aztertutako osagaiak eta irizpideak ezagutzeko.
- *Lehenengo etapari lotutako emaitzazko kartografiaren azterketa:* Paisaiaren ikerketan aztertutako osagaiak eta irizpideak paisaia unitateetan izandako edukiera ezagutzeko.

- *Paisaia unitateen arteko azterketa konparatiboa*: Lehenengo etapari lotutako paisaia unitate bakoitzekiko fitxaz, paisaia unitateen mapaz eta aireko-argazkiaz, Geografia Informazio Sistemaren (GIS) bidez baliatuz unitateen azterketa konparatiboa.

- Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) AF:

Paisaia unitateak lehenengo etaparen emaitzazko produktutzat aurkezten dutenez eta unitateak zehazteko prozedura plazaratu arren, aurkeztutako metodologiak azalpen deskriptiboak izateaz gain, lehenengo etaparen memorian plazaratzen ez diren ikuskapen analisiak barneratzen ditu. Bestalde, emaitzazko kartografian analisi horrekin lotutako mapak plazaratu dituztelako, hurrengo prozedura jarraitua izan da:

- *Katalogoaren lehenengo etapari lotutako memoriaren azterketa*: Paisaiaren ikerketan aztertutako osagaiak eta irizpideak ezagutzeko.
- *Paisaia unitateak zehazteko prozeduraren azterketa*: Metodologia jorratutako pausuak eta irizpideak ezagutzeko.
- *Lehenengo etapari lotutako emaitzazko kartografiaren azterketa*: Paisaiaren ikerketan aztertutako osagaiak eta irizpideak paisaia unitateetan izandako edukiera ezagutzeko.
- *Paisaia unitateen arteko azterketa konparatiboa*: Lehenengo etapari lotutako paisaia unitate bakoitzekiko fitxaz, paisaia unitateen mapaz, Lur-zoruaren Eredu Digitala eta aireko-argazkiaz baliatuz (GIS bidez) unitateen azterketa konparatiboa.

- Arabako Errioxako (Guardia) eta Donostialdea-Bidasoa Beheko AF-k:

Katalogo hauek, paisaia unitateak lehenengo etaparen lehenengo atalaren emaitzazko produktutzat plazaratzen dutenez eta lehenengo etapari lotutako memoriari paisaia unitateak zehazteko jorratutako prozedura era argian eta lehenengo etapari lotutako memoria azalpen deskriptiboaz gain, informazio kartografikoaz plazaratzen duten bakarrak direnez. Hurrengo prozedura jarraitua izan da:

- *Katalogoaren lehenengo etapari lotutako memoriaren azterketa*: Paisaiaren ikerketan aztertutako osagaiak eta irizpideak ezagutzeko.
- *Paisaia unitateak zehazteko prozeduraren azterketa*: Plazaratutako metodologia aztertzean gain, lehenengo etaparen 1.go atalari lotutako memoria aztertua izan da.
- *Paisaia unitateen arteko azterketa konparatiboa*: Lehenengo etapari lotutako paisaia unitate bakoitzekiko fitxak, emaitzazko kartografia, paisaia unitateen mapaz, aireko-

argazkia (GIS bidez) eta lurzoru sailkapenaren mapaz baliatuz unitateen azterketa konparatiboa.

Esan beharra dago, lan honek izandako denbora eta luzera mugaketa dela eta, paisaia unitateen alderaketaz arduratzen den azterketa, bulego-lanaz burututako lana baino ez dela izan. Ezinezkoa izan da, azterketa dokumentazio fotografiko eta kartografiko beteaz plazaratzea eta landa-lanaz erkatzea.

## **2.2 Paisaia unitateak Paisaiaren Zehaztapenetan duten edukieraren azterketa:**

AF bakoitzekiko zehaztutako PKH lortzeko Paisaiaren Zehaztapenen azterketan datza. Paisaia unitateen edukieran arreta izanez eta Katalogoek, edukiera izan duten unitateei, bigarren etapan, zehaztutako PKH-etan.

**2.3 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateen diagnostikoa:** Paisaia unitateak Paisaiaren Zehaztapenetan duten edukieraren jatorriari buruzko ondorioak barneratzen duen analisia.

**3.Helburua: Paisaiak izandako bilakaera eta paisaia unitateen bitartezko paisaia-politikaren EAeko Lurralde Plangintzaren azterketatik abiatuz, EPH-ren atxikipenak EAeko Lurralde Plangintzan izandako edukieraren ezagupenera hurbiltzen gaituen ondorioen eraketa:** Lanean zehaztutako helburuetatik abiatuz ondorioen eraketa.

## 4. EMAITZAK

### 4.1 Paisaiaren bilakaera EAeko Lurralde Plangintzan

Paisaiaren bilakaera EAeko Lurralde Plangintzan aztertzeko helburuz, hurrengo orrialdeetan garatuko den atala, lehenik, paisaiak izandako edukieraz EAeko Lurralde Antolakuntzarako Tresnatan (LAT) arduratuko da. Gogoan hartuz, 2014. urtean, *90/2014 Dekretua*<sup>4</sup> plazaratua izan zela, beraz, paisaiaren kontzeptuaren aitortpen arauemaileaz gain, honen ikusmolde bateratzailea ezarri egin zela. Bigarrenik, aipatutako Dekretuan oinarrituz, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko instrumentuen izaeraren azterketa eta gaur egun gauzatuak daudenen ikuskapenera bideratuko da.

#### *4.1.1 Paisaiaren edukiera Lurralde Antolakuntzarako Tresnatan*

Paisaiak EAeren Lurralde Plangintzarekin izandako lotura eta honen inguruko kezka, jada, *Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen* bitartez ezarritako LAT batzuetan nabaritzen ziren. Bereziki, *28/1997 Dekretuaren*<sup>5</sup> bidez behin betiko onartutako *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan* (Eusko Jaurlaritza, 1997).

LAG-k ezarritako lurralde-eredua, ingurune fisikoa oinarri eta euskarriztat duen eredutzat aitortu zen. Ingurune fisikoa baliabide naturalak eta lurzoru ez hiritargarriztat ulertuz, non, paisaiak edukiera izango zuen Hala ere, ingurune fisikoari buruzko haraindiko bestelako ikuspuntua eskaini zuten, ingurune fisikoa biztanleria eta jarduera ekonomikoak biltzen duen oinarri ez ezik, berezko kultura eta euskal nortasunaren osagaia ere bai zela. Paisaiari dagokionez, ingurune fisikoaren bestelako elementu bat bezala hartu zuten, naturari atxikitako ezaugarri bereizletzat. Honen inguruko tratamenduan zenbait Artezpide Orokorrak plazaratu ziren<sup>6</sup>. Paisaiaren inguruko kezka, paisaiaren-kalitatearen, berezitasunaren eta irisgarritasunaren inguruan nagusitzen zirenak:

- Tratamendu paisajistiko bereziko eta iharduketa bisualki negatiboen presentzia baztertu behar den zona bisualak katalogatzeko beharra.

---

<sup>4</sup>90/2014 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

<sup>5</sup>28/1997 DEKRETUA, otsailaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena.

<sup>6</sup>(Eusko Jaurlaritza, 1997, "LAA-n Lurralde Ereduan" atalburua, "Ingurune Fisikoaren Antolaketa" atala, "Paisaiaren tratamendua" (5.2.G.) puntua)

- Plangintzak zedarri eta berezitasun paisajistiko naturalak, edo gizakiak eraikitakoak, beren ikus-eremua kontuan izanik, babes-perimetroetan inskribatuta uzteko beharra.
- Paisaiaren itxura hausten duen edo begi-inpaktua duen obra edo iharduera orori dagokion azterlan paisajistikoa egiteko eta berritzapen paisajistikorako ekintzak burutzeko beharra.
- Ikusmenari dagokionez irisgarrienak diren zonen katalogazioa, komunikazio-bideen inguruneak, hiriguneak eta kultura- eta natura- elementu bereziak bildurik.
- Paisaiaren zaintzan sentsibilitatea garatzea, iharduketa bakoitzari dagokion Arloko Araudiarekiko errespetuaren bitartez, horretarako, eta dagozkion Lurralde Plan eta Udal Planetan garatu beharko da.

Ildo honetan jarraituz, *4/1990 Legearen*<sup>7</sup> bitartez ezarritako bestelako lur-antolabideak, LPP eta LPS, paisaiari buruzko aipamenak barneratu arren, LAG-k zehaztutako Artezpide Orokorrak oso era desberdinetan barneratu dituztenak. Hala ere, tresna hauek paisaiaren erabateko tratamendua ez dute proposatzen. Berriro ere, paisaiaren arreta, ingurune fisikoari, gutxi degradatuak dauden eremuetara bideratuta dago eta sentu estetikoetan eta bisualei (behatokiak kasu) mugatuta egonez.

Hala ere, lur-antolabideen artean, *177/2014 Dekretuaren*<sup>8</sup> bidez behin betiko onartutako *Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak* (NBALAP) (Eusko Jaurlaritza, 2014) paisaiaren tratamendu eta adeitasunagatik nabarmentzen da. 2014. urtean, NBALAP-k berezko Antolamendu Arauetan, LAG-etan jasotako gainjarritako beste baldintza batzuk biltzen ditu, hauen artean, “Paisaia gutxi eraldatuta duten zonak” aurkitzen delarik. Horretarako, *Euskal Autonomi Erkidegoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoa* eta *Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogotik* ondorioztatutako kartografia eta espazioaren mugaketa gainjarritako baldintzatzailea definitzeko oinarria izan da<sup>9</sup>. Bestalde, LAG-ek ezarritakoari jarraiki, gutxi aldatu den paisaia duten zonetan obra edo iharduera orori ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharra azaltzen da<sup>10</sup>.

<sup>7</sup>4/1900 Legea, Maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.

<sup>8</sup>177/2014 Dekretua, 2014ko irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

<sup>9</sup>(Eusko Jaurlaritza, 2014, “B: Antolamendu Arauak” dokumentua, “VI. Kapituluua: Antolamendu Kategorietan aplikatzeko arauak” atalburua, 60. art.)

<sup>10</sup>(Eusko Jaurlaritza, 2014, “B: Antolamendu Arauak” dokumentua, “VII. Kapituluua: Aplikatzeko Arauak Gainjarritako Baldintzetan” atalburua, 76. art.)

*EAEko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoak* Eusko Jaurlaritzaren eskutik, 2005. urtean sortu zen. Honen sorrera, EAE-k *Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) Ingurumeneko esparru programan (2002-2006)*<sup>11</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2002) egiteko beharra plazaratu zuenean jatorria izanik. Bestalde, *Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoa*, 2005. urtean sortua izan zen, Arabako Foru Aldundiaren eskutik. Katalogo hauetan, lurraldearen diagnostika burutu egin zen, paisaiaren kalitatea mantentzeko helburuak eta bere kontserbazioa bermatzeko neurriak plazaratuz. Guzti hau, NBALAP-ean barneratua izan da, beraz, esan dezakegu, LPS honetan paisaia lurraldea antolatzeke tresnatzat ageri dela, nahiz eta izaera aparteko paisaietan mugatu.

2000. urtean, Europako Kontseiluak, Florentzian, EPH plazaratu zuen. Honen bidez, paisaiaren inguruko esanahi berritzailea eta bateratzailea aurkezteaz gain, paisaia alorreko politikaren inguruko dimentsio berritzaileak aurkeztu zituen. Egun arte, garatutako paisaiaren inguruko neurri protekzionista eta paisaia bikainetara mugatzen zen tratamendu horren aurrean (paisaiaren babesera zuzentzen zena) paisaia-politikara lotutako konnotazio-sorta berritzaileak plazaratu zituen, paisaiaren babesaz gain, paisaiaren kudeaketa eta antolamendua azpimarratuz (EPH, 2000: 1.art). Beraz, paisaiaren aurrean ezarritako ekintza hirukoitza honek, paisaiaren aurrean ikuskera dinamikoa izatearen beharra ekarriko zuen, paisaia babestuaren ikuskera protekzionista horren aurka. Bestalde, paisaiaren kondizioa lurralde orori hedatzea, gaur egungo paisaien “izozketa” bultzatzen duten politikak gainditzea ahalbidetu beharko zuen (Cortina, d.g.).

Eszenatoki berri honetan, EAEk, 2009. urtean EPH-ra atxikitzea adostu zuen. Are gehiago, 2012ko urtarrilean, *Paisaiaren Lege-Proiektua* onartua izan zen<sup>12</sup>. Ondikoz, legea ez zen indarrean sartu. Beraz, legerik ezean, 2014. urtean, *Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko, ekainaren 3ko, 90/2014 Dekretua* sortu zen. Atxikipen horrekin, EAEk EPH-ren edukiak eta neurriak onartzeko eta bere erantzukizuneko esparruetan betetzeko konpromisoa hartu zuelarik (90/2014 Dekretua, 2014: 1. art.). Hortaz, paisaia lurralde ororen oinarritzko alderdi bat dela onartu zen, hots, lurraldea babesteko, antolatzeke eta kudeatzeko funtsezko alderditzat aitortuz.

---

<sup>11</sup>*Programa horretan, paisaia kontserbatzeko eta babesteko, eta arriskuan zeuden paisaiak leheneratzeko eta berreskuratzeko konpromisua plazaratu zen. Baita, 2006. urterako, antolakuntzako dokumentuetan Paisaiaren Europako Konbentzioko printzipioak kontuan hartzeko konpromisua aitortu zen (Eusko Jaurlaritzak, 2002, 2. art.; 36. or.).*

<sup>12</sup>*Lege honek, paisaia-politikak euskal administrazioetan zehazteko eta ezartzeko erreferentzia markoa indartzeaz gain, paisaiari aitorten juridikoa eskainiko zion.*



EAEk paisaia Lurralde Plangintzako politiketan sartzeko eta paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko bitartekoak ezartzeko xede, mekanismo normalizatuak finkatuko zituen, hurrengo helburuak lortzeko:

- *“Berezko izaeragatik edo kultura-izaeragatik jardun espezifikoko eta integratuak behar dituzten paisaien balioak kontserbatzea.*
- *Hiri-inguruetako paisaiak hobetzea: bereziki, aldirietakoak eta biztanle guneetara sartzeko bideetakoak.*
- *Landa-inguruetako paisaiak zaindu, hobetu eta oneratzeko.*
- *Paisaiak harmoniaz antolatzeko, arreta berezia jarritz biztanle guztien eskurago daudenei, hiri- eta landa-inguruek elkar ukitzen duten eremuei eta lehorrak eta itsasoak elkar ukitzen duten inguruei.*
- *Lurraldearen gaineko esku-hartzeak egokiro integratzea paisaian: batez ere, azpiegiturei eta ekonomia-jardueretarako eremuei dagozkien esku hartzeak.*
- *Paisaiari balioa ematea, ekonomia-faktore bereizgarri gisa eta turismorako baliabide gisa.*
- *Paisaiari balioa ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen kulturaren proiektio gisa eta identitatearen adierazpen gisa.*
- *Kulturaren zati diren bide tradizionalen balioa ematea, paisaiara hurbildu eta hartaz gozatzeko puntu bikain gisa”.*

(90/2014 Dekretua, 2014: 2.art)

Zentzu honetan, aurrean aipatutako helburuak betetzeko, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko hurrengo instrumentuak identifikatu zituen: Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, PEP, PIA eta Sentsibilizazioa, trebakuntza, ikerkuntza eta laguntza jorratzeko neurriak<sup>13</sup> (90/2014 Dekretua, 2014: 3. art.). Hauek, *4/1990 Legea*<sup>14</sup> bitartez ezarritako Lurralde Plangintza garatzeko instrumentu batzuetan (LPP eta LPS-etan) eta Hirigintzan edukiera izateko beharra azalduz.

Egun, LAG-ak berrikusteko prozedura hasita dago. 2015. urtean Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak berrikuspen bidea adostu zuenetik, jada, Euskal Hiria Kongresuan, 2016an, EAEko *Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Aurrerapena* aurkeztua izan da (Eusko Jaurlaritzaren, 2016a). LAT-en bidez, paisaiaren kudeaketa barnean hartzearen beharra

---

<sup>13</sup>Hauen helburua baino ez da plazaratzen: *“Paisaia egokitasunez babestu, kudeatu eta antolatzeak [...] jorratzeko jardun aproposak sustatuko dituzte EAEko herri-administrazioak eta EAEko sektore publikoko entitateek, lurralde-antolamendu orekatu eta jasangarri baten barruan” (90/2014 Dekretua, 2014: 8. art.).*

<sup>14</sup>4/1900 Legea, Maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.

plazaratzen delarik<sup>15</sup>. Aipatzekoa da, berrikuspen honetan proposatutako lurralde-ereduan paisaiak atal berezi bat jaso egiten duela<sup>16</sup>, kultura eta natura, ondarea, eta baliabide turistikoan maila berdinean agertzen delarik. Gainera, PEP eta Paisaia Katalogoetan ezartzen diren PKH betetzeko neurri eta jardunak ingurune fisiko eta azpiegitura berdearen lurzorua eta lurpearen tratamenduari lotuta aurkezten baino ez dira.

Gainera, *90/2014 Dekretuari* buruzko aipamen orokorrak baino ez dira aurkezten. Berez, Dekretuan plazaratutakoa berridazten baino ez da. Bestalde, Dekretuak identifikatuta instrumentuen aipamenak ingurune fisiko eta Azpiegitura Berdearen lurzorua eta lurpearen tratamenduari lotuta aurkezten baino ez dira. Beraz, oraindik, paisaia lurzoru ez-hiritargarriari eta natura baliabideei loturiko ulermena nabarmentzen da. Honez gain, paisaiaren zentzu estetikoak gailentzen dira, berriro ere.

#### ***4.1.2 Paisaia Lurralde Plangintzan xedatzeko instrumentuak***

Egoera hau bada ere, EPH-k Lurralde Plangintzan egokitzeak, paisaiaren inguruko ulermen integratzailea eta paisaia-politika barneratzeko, Lurralde Plangintzan indarrean dauden araubideetan instrumentu berrien identifikazioa, garapena eta moldatzea dakar (Cortina, d.g.). Zentzu honetan, *90/2014 Dekretuak*, aurrean ikusi dugun bezala, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko hurrengo instrumentuak identifikatu zituen.

##### ***4.1.2.1 Paisaiaren Katalogoak***

Paisaiaren Katalogoek, EAEko LAG-etan ezarritako AF bakoitzeko paisaia osoa hartzen duten deskripzio eta prospekzio agiriak direla plazaratzen da. Katalogoak sortzeko prozedurarik ez da aurkezten, bakarrik, hauek egiteko ekimena arautu egiten da. Lurralde Antolamenduaren Arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari edo Foru-Aldundiei dagokie, Lurralde Historiko desberdinetako udalerriak hartzen dituen AF bati dagokion Katalogoa denean izan ezik; kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak beteko du beti ekimena, ofizioz edo Foru-Aldundiek eskatuta. Azkenik, hauek lantzeko prozesuan, eragile publiko eta pribatuen eta dagokien herritarren parte-hartze aktiboa bermatzearen beharra ezartzen du. Bestalde, jaso behar duten gutxienezko edukiera aurkezten da:

---

<sup>15</sup>(*Eusko Jaurlaritzak*, 2016a, “2. Lurralde-eredua Gidatzeko Oinarri eta Printzipioak” atalburua, “2.2 LAG-en berrikuspenaren printzipio gidaria” atala.)

<sup>16</sup>(*Eusko Jaurlaritzak*, 2016a, “7. Paisaia, Kultura-eta Natura-Ondarea, eta Baliabide Turistikoak” atalburua, 7.1. atala.)

1. *“Ikuspen-arro eta paisaia-ehundurak identifikatu, zedarritu eta balioztatu behar dituzte eta haien ezaugarriak ezarri.*
2. *Paisaia-interes bereziko eremuak identifikatu.*
3. *Paisaiaren egungo konfigurazioari nabarmenen eragiten dioten edo eragin dioten jarduerak, erabilerak eta prozesuak identifikatu.*
4. *Paisaia hautemateko ibilbide nagusiak eta lekuak kokatu.*
5. *Paisaia-unitateak zedarritu behar dituzte (paisaiaren aldetik koherenteak izanik, paisaia babestu, kudeatu edo antolatzeko araubide espezifiko bat, partez edo osoki, hartzeko gai diren eremuak).*
6. *Paisaia-kalitateko helburuak definitu (kolektibitateak bere inguruko paisaiaren ezaugarriei buruz dituen nahiak adierazi behar dituzte).*
7. *Ezarritako paisaia-kalitateko helburuak iristeko beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak proposatu.*
8. *Paisaiari dagozkion adierazleak proposatu (paisaia-kalitateko helburuak iristeko ezarritako neurri eta ekintzek zer-nolako eraginkortasuna izan duten ebaluatzeko)”*

(90/2014 Dekretua, 2014: 4. art.).

Katalogoei ezarritako gutxienezko edukierari dagokionez, hauek ez dira paisaia zehatz batzuei, hala nola, PIBE-ei edota paisaiaren dimentsio mugatu batzuei (hautematea, ehundurak eta ibilbideei, kasu) bakarrik arreta eskaintzen dion instrumentua. EPH-k plazaratutako bestelako dimentsioak barneratu beharko dituzte. Bereziki, jarduerak, erabilerak eta prozesuei arreta eskaini beharko die.


Bestalde, edukieraren artean, paisaia unitateak zedarritzeari buruz ari den bostgarren atalak guztiz deigarria da. Hauek, paisaiaren aldetik koherenteak izanik, paisaia babestu, kudeatu edo antolatzeko araubide espezifiko bat, partez edo osoki, hartzeko gai diren eremutzat definituta agertzen direlarik (90/2014 Dekretua, 2014: 4. art.). Bereizmen honek, paisaia unitateei funtsezko papera eskaintzen diete. Paisaia unitateak, paisaiaren inguruan plazaratutako esanahiaren inplikazio guztiak barneratzeaz gain, paisaia alorreko politika (babesa, kudeaketa eta antolaketa) Lurralde Plangintzan txertatzeko erabiliko den oinarria izanik.

Paisaia unitateak, AF bakoitzaren lurralde ororen egitura eta funtzionamendua ulertzera eta ikuskatzera bideratuta dagon atala da. Era honetan, paisaia unitateak AF bakoitzaren aniztasun paisajistikoa adieraziko dute, eta EAERena ere. Beraz, paisaia unitateak EAeko lurraldearen ezaugarrietan pentsatuz zehaztu beharko dira (AF bakoitzari dagokion esparrua), baita Lur-Antolabide eta Hirigintza instrumentuetan izan beharko duten lehentasunezko erabilgarritasunean. Zentzu honetan, Paisaiaren Katalogoen bidez, paisaia unitatea, hurrengo

urteetan EAEn garatuko den paisaia alorreko politikarako funtsezko piezatzat ezarri dute, oinarritzko lurralde-unitateak izanez (Nogué, 2010). Paisaia unitateen gainean, Katalogoetan PKH definitu beharko dituzte, ezarritako helburu horiek iristeko beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak proposatuz, baita, paisaiari dagozkion adierazleak proposatu (90/2014 Dekretua, 2014: 4.art). Hauek, Paisaiaren Zehaztapenen bidez, Lurralde Plangintza eta Hirigintza instrumentuetan barneratuta egongo direlarik. Egoera honek, paisaia unitateei dudarik gabeko garrantzia eskainiz (Nogué, 2010).

Gaur egun, badira lau AF-k (1. Irudia) Paisaiaren Katalogoak biltzen dituztenak., egungo burututa dauden Katalogoak hurrengoak izanik: *Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2012a), *Urola-Kosta (Zarautz-Azpeitia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2012b), *Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2012c) eta *Donostialdea-Bidasoa Behea Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2017c), hain zuzen ere. Katalogo hauetan, *90/2014 Dekretuak* zehaztutako edukiera barneratzen dutelarik, bakoitzari dagozkion paisaia unitateak zehaztu dituzte.

**1. Irudia: Paisaiaren Katalogoak jasotzen dituzten Arlo Funtzionalak**



*Iturria: neure egintza*

#### 4.1.2.2 Paisaiaren Zehaztapenak

Paisaiaren Zehaztapenei dagokionez, Paisaia Katalogoetatik ateratako irizpideak dira. Paisaiaren Zehaztapenak lurralde-plan partzialetan sartu ahal izango dira eta PIA edo PEP lotuta gomendio eta jarduteko proposamen gisa. Bestalde, eragile publiko eta pribatuek eta dagokien herritarrek modu aktiboan parte hartzea bermatzeko behar diren mekanismoak erabiltzea ziurtatu behar dela plazaratzen da (90/2014 Dekretua, 2014: 5.art.)

Beraz, EAeko Lurralde Plangintzak, *4/1990 Legearen* (4/1900 Legea, 1990) bitartez azpieskualde eskala udalerrri eta Autonomi Erkidegoaren arteko plangintza esparrutzat zehaztu zuen. Eskala honen barruan, Paisaiaren Zehaztapenak azpieskualdeko Lurralde Plangintza Trenetan (LPP-tan) barneratzeko instrumentuak ezarri. Hauek, Paisaia Katalogoetan jatorria dutelarik, beharrezkoak diren Lurralde Plangintza eta Hirigintza instrumentuan garatuko dira. Paisaiaren antolakuntzaren ikuspuntutik abiatuz, azpieskualde eskala, PKH eta neurriak zehazteko guztiz egokia da. Zehaztasun maila honek, paisaia identitateak azaltzeaz gain, udalerrrien muga arbitrarioen gainetik lurraldea antolatzea ahalbidetzen duelako (Mata, 2006a).

EPH-k zehaztutako paisaia alorreko politika aintzat hartuz, Paisaiaren Zehaztapenak, lurralde orori dagokion, babes, kudeaketa eta antolaketarekin lotutako konnotazioak bildu beharko dituzte. Babesera zuzendutako zehazpenak, paisaiaren ezaugarri esanguratsuak zaintzera eta mantentzera bideratutako ekintzak bildu beharko dituzte. Paisaiaren ondare, ingurugiro eta ekonomia balioengatik, egituraketa antropiko edo naturaletik jatorri izanik. Bestalde, kudeaketara bideratutako zehaztapenak, gizartearekin, ekonomiarekin eta ingurumenarekin zer ikusia duten prozesuak gidatu eta harmonizatu beharko dituzte. Eta, azkenik, paisaiak sortzeko edota baloratzeko bereziki zuzenduta dauden ekintzak jaso beharko dituzte. Guzti hauek, izaera prospektiboa mantentzen dutelarik (Nogué et. al. , 2016).

Gaur egun, Arabako-Errioxa, Balmaseda-Zalla eta Urola-Kosta Paisaiaren Katalogoak oinarri izanez, AF hauen Paisaiaren Zehaztapenak idatziak izan dira. 2016. urteko urrian, Arabako

Errioxa (Guardia)<sup>17</sup>, Balmaseda-Zalla (Enkarterri)<sup>18</sup> eta Zarautz-Azpeitia (Urola-Kosta)<sup>19</sup> AF bakoitzaren, Paisaia Zehaztapenei buruzko, LPP aldaketen hasierako onespina onartuz.

#### 4.1.2.3 Paisaiaren ekintza-planak eta Paisaian integratzearen azterlanak

PEP Paisaiaren Katalogoetan eta Paisaiaren Zehaztapenetan oinarritzen diren, PIBE-ei lotutako kudeaketa-bitartekoak dira, hala ere, beste esparru batzuetan garatzeko aukera posiblea da. PEP-ak, diagnostikoa eta lortu nahi diren PKH bildu behar dituzte. Baita, hauek lantzeko prozesuan, ziurtatu egin beharko da eragile publiko eta pribatuen eta dagokien herritarren parte-hartzea (90/2014 Dekretua, 2014: 6. art.).

90/2014 Dekretua plazaratu zenetik, hots, 2014. urtetik, urtero, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuak PEP-ak burutzeko deialdiak burutu izan ditu<sup>20</sup>. Hauen xedea, PEP-ak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta EAeko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak ematea da. Diru-laguntzak, lehiaketa-prozeduraren bidez ematen direlarik (Eusko Jaurlaritza, 2017a).

PIA-ei dagokionez, herri-administrazioak eta sektore publikoko entitateek, beren eskumeneko obra edo jarduera-proiektuak dokumentazio osagarrian sartu beharko agiri teknikoak dira. Obra eta jarduera-proiektuak egiteak paisaian eragiten dituen ondorioak aztertzeko eta horiek paisaian egokitasunez integratzeko onartutako irizpideak eta neurriak biltzen dutelarik.

PIA-k izan beharreko gutxienezko edukiera jaso egiten da, paisaiaren egoeraren deskripzioa, proiektuaren ezaugarriak eta paisaian integratzeko irizpideak eta neurriak, alegia. Bestalde, nolana ere, 2/2006 *Legea*<sup>21</sup> aipatzen diren jardunetan<sup>22</sup>, lurralde edo hirigintza-plangintzak eskatzen duen kasuetan, garraio edo portu-azpiegiturak eta ondare historiko artistikoaren zati

---

<sup>17</sup> Agindua, 2016ko urriaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailbururena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Guardiako (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalaren Lurralde-Plan Partzialaren 2. aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.

<sup>18</sup> Agindua, 2016ko urriaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailbururena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalaren Lurralde-Plan Partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.

<sup>19</sup> Agindua, 2016ko urriaren 28koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailbururena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren lurralde-Plan Partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.

<sup>20</sup> Hauen xedea, PEP-ak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzea eta EAeko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak ematea da. Diru-laguntzak, lehiaketa-prozeduraren bidez ematen direlarik (Eusko Jaurlaritza, 2017a).

<sup>21</sup> 2/2006 *Legea*, 2006ko ekainaren 30ek, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa

<sup>22</sup> “Lurzoru urbanizaezinean honako hauek daude baimenduta: Ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak [...], lurralde- eta hirigintza-plangintzan aurreikusitako obrak [...], aurreikusitako bideak eta errepideak eta horiek egikaritzeko eta zaintzeko azpiegiturak edo sareak [...]” (2/2006 *Legea*, 2006: 28.5. art.).

katalogatuta edo inbentariatuta dauden eremuetan ezarri nahi diren proiektuetan ingurumen- inpaktuaren banakako ebaluazioa behar badute, ingurumen-inpaktuaren azterlanean, paisaian integratzearen azterlanaren edukia sartuko delarik (90/2014 Dekretua, 2014: 7. art.). Zentzu honetan, Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritzak, *Paisaian Integratzearen Azterlanak egiteko Gida*<sup>23</sup> argitaratu du (Eusko Jaurlaritza, 2017b), lan eta jarduera-proiektu jakin batzuetarako gida orientagarri eta gomendagarri gisa.

Beraz, egun arte burututako PEP-ak eta PIA-ak, Paisaiaren Katalogoak ez diren bestelako bideetatik garatuak izan dira. Honen zergatia, aurrean aipatutako Paisaiaren Zehaztapenak behin betiko onarpena ez dutelako jasan da.

## **4.2 Paisaiaren Katalogoen paisaia unitateak**

Behin, paisaia Lurralde Plangintzan xedatzeko bitartekoen izaeraren azterketa eta egungo gauzatuak dauden identifikazioa gauzatu, ikusi dezakegu, funtsezkoa dela egungo burututa dauden Paisaiaren Katalogoak eta behin behineko onartuko diren Paisaiaren Zehaztapenak aztertzea. Hauek, EPH-k plazaratutako paisaiaren inguruko esanahi berritzailea bere osotasunean barneratzen duten instrumentu bakarrak izateaz gain, dagozkien AF-letako lurraldeetan eta EAeko Lurralde Plangintzak paisaia-politikarako hartutako bidearen erabakigarriak direlako. Bereziki, paisaia unitateetan arreta izanez, hauek, EPH-k plazaratutako paisaiaren esanahi integratzaile eta paisaia-politika garatzeko oinarritzko tresnak ditugulako, ere.

Nahiz eta, *90/2014 Dekretuak*, Katalogoen elaborazioari buruzko aipamenik ez plazaratu, hauen elaborazioak hiru etapa nagusi barneratzen dituzte. Lehenengo etapa, paisaia identifikatzea, ezaugarriak ikustea eta ebaluatzean datza. Hau da, paisaiaren identifikazioa, ezaugarritzea eta kalifikazioari dagokio. Bertan, paisaiaren analisisa burutzeaz gain, paisaiaren dinamikak, bilakaera, mehatxuak, aukerak eta ebaluazioa gauzatzen da, paisaiaren diagnostikoa, alegia. Lehenengo etapa honek, paisaia unitateen mugaketa barneratzen du. Bigarren etapari dagokionez, PKH-ei dagokio. Bertan, paisaiaren diagnostikotik eta ebaluaketatik eskuratutako emaitzetan oinarri izanik, paisaiaren kalitatearen irizpideak, neurriak eta adierazleak ezartzen dira. Helburuak herritarren parte-hartze eta kontsultaren

---

<sup>23</sup>Honen helburua paisaian integratzearen azterlanak egitea errazteko metodologia eskaintzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren esparruan da (Eusko Jaurlaritza, 2017b).

emaitza izango dira. Azkenik, PKH-en edukieratik abiatuz Paisaiaren Zehaztapenak idazten dira.

Zentzu honetan, paisaia unitateen bitartezko EAeko Lurralde Plangintzaren paisaia-politikaren azterketa lortzeko helburuz, lehenik eta behin, egungo burututa dauden Paisaiaren Katalogoetan ezarritako paisaia unitateen izaera aztertzea guztiz beharrezkoa da. Horretarako, Katalogoaren lehenengo etapan murgiltzea funtsezkoa da. Paisaia unitateen izaera, hauek zehazteko erabilitako prozeduran eta irizpideetan jatorria izateaz gain, ikerketa-fase honetan izandako bilakaeran ere jatorria duelako.

Bukatzeko, argitu beharra dago, Donostialdea-Bidaso beheako paisaia unitateak aztertzea erabaki egin dela. Nahiz eta, Katalogo honek Paisaiaren Zehaztapenak oraindik ez bildu, etorkizunean, paisaia unitateak izango duten edukiera paisaia-politika garatzeko iragartzeko guztiz erabilgarria delako. Kontu hau, paisaia unitateen diagnostikoan aztertzen delarik.

#### ***4.2.1 Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Paisaiaren Katalogoa***

*Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2012), 2012. urtean, “*Idom*” izeneko ingeniari eta aholkularitza-enpresaren eskutik burutua izan zen. Katalogo honek, bi etapa barneratzen ditu. Lehen, “*Paisaia identifikatzea, ezaugarriak ikustea eta ebaluatzea*”, paisaiaren identifikazioa, ezaugarriketan eta ebaluatzea datza. Etapa honen emaitzazko kartografian, paisaia unitateak biltzen dira. Bigarren etapan, “*Irizpideak, neurriak eta adierazleak*”, PKH, ekintzak eta adierazleak ezarri egiten dira.

##### *4.2.1.1 Lehenengo etapari lotutako memoria*

Katalogo honetan, paisaiaren identifikazioa, ezaugarriketa eta ebaluaketa gauzatzeko, azalpen deskriptiboen bidez plazaratutako azterketak ditugu. Hurrengo orrialdeetan plazaratutako ikergaiak eta irizpideak barneratzen dituelarik.

##### *a) Lurralde-eremua*

Hasteko, ikerketa objektua den lurralde-eremuaren deskribapen orokorra burutu da. Horretarako, biztanleria, jarduera ekonomikoak eta lurralde harremanak irizpidetzat izan ditu.

##### *b) Paisaia baldintzatzen duten faktore naturalak*

Enkarterrietako paisaia ikertzeko aipatu eta deskribatutako irizpide naturalak geologia (egitura-azpiunitateak eta litologia), geomorfologia (orografia eta fisiografia), klima (prezipitazioak,



temperaturak, izozteak eta lainoak), hidrografia (gainazaleko ura, lurpeko ura eta iturburuak) eta landaredia (gaur egungo landare-unitate nagusienak) ditugu.

c) Giza faktoreak

AF-a 8 esparru geografiko desberdinetan sailkatu dute. Aipatzekoa da, esparru geografiko guztiak, bat izan ezik, AF-ren barnean aurkitzen diren udal-barruti bakoitzari dagokiela. Bakoitzari buruzko kolonizazioaren prozesu historikoa eta paisaian duen eraginaren azalpen zabalak burutu dituzte, lurraldean egondako lehenengo finkapenetik XX. mendera arte. Aldi berean, ondare historikoari buruzko eta eraikinei buruzko aipamenak agertzen dira.

d) Gaur egungo paisaia:

Bertan aurkitzen diren udalerrri bakoitzekiko lur-erabileren (basogintza, abeltzaintza eta industria) bilakaera eta kokapenari buruzko ikerketa gauzatzen dute. Lurraldearen egungo paisaia definitu duten elementutzat ezarriz.

e) Paisaiaren adierazpen artistikoa

Enkarterrietan eta Enkarterriak xedetzat izan duten adierazpen artistikoen azalpenak gauzatu dira. Horretarako lehenengo agerpen artistikoak (kobazuloetan agertu diren aurrehistoriako margolanen azalpenak), pintura (xedetzat izan duten obren aipamenak), argazkia (paisaiari erreferentzia egiten dioten argazki zaharren aipamenak), literatura (buruzko lehenengo idatziaren pasarteak eta Enkarterriak obra-gai nagusitzat hartu duten idazleen lanen aipamenak), bidaia eta turismo-gidak (dokumentu eta giden atalen aipamenak) aztertu dituzte.

f) Paisaia esanguratsuenak

AF-ean 20 paisaia esanguratsu identifikatu egiten dituzte. Aipatu behar da, atal honetan biltzen diren deskribapenetan, ikuspenarekin loturiko aipamenak burutu egin dira. Beraz, sumatu dezakegu ikusgarritasuneko eta tarteko ikusgarritasuneko analisiak burutu egin direla, dokumentazio grafikoan agertzen direnez gero. Bestalde, arto bisualei lotutako mapa plazaratu izan dute, ere.

g) Arlo Funtzionalean gehiago eragiten duten jardueren eta prozesuen dinamikak

Paisaian eragiten duten jarduerak eta prozesuak ikertu dituzte, horretarako lurraldearen hurrengo sailkapena gauzatu dute: tontorretako eta goi-kotak, hegalak eta erdi-kotak, haran-hondoa eta behe-kotak. Horretarako, gauzatzen diren prozesuak aztertuak eta eman daitezkeenak aurreikusitakoak dira. Azkenik, DPSIR (*Driving force, Pressure, State, Impact and Response*) azterketa gauzatu dute, non, azterketa-taulak eta aktore, presio, efektu, eragin eta erantzun sekuentziak plazaratu dute. Aipatzekoa da, identifikatutako prozesuak eta dinamikak (1. Eranskina) lurraldean aurkitu ditzakegun elementu puntualen presentzian oinarritzen direla hein handi batean.

h) Paisaiaren bilakaera gaur egungo

AF-ean gauzatzen diren lur-erabilera nagusietan oinarrituz, paisaiaren ebaluaketa sektoriala gauzatzen dute. Horretarako, lurraldean zehar tokiko baso preziatuak (pagadiak, hariztiak eta hiri-guneak), baso-eremuak, larreak, nekazaritza esparruak eta hiri-eremuen bilakaera ikertu dute, joera sozioekonomikoak eta ingurumenekoak aztertuz.

i) Mehatxuak eta aukerak

Paisaiaren optikatik egindako diagnostikoan oinarrituz, AF-ri dagozkion mehatxuak eta aukerak ezartzen dituzte. Nabarmentzekoa da, mehatxuak eta aukerak lur-erabilpen eta lurraldearen elementu puntualetan arreta dutela (2. Eranskina).

j) Paisaiaren ebaluazioa

Azkenik, aurreko informazioaz baliatuz lurraldearen ebaluazioa gauzatu dute. Udalerri bakoitzekiko lurralde egoera desberdinduz, berriro ere, lur-erabilpenetan eta elementu zehatzetan arreta izanez.

Bukatzeko, aipatu behar da, etapa honetan gauzatzen den paisaia ikerketa lurralde eskala zehatzean, eskala handian, gauzatutako azterketa dugula. Non, udalerriak, lur-erabilpenak eta elementu puntualak (eraikinak) azterlanaren ardatz izan dira. Bestalde, memorian zehar, partaidetza-publikoari buruzko aipamenik ez dira agertzen. Paisaia unitateei dagokionez, paisaia unitateen presentzia lehenengo etapan inolakoa izan da.

#### 4.2.1.2 *Lehenengo etapari lotutako kartografia*

Lehenengo etaparen, “*Paisaia identifikatzea, ezaugarriak ikustea eta ebaluatzea*”, emaitzazko kartografia, PIBE-ei eta paisaia unitateei lotutako mapaz gain, ikertutako faktore natural, paisaiaren balioa, inpaktuak, arriskuak eta ebaluazioarekin lotutako mapak barneratzen ditu.


Hasteko, erliebearekin lotutako zenbait mapa aurkitzen ditugu. Bereziki, lurraldearen altimetria, orientazioa, maldak eta geologia lau mapa desberdinetan<sup>24</sup> biltzen dira. Bestalde, lehenengo etapan aipatutako egitura-azpiunitateei buruzko agerpen kartografikorik ez dago.

Erliebea erabakigarria izan dela paisaia unitateen zehaztapenetan esan dezakegu, honen adibide, “*Ordunte mendiak*” paisaia unitatea dugu, honek altimetria altuena jasotzen duten lurraldeak barneratzen dituelarik (2. Irudia eta 3.Irudia).

---


<sup>24</sup> “*Altimetria*”, “*Orientazioa*”, “*Maldak*” eta “*Geologia*” mapak.

## 2. Irudia: “Ordunte Mendiak” paisaia unitatea



Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

## 3. Irudia: “Ordunte mendiak” paisaia unitatea barneratzen duen lurraldearen altimetria



Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

Ondoren, ikuskapen eta ikus arroekin lotutako kartografia<sup>25</sup> dugu. Irizpide bisualak ez dira kontuan hartu paisaia unitate hauen mugaketan. Adibidez, AF-ren ekialdean “Ganekogorta” eta “Grumeran mendiak. Eretza” paisaia unitateen artean, “Kadagua Harana” unitatearen ipar-ekialdeko muturra dugu (4. Irudia eta 5. Irudia). “Kadagua Harana” paisaia unitatetik luzatzen den adarra, Kadagua ibaiaren ibilguari dagokio. Lurralde hori dagokion unitatearen baitan sartzeko irizpidea, Ganekogorta eta Grumeran Parke Naturalen mugen artean aurkitzen dela da. Aitzitik, ez dute kontuan hartu lurralde horrek “Zaramillo” ikus-arroaren (6. Irudia) baitan aurkitzen dela, ezta esparru osoari dagokion ikusgarritasun baxua (7. Irudia).

<sup>25</sup> “Ikus-arroak” eta “Ikuskapena” mapak.




**4. Irudia: “Kadagua Harana” unitatearen ipar-ekialdeko muturra**




*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

**5. Irudia: “Kadagua Harana” unitatearen ipar-ekialdeko muturraren 2012ko aireko argazkia**




*Iturria: neure egintza*

**6. Irudia: “Kadagua Harana” unitatearen ipar-ekialdeko muturra “Zaramillo” ikus-arroaren baitan.**



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*


**7. Irudia: “Kadagua Harana” unitatearen ipar-ekialdeko muturraren ikusgarritasun baxua**



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Bestalde, lurzoruaren erabileren mapa dugu, “Lurzoruaren erabilerak”, hain zuzen ere. Lurzoruaren erabilera desberdinak barneratzeaz gain, landarediaren espezieen araberako sailkapen zehatza barneratzen duena. Paisaia unitateei dagokionez, lurzoruaren erabilerak ez da funtsezkoa izan paisaia unitateak zehazteko. Honen adibide “Gordexola” eta “Kadagua Harana” paisaia unitateen arteko muga dugu (8. Irudia). Bertan, baso landaketak nagusitzen direlarik (9. Irudia), lur-erabilpen berdintsuak jasotzen duen lurraldea bi unitateetan banandua izan da.


**8. Irudia: “Gordexola” eta “Kadagua Harana” paisaia unitateak**



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*



## 9. Irudia: “Gordexola” eta “Kadagua Harana” unitateen artean baso landaketak nagusitzen dira.



Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

Bestalde, AF-ren paisaiaren balioa barneratzen dituzten mapak ditugu. Hauek, tematika desberdinak barneratzen dituzten mapak<sup>26</sup> dira (ekologia-balioa, estetika-balioa, historia-balioa, sinbologia-balioa eta ekoizpen-balioak eta herri-arkitektura) lurraldean aurkitu ditzakegun elementu puntualen eta zehazten identifikazioa eta sailkapen zehatza barneratzen dituzte (3. Eranskina).

Ondoren, paisaiaren inpaktuak biltzen duen mapa dugu, “Paisaia-inpaktuak”, ikus-hauskortasunari buruzko informazioaz biltzeaz gain, erantzun bisual negatiboa sortarazten dituzten elementu puntualak eta linealen identifikazioa barneratzen du (4. Eranskina). Lurraldean identifikatutako arriskuen mapari dagokionez, “Arriskuak”, uholde-arriskua, lurzorua higidura, akuiferoen zaurgarritasuna, baso-suteak eta nekazaritza-abeltzaintza jarduketarako hondakinei buruzko informazioa jasotzen da.

Azkenik, paisaiaren ebaluazioa biltzen duen mapa dugu. Honek, paisaiaren balioa aztertzerakoan identifikatutako elementuak barneratzen ditu (balio-ekologikoa, balio-estetikoa, balio historikoa, balio sinbolikoa, ekoizpen-balioak), lur-erabilerak, inpaktuak eta uholde guneekin bat.

Bukatzeko, aipatu behar da, emaitzazko kartografian plazaratutako lurralde informazioa ez dela funtsezkoa izan paisaia unitateak zehazteko, erliebea izan ezik. Bestalde, aipatzekoa da, lur-erabilerak, paisaiaren balioa, arriskuak, mehatxuak eta ebaluazioa barneratzen duten mapek,

<sup>26</sup> “Ekologia-balioak”, “Estetika-balioa”, “Historia-balioa”, “Sinbologia-balioa”, “Herri-arkitektura” eta “Ekoizpen-balioak” mapak.

lehenengo etapan gauzatutako lurraldearen ikerketa zehatzaren isla dira. Eskala handiaz identifikatutako elementuak eta egitura barneratzen dutelarik.

#### 4.2.1.3 Paisaia unitateen alderaketa


Balmaseda-Zallaren Paisaiaren Katalogoan zehaztuko paisaia unitateak 10 ditugu (1.Taula), aurrean aipatu den bezala, emaitzazko kartografian plazaratutako “Paisaia-unitateak” maparen bidez (10. Irudia) aurkeztuak izan dira. Bestalde, paisaia unitate bakoitzekiko fitxa plazaratu dute, non, bakoitzari dagokion faktore naturalak, giza faktoreak eta dinamikak azaltzen dira.

**1.Taula: Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) paisaia unitateen izendapena**

<b>Paisaia unitateak</b>
Alen-Armañon
Kadagua Harana
Galdames
Karrantza Harana
Ganekogorta
Lanestosa
Gordexola
Ordunte Mendiak
Grumeran mendiak. Eretza
Turtzioz, Artzentaless, Otxaran

*Iturria: neure egintza*

**10. Irudia: Arlo Funtzionalerako zehaztutako paisaia unitateak**



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Hasteko, “*Lanestosa*” paisaia unitatea dugu, AF-ren mendebaldera aurkitzen dena. Honek, Lanestosa ibaiak sortutako haranaren ekialdeko hegalean zabaltzen da. Honen ekialdean, “*Karrantza Harana*” egonda, aurreko atalean ikusi dugun bezala, bien arteko muga urbanalderoak zehazten du Azkenengo honen ekialdean, Villaverde Haranaren (Kantabriako Autonomi Erkidegoa) ekialdean, “*Turtzios, Artzentaless, Otxaran*” paisaia unitatea dugu. Honek, Otxaran haranean “*Kadagua Haranarekin*” bat egiten du. Azken honek “*Galdames-Sopuerta*” paisaia unitatea iparraldeak mugakide duelarik. Guzti hauek, behe-kotei, haranei, lotutako unitateak izanik, hauen bereizgarri hurrengo irizpideak izan dira:

- “*Lanestosa*”:

Bizkaiko lehenengo herrigunea (Lanestosa) eta hedadura gutxiena duen udalerrria barneratzeaz gain, Kalera ibaia eta Ordunteko mendi-inguruak hauteman daitezke. Baita, Kalera ibaiaren hiri-baratzak eta herrigunea zaindua eta ondarea du bereizgarri.

- “*Karrantza harana*”:

Ibai ertzetako landarediaz gain, bertan aurkitzen diren eraikinak (herriko arkitektura, gotorlekuak eta arkeologia ondareak, baita, erromeriak ditu bereizgarri ondoko lurraldearekiko.

- “*Turtzios, Artzentaless, Otxaran*”:

Lehenik, goi-ordokiko izaera (komunikazio azpiegituren banaketa) bereizgarri du. Baita, Agüera, Kolutza ibaiak eta Retola errekek, ondare eraikia (21 etxe-dorre, basiliza, parrokiak, erromatar bidea bertatik gurutzatzea eta Traslaviña trenbidea) eta Txakoli laborantza hazkundera ditu bereizgarri, ere.

- *Galdames-Sopuerta*”:

Mendi-paisaiatz inguratua egoteaz gain, antzinako mehatze ustiaketak, akueduktu eta obiduktu interesgarriak eta eremu arkeologikoak ditu bereizgarri.

Bestalde, “*Gordexola*” paisaia unitatea dugu, izen berbera hartzen duen udalerrria bere osotasunean barneratzen duena, ipar-mendebaldeko Jorgi herrigunea izan ezik, honek, Kadagua ibaiaren parean aurkitzen den herri-gunea denez, “*Kadagua Haranean*” barneratu dute. Azkenengo honek, Balmaseda, Zalla eta Gueñes udal barrutiak biltzen ditu. Baita, “*Trutzios, Artzentaless, Otxaran*” unitatea, Trutzios, Artzentaless eta Otxaran herri-guneak. Izatez, Paisaiaren Katalogoan unitate horretan bestelako hiru azpi-unitate ikuskatzen direla plazaratzen da, baina hauen batasuna burutzea nahiago izan dutela arrazoitu dute.

“*Kadagua harana*” paisaia unitateari dagokionez, Kadagua ibaiaren haran biltzen du osotasunean. Lurralde honen bereizgarri, Enkarterrietako biztanleria gehiena biltzea,



eskualdearen komunikazio bideak jaso, baso-birlanaketa ugari eta iraultza industrialera lotutako eraikinak (fabrikak eta egur-industria) dira.

Orain arte aipatutako paisaia unitateak, “*Kadagua Harana*” izan ezik (honek hiri-guneak, industrialdeak eta baso-landaketak nagusi ditu), gainontzekoak, lur-erabilpen berdintsuak partekatzen dituzte, bertan nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta basogintza nagusitzen dira, landazabala, alegia . Baita, biztanleria sakabanaketa, herrixka eta eraikin sakabanatuak.

Hala ere, “*Gordexola*” unitatea (11. Irudia) bestek baino menditsuagoa eta baso-azalera barneratzen ditu. Bertako larreak eta baso-landaketak, urbanizazioaz mehatxatua daudela aipatzen da. Bestalde, laborantza nagusi duten unitateetan, landazabala mantentzearen beharra plazaratzen dute. Berez, dinamika berdinak dituzten paisaia unitateak direlako. “*Gordexola*” unitatearen ezaugarri bereizgarri, Herreria ibaia, dorretxeak, burdinolak eta errotak ditugu.

#### 11.Irudia: “*Gordexola*” paisaia unitatea



Iturria: *Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Beste alde batetik, mendiei dagozkion paisaia unitateak ditugu, hauek AF-ren perimetroan aurkitzen dira, haranak inguratuz. Paisaia unitateen (mendi / harana) arteko muga herrixken presentziaz zehaztua izan da (12. Irudia). Mendigune paisaia unitateak biztanleria nukleoak baztertuz hein handi batean mugatuak izan dira. Adibidez, “*Alen-Armiñon*” paisaia unitatea, Armiñon parke naturala bereratzen du. Paisaiaren Katalogoan unitate osoa Parke Naturala izendatzeko nahia plazaratzen dute. Beraz, esan dezakegu, horregatik guztiz bereiztua ageri dela.



- “Ganekogorta”:

Minaur harana barneratu (landazabala) egiten du. Honen bereizgarri, biderik biltzen ez dituen unitatea da, baita, biztanleria nukleo urriak eta gurbitzak ere.

Bukatzeko, aipatu behar da, paisaia unitateak zehazteko funtsezko irizpidea erliebea izan dela, zentzu honetan, hiru erliebe motetan taldekatu ditzakegu (2. Taula). Bereziki, lurraldean gauzatzen diren altuera eta malda desberdintasunak. Bestalde, unitateak nahiz eta lur-erabilpen berdintsuak bildu, hauen bereizgarri, paisaia unitate bakoitzaren barnean zehaztasun handiz topa ditzakegun elementuak dira. Arkitektura, ondarea, ibaiak eta azpiegitura elementuak, adibidez.

## 2. Taula: Paisaia unitateak erliebearen arabera

Paisaia unitateak	Erliebea
“Alen-Armiñon”, “Ordunte Mendiak”, “Grumeran mendiak” eta “Eretza eta Ganekogorta”	Mendi tontorrak (kota-altuak)
“Lanestosa”	Hegalak (erdi-kotak)
“Karrantza Harana”, “Trutzios, Artzentaies, Otxaran”, “Kadagua Harana”, “Galdames- Sopuerta” eta “Gordexola”	Haran hondoak (behe-kotak)

*Iturria: neure egintza*

### 4.2.2 Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Paisaiaren Katalogoa

*Urola-Kosta (Zarautz-Azpeitia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2012b), 2012an, euskal “LKS Ingeniería, S. Coop.” Sozietate talde egilearen ardura, Gironako Unibertsitatea laguntzaile izanez, sortua izan zen. Katalogo honek bi etapa nagusi barneratzen ditu. Lehenengo etapa, “Paisaia identifikatzea, ezaugarriak ikustea eta ebaluatzea” deiturikoa, eta bigarren etapa, “Irizpideak, neurriak eta adierazleak”, PKH-en ezarpenean datza.

#### 4.2.2.1 Lehenengo etapari lotutako memoria

Urola-Kostako paisaiaren identifikazioa, ezaugarriketa eta ebaluaketa gauzatzeko, azalpen deskriptiboen bidez plazaratutako azterketak ditugu. Hurrengo ikergaiak barneratzen dituelarik:

##### a) Lurralde eremua

Hasteko, AF-ren deskribapen orokorra gauzatu dute, biztanlerian, ekonomia-sektoreetan, azpiegiturretan eta natura-ondarean arreta izanez.

b) Paisaia baldintzatzen duten eragile naturalak

Atal honetan, AF-ren paisaiaren osagai naturalak ikertu dituzte. Bereziki, erliebea, klima, urak, lurrak, landareak eta paisaia fauna ikertuz.

c) Giza eragileak

Paisaiaren osagai historikoa ikertu dute, horretarako lurraldearen okupazioa eta eraldaketa paisajistikoak mendeetan zehar (aurrehistoriatik XX. mendera arte) biltzen dituzten azalpenak burutu dituzte. Bestalde, monumentu megalitikoaren identifikazioa gauzatu dute.

d) Gaur egungo paisaia

Lurraldean paisaia mota desberdinak identifikatu dituzte, lur-erabilera eta lur-estalduren mosaikoaren arabera honako bereizketa zehatza eginez (3. Taula)

**3. Taula: Lur-erabilera eta lur-estalduren mosaikoaren arabera identifikatutako tipologia paisajistikoak**

<b>Identifikatutako paisaia tipologiak eta azpi-tipologiak</b>	
Kostaldeko paisaia tipologia	
Landa-paisaia tipologia	Landazabal atlantikoa (Basoa eta abeltzaintza / mahastiak)
	Baso paisaia
Paisaia urbanoa tipologia	Hiri nukleoa (Kostaldeko ardatza /Urola erdiko ardatza)
	Paisaia periurbanoa (Kostaldeko ardatza /Urola erdiko ardatza)
	Landa nukleoa
	Azpiegitura paisaia

*Iturria: neure egintza*

e) Paisaiaren arte-adierazpena

Urola-Kosta xedetzat duten obren bilketari buruzko azalpenak barneratzen dira.

f) Paisaia esanguratsuak

Atal honetan ezaugarri esanguratsuak barneratzen dituzten paisaiak identifikatzeko beharra plazaratzen baino ez da.

g) Paisaiaren dinamikak

Lurraldearen dinamikak ikertu dituzte. Horretarako, aurrean identifikatutako, lur-erabilera eta lur-estalduren mosaikoan oinarritzen diren, paisaia tipologietan oinarritzen dira. Bakoitzari dagokion garapena ikertuz.

h) Paisaiaren bilakaera

Paisaiaren bilakaerari buruzko azterketa gauzatu dute, aurrean aipatutako paisaia tipologietan oinarritzen dena.

i) Urola Kostako Eremu Funtzionalaren planak eta programak

Azpieskualdeko planak eta programak ikertu dituzte, paisaiaren etorkizunari buruzko ikerketa sakontzeko asmoz.

j) *Mehatxuak eta aukerak*

Egitura sektoriala barneratuz, AF-ri dagozkion mehatxuak eta aukeren azterketa gauzatu dute (5. Eranskina).

Bukatzeko, aipatu behar da, etapa honetan gauzatzen den paisaia ikerketa eskala handian gauzatutako azterketa dugula. Non, lur-erabilpenak, lur-estalduren mosaikoak eta elementu puntualak azterlanaren ardatzak izan dira. Burututako paisaia diagnostikoa lur-erabilera eta lur-estalduren mosaikoaren arabeko paisaia tipologietan oinarritzen delarik.


Paisaia unitateei dagokionez, lehenengo etapan identifikatutako aukeretan, ibai inguruak berreskuratzea (unitate guztietan) eta Eusko Label produktuak (“*Urola Kostako itsasertza*” paisaia unitatean) edukiera baino ez dute. Honek, aditzera ematen du, lurraldearen mehatxuak eta aukerak zehazteko orduan, jada, paisaia unitateak ezarriak izan zirela.

*4.2.2.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura*

Urola-Kostako (Zarautz-Azpeitia) paisaia unitateak zehazteko prozedurak, Paisaiaren Katalogoan zehazki barneratzen da. Prozedurak hiru atal nagusi barneratzen ditu (13. Irudia). Lehenengo fasean, paisaia baldintzatzen duten eragile naturalei lotutako azterketa gauzatu dute, horretarako, lurralde informazioaren oinarri digitalaren hautaketa gauzatu behar izan dutelarik. Bigarrenik, aurreko fase horretatik eskuratutako emaitzei ikuskarpenarekin, alderdi historikoarekin eta dinamikekin lotutako informazioaren eransketa gauzatu dute, paisaia unitateen lehendabiziko mugaketa gauzatuz. Azkenik, partehartze prozesuan zehar eskuratutako emaitzak erantsi egin dira, behin betiko paisaia unitateak zehaztuz.



### 13. Irudia: paisaia unitateak zehazteko prozedura eta ikertutako osagaiak



*Iturria: neure egintza*

#### a) Lurralde informazioaren oinarri digitalen hautaketa

Hasteko, erliebearen ikerketa burutu dute. Bereziki, erliebearen egitura eta moldatzeak ikertu dituzte (litologia, altitudea, maldak eta orientazioarekin loturiko informazioa). Hala ere, azalpen deskriptiboen bidez aurkeztu egin da, non, unitate morfo-estrukturalak zehaztu dituztela, plazaratzen da.

Bigarrenik, landaredia eta lur-erabilpenak ikertu dituzte. Osagai hauek aztertzeke, lur-estaldurak barneratzen dituzten mapak erabili egin dituzte. Lehenik eta behin, lur-erabilpen nagusiaren arabera eremuen desberdinen mugaketa burutu egin dute: basoak, baso-landaketak, sastrakadiak, belardi eta larreak, labore-lurrak, hiri-eremuak (alde zaharra, urbanizazioak, poligono industrialak eta merkataritza-guneak) eta itsasertzeko morfologiak (hondartzak, dunak, amildegiak eta ur-laminak). Ondorioz, esan dezakegu, lur-erabilpenei buruzko, eskala handian eta guztiz zehatza den mugaketa burutu egin dutela. Zenbait esparruen indibidualizazioa gauzatu: baso-estaldurak, laborantza-erabilpenak, baserriei dagokion landazabal paisaia eta eremu hiritartuak.

Bukatzeko, gainontzeko lurralde datu-baseak gehitu egin direla azaltzen baino ez da. Aditzera ematen du, gainontzeko osagai naturalaren ikerketatik eskuratutakoa izan dela. Bereziki, klima (tenperatura eta prezipitazioak), ura (ibaiak eta hezeguneak) eta faunarekin (ornodunak) lotutakoa. Honi buruzko informazio kartografikorik ez da ageri.

b) Ikuspenarekin, alderdi historikoarekin, bertako sentimenduaren eta lurraldearen ezagutza adituarekin lotutako informazioaren eransketa:

Ikuskapen analisiari buruz, ikuskapen kalkuluak burutu egin dira, bereziki paisaia begiratoki nagusietik, biztanle nukleoetatik eta errepide nagusietik ikuspena eta lurraldearen ikus-espazioa aztertu dute.

Bestalde, alderdi historikoari dagokionez, aurrean esan dugun bezala, Urola Kosta lurraldearen okupazioaren historia mendeetan zehar (aurrehistoriatik XX. mendera arte) ikertu egin dute, hainbat iturri bibliografikoz abiatuz azalpen luzeak burutuz plazaratuak izan dira.


Paisaiaren izaera eta identitatea definitzeko orduan, honako osagaiak identifikatu dituzte: alde zaharrak, lursail-zatiketa, baserriak eta garraio-azpiegiturak (trenak eta errepideak). Paisaia unitateen mugaketan, paisaia batzuk ezaugarritzen duten dinamiketan oinarritu direla aipatzen da. Bereziki, hiri-periferiak eta kostaldeari zuzendutakoak.

c) Paisaia unitateen mugaketa

Aurretiazko informazioaz baliatuz eta desberdinak diren orbanak banatzea eta berdintsuak direnak taldekatzearen printzipioa jarraituz paisaia unitateen mugaketa burutu dutela plazaratzen da. Aipatzekoa da, Katalogo honen eraketa osoan zehar gauzatutako partehartze prozesu desberdinetan eskuratutako ekarpenak, paisaia unitateen mugaketa eta izendapena baieztatzen lagundu egin dutela nabarmentzen dela.

Katalogoak zehaztutako paisaia unitateak 10 ditugu (14. Irudia), ondoren ikusiko dugun bezala, lehenengo etapari lotutako kartografian aurkeztuak izan direlarik

#### 14. Irudia: Arlo Funtzionalerako zehaztutako paisaia unitateak



*Iurria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*


#### 4.2.2.3 Lehenengo etapari lotutako kartografia

Lehenengo etapari lotutako emaitzazko kartografian, hasteko, PIBE eta paisaia unitateak biltzen dituzten mapak ditugu. Paisaia unitateei dagokenez, bi mapa plazaratuak izan dira. “01a Paisaia unitateak” mapa, AF-ren muga administratiboen barnean unitateak biltzen dituena, bestea, “01b Paisaia unitateak” mugatik ondoko lurraldeetara hedadura duten unitateak jaso egiten ditu.

Ondoren, lurzoruaren erabilerei buruzko mapa aurkitu dezakegu, “Lurzoruaren erabilerak”. Mapa behin aztertua, esan dezakegu, paisaia unitateak zehazteko lur-erabilerak ez direla funtsezkoak izan. Lur-erabilera berdina dauzkaten lurraldeak zatikaturik ageri batira. Honen adibide, “Ernioko mendigunea” eta “Andatza” paisaia unitateak ditugu. Hauen arteko muga. Bi unitateetan, harriak eta basoak nagusitzen direlarik, bereiztua izan da (15. Irudia).



15. Irudia: “Ernioko mendigunea” (08) eta “Andatza” (04) paisaia unitateen arteko muga




Iturria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

Bestalde, ikus analisiarekin lotutako hiru mapa aurkitzen ditugu<sup>27</sup>. Bata, ikus-espozioari dagokio, bestea, begiratokiak identifikatu egiten ditu eta hauetatik dagoen toki-ageria identifikatu egiten du. Azkena, begiratokiak eta ibilbide sareak barneratzen ditu. Emaitzazko kartografia hau, paisaia unitateen prozeduran barneratua izan dela plazaratzen da, hala eta guztiz ere, ikus-espozioari lotutako mapa behin aztertua, honek ez duela eragini funtsezkoa izan paisaia unitateak zehazteko argi dago. Ikus-espozizio handiko gunek, zatikaturik ageri direlarik paisaia unitateen artean (16. Irudia). Baita, begiratokietara lotutako ikuskapen-analisia, ez du unitateen mugaketan eraginik izan (17. Irudia).


<sup>27</sup> “Ikuspen eta Ikuseremu mapak Begiratoki eta Lurralde”, “Ikuspen eta Ikuseremu mapak. Begiratoki eta Ikuspena” eta “Ikuspen eta Ikuseremu mapak. Ikus-espozioa” mapak.

**16. Irudia: “Izarraiz” (06), “Azkoitia-Azpeitia” (07) eta “Ernioko mendigunea” (08) paisaia unitateen arteko mugak.**



*Iturria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

**17. Irudia: “Urola behea” (03), “Urola Kostako itsasertza” (01) eta “Pagoeta” (04) paisaia unitateen arteko mugak.**



*Iturria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Paisaiaren balioei dagokionez, tematika desberdinen arabera (estetiko, ekologiko, historikoak, sinbolikoak eta ekoizpen-balioa) lurraldearen elementu zehatzak eta puntualak identifikatuak, katalogatuak eta izaeraren arabera sailkatuak izan dira, zazpi mapa<sup>28</sup> desberdinetan bilduz.

<sup>28</sup> “Balio Ekologikoen mapa”, “Balio Estetikoen mapa. Ereduak”, “Balio Estetikoen mapa. Elementuak”, “Balio Estetikoen mapa. Aldaketak”, “Balio historikoen mapa”, “Balio emankorren mapa” eta “Balio sinbolikoen mapa”.


Identifikatutako paisaiaren inpaktuei dagokionez, “*Paisaiaren inpaktuak*” mapan biltzen dira. Hauek, uholdeei, mantenugai-isurketei, industria-kutsadurari, zoru higadurari eta landarediaren errekotasunari lotutakoak dira.

Bestalde, Arriskuei dagokionez, paisaiaren aldetik integratuak ez dauden elementuak identifikatuak eta sailkatuak izan dira zehaztasunez. Ikus hauskortasunari lotutako elementu puntualak ditugu (6. Eranskina). Hauek, “*Arriskuen mapa*” kartografian biltzen dira.

Lurralde Plangintzari lotutako hiru mapa ditugu. Hauek, Lurralde Plan Partzialak ezarritako garapen ekintzak, Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren Jarduketak eta, hiri-ingurune eta hiri-inguruko ekintzak jasotzen dituzte. Bestalde, Udala Plangintza jasotzen duen mapa dugu, “*Udalplan*” izenekoa.

Mehatxuei buruzko mapan, “*Paisaiaren ebaluazioa. Mehatxuak*”, hiri-presioa plazaratzeko orduan, paisaia unitate batzuetan gutxiagotua aurkeztu dute. Hala eta guztiz ere, lurraldearen eremu zehatz batzuei dagokion hirigintza-garapenei buruz ari da. Bestalde, bestelako mehatxu batzuk plazaratu dituzte: paisaia degradazioa duten guneen finkapena (hiri-gune, azpiegitura, industrialdeei dagozkionak), LPZ-ak aurreikusitako azpiegituren garapenak eta, azkenik, harrobiak eta zabortegeiak identifikatuak ageri dira, paisaia bateratu edo berreskuratuak ez dauden harrobi eta hondakinei lotutako mehatxuan. Aipatzekoa da, aurrean ikusi dugun bezala, paisaia unitateak zehazteko prozeduran hiri-periferiak eta kostaldeari buruzko dinamikak paisaia unitateen muga batzuk zehazteko erabiliak izan direla, hauek paisaia unitate batzuen arteko mugak zehazteko erabakigarriak izanez (18. Irudia eta 19. Irudia).


**18. Irudia: “*Irukurutzeta eta Samiñanoko mendiak*” (07) unitatean zabortegeiak erabakigarriak izan dira.**



Iturria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa.



**19. Irudia: “Urola Kostako itsasertza” (01), paisaia unitatean, zaborteziak eta Oikia-Iraeta GI-2633 azpiegituraren aurreikuspena mugak zehaztu dituzte .**



*Iturria: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa.*

AF-ren aukerei buruzko ebaluaketa mapa dugu, “*Paisaiaren ebaluazioa. Aukerak*”, lehenengo etapan zehar identifikatuak izan ez diren paisaia guneak ezarriak izan dira. Bereziki, hiri-paisaia, hiri-inguruko paisaia, industria-paisaia, ibai-paisaia eta natural-landa paisaia. Esparru hauetan lurraldeari dagokion aukerak plazaratu egin direlarik. Mapan, paisaia unitateak gainjarrita agertu dira. Hala ere, aukerak zehazteko orduan, hauen edukiera hutsala da.

Bukatzeko, aipatu behar da, emaitzazko kartografia guztian, lur-antolabideei lotutakoan izan ezik, paisaia unitateak gainjarrita ageri den saretzat plazaratuak izan direla. Hauek dakarten paisaia bereizketaren edukiera, orokorrean, hutsa izanik. Mugak, lehen esan den bezala, hiri-periferian eta kostaldean gauzatzen diren dinamikaz baldintzaturik ageri baino ez dira. Bestalde, paisaiaren balioa ikertzen duten mapak, eskala handiz eta zehaztasun handiez biltzen duten elementu puntualen katalogoak barneratzen dute, lehenengo etapan gauzatutako paisaia ikerketa zehatzaren isla izanez. Bestalde, aipatzekoa da, erliebeari buruzko oinarri kartografikorik, ezta unitate-morfoestruturalen maparik plazaraturik ez dagoela.

#### *4.2.2.4 Paisaia unitateen alderaketa*

Orain arte ikusi dugun bezala, badira 10 paisaia unitate Urola Kosta osatzen dutenak, hauek emaitzazko kartografiaren bidez izan dira. Katalogoan, bakoitzari buruzko fitxa deskriptiboez lagunduta plazaratuak. Non, bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak eta balio paisajistikoak azaltzen dira.

Lehenik, kostaldean zabaltzen diren bi paisaia unitate ditugu, “*Urolako Kostako itsasadarra*” eta “*Oriako kostaldea*” (20. Irudia). Beste unitateekin konparatuz, kostaldeko kokapena eta bertako lurraldeetan esparru hiritartua azalera esanguratsua hartzen du. Lehenengo unitatean, Flysch materialen modelaketa itsaslabarretan eta kostaldeko landazabal paisaia (mahasti landaketa, txakolina), eta bigarreanean, arrantza portuko paisaia biltzen duelarik desberdinuak izan dira. Bien arteko muga, Oria ibaiaren harana zehazten du. Hala ere, bestelako irizpideak dituzte bereizgarri:

- “*Urolako Kostako itsasadarra*” :

Unitatea gurutzatzen duen azpiegituren ardatza (A-8, N-634, trenbidea), hiriguneak (Zarautz, Getaria eta Zumaia), baso landaketen azalera eskasa, mahastien azalera beste unitateak baino hedadura gehiago hartu eta belardi eta larreak unitatearen erdia hartzen dute.

- “*Oriako kostaldea*”:

A-8 autopistaren trazaketa (itsasadarra bidezubitik gurutzatu), Oria itsasadarra, unitatearen erdia basoak, landaketak eta sastrakak direla eta belardiak Mendizorrotz hegaletan aurkitzen direla.

**20. Irudia: Urola Kosta Arlo Funtzionalaren kostaldeko lurraldea. Bertan, “*Urolako Kostako itsasadarra*” eta “*Oriako kostaldea*” paisaia unitateak zehazten direlarik.**




*Iturria: neure egintza eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Bestalde, landazabal atlantikozko paisaia bestelako bi unitateen arteko elementu bereizgarritzat agertzen da. “Urolako Kostako itsasadarrean” eta “Andatza” paisaia unitateetan, txakolina ekoizpenari bideratutako laborantza izanik. Azkenengo honetan, hedadura gutxi izan arren, paisaiaren adierazletzat ezartzen da, unitatea izen berberaz hartzen duen mendiaren hegalean zabaltzen delarik. Bestalde, badaude bestelako irizpideak “Andatza” paisaia unitatea, ondoko lurraldeaz desberdintzen dutenak. Hala nola, San-Pedro Santiago erreka, haranean Andatza eta Santio-Erreka auzoak eta periferian poligono industrialak aurkitzea.

Bestalde, AF-laren barnealdeko unitateei dagokionez, hauetan, nekazal ustiapenak landazabal atlantikoko paisaia sinplifikatu dutelarik. Bertan, abeltzaintza eta basogintza nagusitzen da, baso landaketa eta uzta belardien mosaikoa nagusituz. Honek, “Beizama Haranak eta Mendiak” eta “Ernioko mendigunean” aurkitzen direlarik, hauen erliebea (21. Irudia) bi unitate desberdinetan banatzea eragin du.

**21. Irudia: “Beizama Haranak eta Mendiak” eta “Ernioko mendigunean” paisaia unitateen arteko muga erliebe baxuenean (zuriz) ageri da.**



*Iturria: Neure egintza eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Hala ere, badaude elementu zehatzak paisaia unitateen hauen arteko bereizgarritzat ageri direnak:

- “Beizama Haranak eta Mendiak”:

Beizama eta Nuarbe nukleoak eta landa-paisaiaren elementuak nagusitzea.

- “Ernioko mendigunean”:

Errezil eta Aizarna haranen paisaia antropikoa, Aizarna arro itxia eta Santa-Engratzi ermitaz nagusia izanik.

Beste alde batetik, bestelako paisaia unitate hiritartuak aurkitu ditzakegu ere. Hauek haranetan biltzen diren hiriguneak, industrialdeak eta landa paisaia barneratzen dituzte, “Urola behea”



eta “Azpeitia-Azkoitiako arroa”. Hauek, Urola ibaiaren harana bi eremuetan banantzen dutelarik (22. Irudia), lehenengoan herrigune sakabanatuen presentzia dagoenez eta bigarrenetan hirigune bilduak, hiri-paisaia, barneratzen dituelako bereiztuak izan dira. Hala eta guztiz ere, badaude bestelako ezaugarri bereizgarriak:


- “Urola behea”:

Zestoa eta Aizarnazabal arteko poligono industrialak, Zestoa bainuetxea, kareharrizko harrobiak, baso landaketak eta landa-paisaia belardiak eta larreak nagusitzen dira.

- “Azpeitia-Azkoitiako arroa”:

Azkoitia eta Azpeitia hiriguneak, Izarraitz iparraldeko hondo eszenikoa, hirigunea unitatearen azalera gehiena hartzen duela eta *Pinus radiata* baso landaketak.

## 22. Irudia: “Urola behea” eta “Azpeitia-Azkoitiako arroa” paisaia unitateak



Iturria: Neure egintza eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

Bestalde, lurraldean aurkitzen diren mendigunean individualizatuak ageri dira. “Pagoeta”, “Izarraitz” eta “Irukurutzeta eta Zaramiño mendilerroak”. Unitateak ezartzeko nagusi den irizpidea erliebea dugu, bata, Pagoeta Parke Naturala eta bestea Izarraitz mendigunea barneratzen dutelarik bereiztuak izan dira. Hauek nahiz eta ondoko lurraldeekin lur-erabilpenak partekatu, bananduak izan dira. Baita, biak landazabal atlantikoko paisaia (baserriak eta herrizkak) eta hiriguneak ez duelako garrantzirik bereiztuak izan dira, ere bai. Gainera, “Azkoitia-Azpeitia” paisaia unitatea bien arteko banatzailetzat ageri da, bertan, aurrean esan dugun bezala, hirigunea eta industria nagusitzen delako.

Mendiguneei dagozkien unitateak, hurrengo ezaugarri dituzte bereizgarri:

- “Pagoeta”:

Landa jardueren elementu propioak (errotak, burdinolak), landaketak eta naturalak unitatearen erdia hartzen dutela.

- “Izarraitz”:

Txaloga isurialdean aurkitzen diren pago eta hariztiak, hegalean larre, belardi eta baserrien presentziak eta baso- hedadura handia (*Pinus radiata* landaketak nagusitu egiten dira, Laritz eta zedroak aniztasun paisajistikoa eskaintzen dute. Baita, mendigunearen itzaletan pagoak eta hariztiak aurkitzen dira).

- “Irukurutzeta eta Zaramiño mendilerroak”:

Urola ibaia, GR-631, Zaramiño hegaletan eta Aizpurutxo haran hondoan herrixkak eta nukleo txikiak, unitatearen gehiena baso landaketak izatea eta laborantza lurak oso gutxi izatea.

Bukatzeko, aipatu behar da, paisaia unitate hauen funtsezko oinarria erliebea izan dela (4. Taula). Hauen mugaketa erliebearen egituraz, altueraz, malda eta orientabideaz baldintzaturik ageri dira. Mendigunea, haran sakonak, haran zabalak eta kostaldea desberdintzen direlarik. Unitate bakoitza, lur-erabilera (baso-ustiapenak, landatarra edo hiritartua) eta lur-estalduren arabera bereiztuak izan dira.

**4. Taula: Zarautz-Azpeitia Arlo Funtzionalaren paisaia unitateen sailkapena erliebearekiko.**

<b>Paisaia unitatea</b>	<b>Erliebea</b>
Urolako kostako itsasertza	Kostaldea
Oriako kosta	Kostaldea
Urola Barrena	Harana
Pagoeta	Mendigunea
Andatza	Mendigunea
Izarraitz	Mendigunea
Azkoitia-Azpeitiako arroa	Harana
Ernio mendigunea	Mendigunea
Irukurutzeta eta Zaramiño mendilerroak	Irukurutzeta harana eta Zaramiño mendigunea
Beizama Haranak eta Mendiak	Haranak eta mendiak

*Iturria: neure egintza*

Lurraldean zehaztasun maila handiz identifikatutako “*egungo paisaiak*”, lur-erabilera eta lur-estaldura mosaikoarekin lotura zuzena dutenak (landazabala atlantikoa: baso eta abeltzaintza, landazabal atlantikoa: mahastiak, baso paisaia, hiri nukleoa, paisaia periurbanoa, landa nukleoa eta azpiegitura paisaia) lurraldean sakabanaturik agertzen direnez gero, paisaia unitateak ezaugarritzeko erabiliak izan direla. Hau da, lur-erabilera eta lur-estaldura (lur-erabilera bakoitzaren mosaiko berezia) orokorraren arabera eta barneratzen dituzten elementu puntualen (azpiegiturak, eraikinak eta ibaiak) arabera gauzatu da. Unitateen mugak, ibaiak, erliebearen uren banalerroak, lur-estalduren presentzia eta kasu batzuetan (kostaldea eta hiri-inguruak), dinamiken arabera gauzatuak izan dira.


### 4.2.3 Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Katalogoa

Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa (Eusko Jaurlaritzaren, 2012c), 2012. urtean, Madrilgo “Melissa Consultoría e Ingeniería Ambiental, SL” enpresaren laguntza teknikoaren eskutik egina izan zen. Paisaia Katalogo honek bi etapa nagusi biltzen ditu. Lehenengo etapa, “Identifikazioa eta ezaugarriketa. Ebaluazioa” paisaiaren identifikazioan, ezaugarriketan eta ebaluazioan datza. Zeinak, paisaia unitateen identifikazioa eta mugaketa, eta hauen ebaluazioa biltzen du. Bigarren etapa, “Helburuak” dugu, Bertan, PKH, irizpideak eta adierazleak ezartzen direlarik.

#### 4.2.3.1 Lehenengo etapari lotutako memoria

Lehenengo etapa, aldi berean, bi atal nagusi barneratzen ditu (23. Irudia). Lehenengoa, “Paisaiaren identifikazioa eta ezaugarriketa”, paisaia unitateen ezarpenarekin bukatzen dena. Bigarrena, “Ebaluaketa”, paisaia unitate bakoitzaren banakako ebaluaketan datza. Etapa honetan, paisaia unitateak ezartzeko ikertuak izan diren aldagaiak ebaluatzen dira.

23. Irudia: Arabako Errioxako lehenengo etaparen prozedura




Iturria: neure egintza

#### 4.2.3.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura

Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa (Eusko Jaurlaritza, 2012c), paisaia unitateen prozedura lehenengo etaparen lehenengo atalean, “Paisaiaren identifikazioa eta ezaugarriketa”, garatzen da. Metodo honek, aldi berean, hiru zati nagusietan banandua ageri den prozesua biltzen du (24. Irudia)

24. Irudia: Paisaia unitateak zehazteko prozedura eta ikertutako osagaiak



Iturria: neure egintza

a) Paisaia oinarriaren eta pertzepzioaren lehen mailako elementuen azterketa:

Oinarrizko elementuen artean, lehenik eta behin, inguru fisikoaren egituraren formaren bideratutako ikerketa dugu. Horretarako, erliebearen formak, maldak eta esposizioa ikertu dute, AF-ren unitate morfo-estruturalak zehaztuz. Bigarrenik, lurzorua egitura eta erabilerak ikertuak izan dira. Horretarako, landaretza, lur-erabilpenak, hauen banaketa eta lursail-ehunaren ikerketaz baliatu dira, lurraldearen testura-unitateak zehazteko. Azkenik, paisaiaren dimentsio historikoa ikertu dute. Horretarako, lurraldean ageri diren hiri-ereduak (nukleoen forma eta dimentsioa), lursailen eta jabetza egitura eta eraikuntzen tipologia arretaz eta zehaztasunez ikertuak izan dira.

Paisaiaren oinarrizko elementuez gain, paisaiaren elementu osagarriak eta paisaian txertatzen diren elementu bereziak ikertuak izan dira. Elementu osagarriak, pertzepzioaren elementu osagarriak ditugu. Ikertutako elementuak koloreak, klima eta meteorokoak, basa animaliak behatzeko aukera, soinuak eta zaratak izanez.

Elementu bereziak, elementu fisiko puntualak eta azalera txikikoak ditugu. Alde batetik, paisaian txertatzen diren elementu bisualak ditugu, egitura (ur-ibilguak), testura (elementu hidrikoak, zuhaitzak eta meategiak) eta elementu antropiko bereziak (aztarnategiak, ondare arkeologikoa, historikoa eta kulturala). Bestalde, lurraldean inpaktu bisuala sortarazten duten elementu bereziak ditugu. Hauek, orokorrean, jarduera ekonomikoen azpiegitura zehatzak (antenak, zentral-hidroelektrikoa, zabortegia eta goi-tentsioko dorrea ditugu). Baita, elementu puntual hauen itsukeriak (pabilioi eremuak, ureztatzeko urmaelak) identifikatu dituzte, ere. Bestalde, identifikatutako degradazio bidean dauden prozesuak hurrengoak dira: higadurarekiko eremu ahula eta ur-bilketak. Azken hauek elementu berezi hauek pertzepzioari dagokionez oso esanguratsutzat nabarmentzen direlarik.

Azkenik, aurretiazko elementu hauen pertzepziotatik ondorioztatzen diren paisaia jasotzaileak (nekazariak, txangozaleak, ehiztariak, turistak, bidaiariak eta abar) eta leku aipagarrienak (herritarrek eta bisten jasotzaileek edo igorleek maiz bisitatzen dituzten puntuak, lineak eta eremuak) identifikatu dituzte.

b) Diagnostikoa

Bigarren fasean, lehenik eta behin, aurrean aztertutako irizpideen eta osagaien interpretazioa gauzatu da, Paisaia-oinarria zehazten duten unitateak emaitzat izanez. Erabilitako prozedura, aurreko fasean aipaturiko hiru elementu nagusien mapak (egitura-morfologikoa, testura eta giza-jatorrizkoak) gainjartzean edo elementu horietako bati lehentasuna ematea izan dela

azaltzen da. Oinarritzko elementuak unitateak zehazteko funtsezkoak izango dira eta gainontzekoak (osagarriak eta bereziak) paisaia unitate hauek bereizteko eta ñabartzeko izan dira. Kontuan hartu behar da, paisaia-oinarria zehazten duten unitateak, lurraldeak islatzen duen kanpo-irudi objektiboari erreferentzia baino ez dutela egiten. Bestalde, unitate hauek paisaia unitateak mugatzeko orduan funtsezkoak izango direla aipatzen da.

Identifikatutako unitateak esparru paisajistiko desberdinetan multzokatzen dira, lur-erabilera, elementu antropikoen presentziaz eta erliebeaz baldintzatua, zehaztasun handiko bereizketa egiten da. Horrela, 4 arlo paisajistikoetan (5. Taula) banantzen diren 15 unitate eta 24 azpiunitate identifikatu dira. Emaitzazko kartografian, “*Paisaia-oinarriaren unitateak*” mapan (7. Eranskina) islatuak egonez eta memorian banan-banan deskribatuak izan dira.

**5. Taula: Paisaia-oinarria zehazten duten unitateen esparru paisajistikoa eta irizpide nagusienak**

<b>Esparru paisajistikoa</b>	<b>Irizpide nagusiena</b>
Naturala	Ez dago elementu antropikorik ia batere
Ikuspen-eremu autodefinitua	Puntu guztietatik ikusten dira besteak
Nekazaritza	Laboreak zehazten du unitatearen nolakotasunak
Hiritarra-industriala	Hiri nahiz industria-ehuna du nagusi

*Iturria: neure egintza*

Ondoren, partaidetza publikoaren balorazioa eta balorazio teknikoaz baliatuz, zehaztutako unitate bakoitzekiko balorazio estetikoa gauzatu dute. Aldi berean, AF-ren ikuskapen analisia gauzatu. Analisi honen helburua lurraldea zenbait leku adierazgarritatik zein mailatan antzeman daitekeen aztertzea eta ikuspen-aukera gehien ematen dituzten lekuak identifikatzea izanik. Horretarako, aurreko fasean identifikatutako oinarritzko elementu hauen pertzepziotatik ondorioztatzen diren paisaia jasotzaile eta leku aipagarrienaz baliatu dira. Lurraldearen agerikotasuna, ikuspegi aukera lekuak eta mugarren eta degradazioen agerikotasuna ikertu dute.

Hauskortasuna ikertzeko, lehenik eta behin, hauskortasun bisuala zehaztu dute. Horretarako, aurrean, paisaiaren balioa aztertzerakoan, zehaztutako Paisaia-oinarriaren kalitatea eta ikuskapen analisisian gauzatutako lurraren agerikotasun bisualean oinarritu dira. Bestalde, paisaiaren hauskortasuna ikertu dute. Horretarako, lurraldearen hauskortasun bisuala eta xurgapen-gaitasunean oinarritu egin dira. Xurgapen-gaitasuna, erliebearen orientazioan eta landarediaren dentsitatean eta tamainan jatorria duelarik.

Bukatzeko, paisaiaren bilakaera gaur egun arte ikertu dute. Erliebea, landaredian, ingurumen-alderdian, maila antropikoan landazabalean eta mahastietan arreta izanez. Azkenik, paisaiaren



egungo dinamika aztertu dute, DPSIR ereduaren arabera adieraziz. Non, eragileak, presioak, paisaiaren eta biztanleen gaineko ondorioak eta eman daitekeen erantzuna adierazi da.

c) Paisaia unitateen mugaketa:


Azkenik, paisaia unitateen identifikazioa eta kartografia burutua izan da. 15 paisaia unitate zehazten dira. Hauek, bestelako paisaia tipologietan sailkatzen direlarik (6. Taula eta 25. Irudia). Paisaia-unitateen zehaztapenetan, aurreko informazioaz baliatzeaz gain, inkesten emaitzek eta eragileen parte-hartzearen eragina azpimarratzen da.

**6. Taula: Arabako Errioxako paisaia unitateen tipologia eta izendapena**

<b>Tipologia</b>	<b>Paisaia Unitatea</b>
Natura nagusi duen paisaia	Kantabria eta Toloño mendilerroa
	Labrazako mendiak
Nekazaritza izaerako paisaia	Mendilerro azpiko zereal estepa
	Arabako Errioxako mahastiak
	San Gines, Uneba, Galijo eta Binasperi erreka multzoa
	Lantziegoko mahasti eta olibadi sasi-landazabala
	Ebroko terrazak eta ezpondak
	Conchaval, Buempajera eta Labraza erreketako haran multzoa
Landa-izaerako paisaia	Gatzaga Buradongo 'lapikoa' (mendiarte)
Ibaia nagusi duen paisaia	Ebro ibaia eta haren ibaiertz multzoa
Hiri-eta industria-paisaiaren izaera	Guardiako herrigunea eta herri ingurua
	Bastidako herrigunea eta herri ingurua
	Eltziegoko herrigunea eta herri ingurua
	Oiongo herrigunea eta herri ingurua
	Casablancako eta El Carrascaleko industria Korridorea

*Iturria: neure egintza*

25. Irudia: Arabako Errioxako Arlo Funtzionalerako zehaztutako paisaia unitateak



Iturria: Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

4.2.3.3 Paisaia unitateen alderaketa

Paisaia unitateak, lehenengo etapari lotutako memorian plazaratzeaz gain, unitate bakoitzaren fitxa plazaratu dute. Non, bakoitzaren morfo-estruktura, testura, elementu osagarriak, dimentsio historiko-antropikoa eta elementu bereziak barneratzen dira. Paisaia unitateen azterketa konparatiboa gauzatzeko, aurretiaz aipatutako informazioaz baliatzeaz gain, lehenengo etapari, lotutako informazio kartografikoaz baliatzea beharrezkoa da.

Lehenik, AF-ren herriguneen eta industrialdeei dagokien, populazio tamaina handiko nukleoak, balio handiko eta hiri-inguru degradatua jasotzen duten lau herriguneak (Guardia, Bastida, Eltziego eta Oion) eta hedadura handiena duten industrialdeei (Casablancako eta El Carrascaleko industria Korridorea) lotutako unitateak ditugu. Hauek, Hiri-eta industria-

paisaiaren izaera duen esparru paisajistikoan aurkitzen direlarik, lurraldean ageri diren orban desberdinak dira (7. Taula).


**7. Taula: Hiri-eta industria-paisaia esparru paisajistikoaren paisaia unitateak**

<b>Paisaia unitateak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guardiako herrigunea eta herri ingurua</li> <li>- Bastidako herrigunea eta herri ingurua</li> <li>- Eltziegoko herrigunea eta herri ingurua</li> <li>- Oiongo herrigunea eta herri ingurua</li> <li>- Casablancako eta El Carrascaleko industria Korridorea</li> </ul>

*Iturria: neure egintza*

Herrigune eta herri inguruei buruz aritzen diren paisaia unitateak desberdintzeko, herrigune eta herri inguru paisaia unitateen desberdinketak herrigune bakoitzaren barnean aurkitzen den ondare eraikia irizpidea izan da. Oiongo herrigunea eta herri inguruari dagokionez, paisaia unitate honek herrialdeaz gain, hiri-periferian aurkitzen den industrialdea barneratzen du. Bestalde, “Casablancako eta Carrascaleko industria korridorea” (15. unitatea) dugu, A-124 errepidearen inguruan industria-korridore bati erreferentzia egiten dio, bertako nabe-industrialak paisaia unitatea sortzen dutelarik (26. Irudia ).

**26. Irudia: “Casablancako eta El Carrascaleko industria Korridorea” paisaia unitatea (gorriz)**



*Iturria: Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa eta neure egintza*

Bestalde, Gatzaga Buradongo herrigunea sailkatua izan dela ere, honek AF-ren ipar-mendebaldean aurkitzen den mendiartean isolatuta agertzen delarik, arro bisual txiki baten barnean aurkitzen da. Horrela, “Landa-paisaia” esparruari dagokion “Gatzaga Buradongo lapikoa” (9. unitatea) deituriko paisaia unitatea sortu dute. Gainera, ondoko lurraldearekin lur-erabilpenak bereizgarri ditu. Bertan, Gatzaga Buradongo labore-mosaikoen testura nagusitzen delarik.

Baita, Ebro ibaiaren inguruan ezarri diren bi paisaia unitate ditugu. Hauek unitate morfoestrutural berdinean “*Ebroko-ibai multzoa*” aurkitu arren, desberdinak dira. Bata, Ebro ibaiaren ibaibideari eta erriberari dagokio, “*Ebro ibaia eta ibaiertzen multzoa*” deiturikoa (10. unitatea). Bestea, mugakide izanik, “*Ebroko ezpondetako terrazen multzoa*” (6. unitatea) deiturikoa, ibaiaren jalkitze-plataformari dagokiona. Hauek esparru paisajistiko desberdinetan aurkitzen dira, lehena, “*Ibaia nagusi duen paisaia*” eta bigarrena, “*Nekazaritza izaerako paisaia*”, hauek bereizteko irizpideak hurrengoak izan dira:

- “*Ebro ibaia eta ibaiertzen multzoa*” (10. Unitatea):

Ebro ibaiaren meandro nabarmenak eta horiei loturik makaldiak eta lertxundiak, Ebroko erriberako geometria linealeko testura eta elementu osagarriak (haizearen soinua, ibaiertzeko zuhaitzen hostotza mugitzen, uraren soinua, fauna, urtaroen koloreen ikusgarritasuna eta behe-lainoak). Baita, Hesi Goi Errioxaren eta Arabako Errioxaren arteko hesi naturala izateak eta nabigagarria zen garaietan komunikazio-bidea izateak.

- “*Ebroko ezpondetako terrazen multzoa*” (6. unitatea):


Ebro ibaiaren terrazak, gaur egun gizakiak erabiltzen dituela mahastiak landatzeko, hots, mahastiko matrize-testura barneratzen duela eta elementu osagarriak (mahastien urtarorearen arabeko kolorea eta behe-lainoak, baita, herrigune txikiak nagusi diren hiri-egitura, garrantzi handiko zaindariaren jaiak dituzten herriak barneratzea eta agregakinen erauzketak barneratzea.

Gainera, lurralde eremu honetan, aurrean aipatutako paisaia unitate bat gainezarrita azaltzen da, “*Casablancako eta Carrascaleko industria korridorea*” (15. unitatea) alegia. Lurralde esparru zehatz horretan, lehen esan dugun bezala, errepideak eta erabilpen industrialak aurkitzen direlarik.

Bestalde, AF-ean aurkitzen diren bestelako errekei lotutako paisaia unitatea dugu, “*Sangines, Uneba, Galijjo eta Binasperi Erreka multzoa gunea*” (4. unitatea) eta “*Conchaval, Buempajera eta Labraza erreketako haran multzoa*” (7. unitatea). Lehena, izen berbera hartzen duten sakan eta erreken inguruan ezarri da (27. Irudia). Esparru hau ondoko lurraldearekin biltzen dituen ezaugarri bereizgarriak hurrengoak izanez: morfologiaren aldetik, barneratzen dituen ibarrak eta urtarorearen arabera berdetik horira aldatzen diren ibar-basoak, hegietan, mahastiak eta olibadiak tartekatzen dira, kolore kontrasteak. Gainera, unitate honetatik zabaltzen diren adarrak, goi-ibarrei dagozkionak, “*Mendilerro azpiko zereal estepa*” (2. unitatea) bi zatitan bananduko du. Erreketan eta hauen ertzetan mahastien lur-erabilpena zehazki gauzatzen ez delako.



27. Irudia: “Sangines, Uneba, Galijjo eta Binasperi Erreka multzoa gunea” paisaia unitatea



Iturria: Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa eta neure egintza

“Conchaval, Buempajera eta Labraza erreketako haran multzoa” (7. unitatea) izena ematen dioten errekek zulatutako sakanak osatuko dute. Bertan, errekek eta horiekin batera dauden ibar-basoak biltzen direlarik. Unitate hau, “Nekazaritza izaerako paisaia” esparru paisajistikoan aurkitzen da. Esparru honetan, bestelako unitateak jasotzen direlarik, “Mendilerro azpiko zereal estepa”, “Arabako Errioxako mahastiak”, “Lantziegoko mahasti eta olibadi sasi-landazabala”. Hauen ezaugarri bereizgarriak hurrengoak izanez:

- “Mendilerro azpiko zereal estepa”: (2. unitatea)

Kantabriako mendilerroaren pean hedatzen den unitatea izateaz gain, zereala nagusi duena da. Hots, lehorreko zereal- testura geometrikoa (zuhaizti txikiekin) barneratzen du. Gainera, monotonia kromatikoa, historiaurreko kokaleku ugari, nabe sakabanatuak eta natura izaerako elementu berezi ugari barneratzen ditu.

- “Arabako Errioxako mahastiak” (3. unitatea):

Eskualdea osatzen duten herri guztietako kultura eta izena mahastiekin elkartua egoteak. Baita, mahasti-matrizearen kolore kontrastea, fauna behatzeko eremuak eta elementu bereziak (urmaelak, baso mediterraneoak, mahastietako etxolak, haitz-dolareak, Done Jakueren Bidea eta ureztatze idoiak)

- “Lantziegoko mahasti eta olibadi sasi-landazabala” (5. unitatea):


Mikro erliebe konplexua barneratzeaz gain, mahastiaz gain olibadiak daudela. Hots, mahastiko eta olibadiko geometria kurba eta mosaikoa. Baita, mahastien eta olibadien kolore-contrasteak eta elementu antropikoak eta negatiboak (erditze tokiak eta neurri handiko ureztatze idoiak).

Aipatzekoa da, azken biak, bizkar, pentoka eta mahastiez osaturiko sasi-landazabala morfo-egitura eta herrigune txikiak nagusi diren hiri-egitura barneratzen dutela. Paisaia unitateen mugak ezartzerako orduan, lur-sailen hedadura, errepideak eta udal-barrutien mugak



funtsezkoak izan dira. Adibidez, herrien arteko muga administratiboak eta errepideak “Arabako Errioxako mahastiak” (3. unitatea) eta “Lantziegoko mahasti eta olibadi sasi-landazabala” (5. unitatea) unitateen arteko muga zehazteko erabiliak izan dira (28. Irudia).

**28. Irudia: “Arabako Errioxako mahastiak” (3. unitatea) eta “Lantziegoko mahasti eta olibadi sasi-landazabala” (5. unitatea) unitateen arteko muga, Lantziego, Iekora eta Oion udal-mugekin bat egiten dute.**



*Iturria: Arabako Errioxako (Guardia) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa eta neure egintza*

Azkenik, “*Natura nagusi duen paisaia*” esparru paisajistikoaren barnean aurkitzen diren bi paisaia unitateak ditugu, “*Kantabria eta Toloño mendilerroa*” (1. unitatea) eta “*Labrazako mendiak*” (8. unitatea), hain zuzen ere. Lehenengoari dagokionez, erliebea guztiz erabakigarria izan da unitatea zehazteko. Bertan, mendilerro azpi-atlantikoko unitate geomorfologikoaren barnean aurkitzen da, harkaitzak eta zuhaitz hostozabalagoak barneratzen dituelarik paisaia unitatea zehaztu da. Hala ere, paisaia unitate honen mugak, unitatearen hegoaldean zabaltzen diren laborantza lur-sailen hedadura perimetroa zehaztu dute.

“*Labrazako mendiak*” (8. unitatea) unitateari dagokionez, Valdevarón errekaaren arroa eta sakanak barneratzen ditu, basoa, larreak eta sastrakak honen ezaugarri nagusia izanik eta Dueñaseko pinudi berezia barneratzen duelarik (sastraka nagusi duen testura, eta neurri

txikiagoan pinudia). Baita, elementu osagarri ugariak, hala nola, kolore berdeak eta arreak, kontrastean, isiltasuna, antena ugari eta errotorearen mugimenduak eta hegalen zaratak eta infrasoinuak fauna uxatzen dutela.

Bukatzeko aipatu behar da, paisaia unitateen azterketa eta konparaketa gauzatu ondoren, paisaia unitate hauek bereziki, erliebean, lur-erabilpenetan, eta elementu hidrikoetan oinarritu direla. Baita, elementu historiko-kulturaletan presentzian. Elementu osagarriak unitate hauen bereizketa izanez. Gainera, muga administratiboak, errepideak eta lurzoruaren sailkapena funtsezko papera izan dute. Berez, prozedura plazaratzen zen bezala, paisaia unitateak *Paisaia oinarria zehazten duten unitateekin* antzekotasun nabarmenak dituzte.

Bestalde, paisaia unitateen prozesutik ondorioztatutako emaitza kartografiko guztian zehar, errepideak, ibaiak eta udal-barrutiaren mugak agertu egin direla. Bestalde, lurzoruaren sailkapena nabaria izan da emaitza kartografiko hauetan, berez, paisaiaren osagaien azterketa guztietatik ondorioztatutako kartografia oro lurzoru urbanizaezinean emaitzak plazaratzen dituzte, aldiz, egoitzarako lurzorua eta ekonomia-jardueretarako lurzorua (eta hauei lotutako eraikinen indibidualizazioa) beti mapetan gainjarritako orbantzat aurkeztuak izan dira. Paisaia unitateen izaera, alde batetik, hiriguneei eta industrialdeei lotutako lurzorua eta bestetik lurzoru- ez urbanizaezinari dagokion lurraldea sailkapena barneratuz. Hots, paisaia unitate hauek paisaiaren ikerketa eta irizpide zehatz eta lurralde eskala handian gauzatutako metodologiaren isla ditugu.

#### ***4.2.4 Donostialdea-Bidasoa behea Paisaiaren Katalogoa***

*Donostialdea-Bidasoa Behea Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa* (Eusko Jaurlaritza, 2017c), Bizkaiako “*Basoinsa S.L*” eta Zaragozako “*Sigmattec Medio Ambiente S.L*” aholkularitza teknikoarekin gauzatu izan zen. Katalogo honek bi etapa nagusi biltzen ditu. Lehenengo etapa, “*Identifikazioa eta ezaugarriketa. Ebaluaketa*” paisaiaren identifikazioan, ezaugarriketan eta ebaluazioan datza, zeinak, paisaia unitateen identifikazioa, mugaketa eta baloraketarekin bukatzen da. Bigarren etapa, “*Paisaia kalitate-helburuak*”, paisaia unitate bakoitzekiko, PKH, neurriak eta adierazleak plazaratzen dira.

##### ***4.2.4.1 Lehenengo etapari lotutako memoria***

Lehenengo etapa, aldi berean, hiru atal nagusi barneratzen ditu. Lehenengo biak, paisaiaren identifikaziora eta ezaugarriketara bideratuta daude, azkena, paisaiaren ebaluaketara.

a) Paisaiaren klabeak:

Lurraldearen elementu, osagaien eta paisaiaren deskribatzaileen identifikazioa eta ikerketa burutu dute. Atal honen helburuak, AF-ren paisaia identifikatzeko eta ezaugarritzeko osagaiak eskuratu eta paisaia unitateen identifikazioa burutzea da.

b) Paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren ikerketa:

Atal honetan, bi helburu nagusi dituela plazaratzen da. Alde batetik, egungo paisaian eragina izan duten prozesu dinamikoen diagnostikatzea, paisaiaren etorkizuna aurreikusteko. Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolaketari buruzko proposamenak gauzatzeko informazioa eskuratuz. Bestalde, paisaia unitateen mugak, denboran zehar, izandako egonkortasunari buruzko informazioa emateaz gain, hauen zehaztapenera bideratua.

Horretarako, bestelako analisiak barneratzen ditu: egungo paisaiaren prozesuen ikerketa, azterketarako lurraldearen banaketa sektoriala gauzatzen dutelarik eta paisaiaren prospektiba.


c) Paisaiaren ebaluaketa. Balore eta arriskuaren identifikazioa:

Atal honetan, paisaiaren balore eta arriskuak ikertu dituzte, zehazki, paisaiaren baliabide naturalen ikerketa. Paisaiaren baloreen identifikazioa paisaia unitateen ezaugarriketa burutzeko oinarritzkoa ezartzen dute. PKH ezartzeko eta babes, hobekuntza eta antolaketa paisajistikoaren proposamenak burutzeko funtsezkoa izanik.

#### *4.2.4.2 Paisaia unitateak zehazteko prozedura*

Donostialdea-Bidasoa Behea paisaia unitateak identifikatzeko prozedurak, “*Paisaiaren klabeak*”, atalean garatzen da. Prozedurak honek hiru pausu nagusi barneratzen ditu (29. Irudia). Lehena, esparru paisajistiko homogeenak identifikatzean datza. Bigarrena, esparru paisajistiko bakoitzaren barnean paisaia unitateen bereizmena du helburutzat. Azkenik, paisaia unitateen zehaztapena gauzatuz.

## 29. Irudia: Paisaia unitateak zehazteko prozedura eta ikertutako osagaiak



Iturria: neure egintza

### a) Esparru paisajistikoen identifikazioa:

Fase honetan, lurraldean hainbat faktoreen eraginez homogeneoak hauteman ditzakegun eremuak zehazten dira, bereziki, erliebe, landaretza eta lur-erabilpen faktoreen konbinaziotik ondorioztaturiko kolore eta forma tesela homogeneoak identifikatu egiten dira.

Esparru paisajistikoen identifikaziora eremu-morfo estrukturalak eta forma eta koloreen analisia ditugu. Eremu-morfo estrukturalari dagokionez, bereizteko erliebea ikertu behar izan dute. Desberdintutako eremuak, berezko erliebea biltzeaz gain, geomorfologia eta geologia berdintsuaz ezaugarritzen dira. Hauek, baldintza klimatiko eta lurzoru ezaugarri zehatz batzuetara lotuta agertzen direlarik.

Paisaiaren forma, testura eta koloreen analisirako, lurrazalaren ikerketa funtsezkoa izan da. Horretarako, alde batetik, landatutako edo izaera naturalezko landaretza paisaiaren funtsezko osagaitzat aztertzen da. Bestalde, dinamika sozioekonomikoekin erlazioaturiko lur-erabilpen artifizialen ikerketa burutu egiten da. Horretarako erabilitako metodoak, bi bide paralelo jarraitu izan ditu. Alde batetik, mapa berri horren oinarria izango diren lur-estalduren analisia burutu

da. Beste alde batetik, paisaiaren ezaugarri bisualari buruzko (forma, testura eta kolorea) analisisa burutu egin da, landaretza eta lur-erabilpenen informazioa emaitzen arabera sailkatuz. Hots, paisaia motaren arabeko lur-erabilpenen kategoriak ezartzen dira. Kategoriak ezartzeko irizpide nagusia, kategoria bakoitzak biltzen duen homogeneitate bisuala izanez.

Kategorien ezarpena, paisaia-patroien errepikapenaren analisiaren bidez gauzatu izan da. Patroi-errepikapenak, landaretza eraketen, ur-laminen edo eraldaketa antropikoen presentzian eta kokapenetik ondorio dira. Analsiak forma, testura eta kolore faktoreak aintzakotzat hartzen ditu. Hots, analsiak, irizpide paisajistikoak jarraitzen duten, landaretza eta lur erabilpenen kategoria esanguratsuak ezartzea ahalbidetu du.

b) Paisaia unitateen bereizmena:

Aurrean identifikatutako esparru paisajistikoetan, era ezberdinean hauteman daitezkeen lurralde eremuak barneratzen dituzten ala ez ezagutzean datza. Horretarako, ikerketa-eskala handiz, hautematea baldintzatzen duten osagai eta elementuen, ikuste ezaugarrien edo aspektu historiko eta nortasuneko presentziaren ondorioz paisaia unitateak bereiztu egiten dira. Paisaia unitateen mugak zehazteko irizpideak eraldaketa antropikoak, harreman bisualak eta osagai historikoa eta identitarioa izanez (8. Taula).

**8. Taula: Paisaia unitateen bereizmena gauzatzeko jorratutako irizpideak eta paisaia osagaiak**

<i>Irizpideak</i>	<b>Eraldaketa antropikoak</b>	<b>Harreman bisualak</b>	<b>Osagai historikoa eta identitarioa</b>
<i>Osagaiak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hirigune egituraren forma</li> <li>-Herriguneen forma eta tamaina</li> <li>-Eraikuntza landatarrak</li> <li>-Garapen industrialak.</li> <li>-Azpiegitura motak eta banaketa</li> <li>-Partzelazio eta jabetza egitura</li> <li>-Ustiapen adierazgarriak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Interikuspenak</li> <li>-Ikuspen unitateak.</li> <li>-Ikuste arroak</li> <li>obserbaziorako eta</li> <li>kontenplaziorako puntu</li> <li>garrantzitsuenetatik.</li> <li>-Kalitatea hazten eta</li> <li>gutxiagotzen duten</li> <li>paisaiaren osagai eta</li> <li>elementu garrantzitsuen</li> <li>ikuste arroak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskara</li> <li>-Paisaia historikoak</li> <li>-Itsasoarekiko erlazioa.</li> <li>-Turismoa</li> <li>-Jatorri industrialak.</li> <li>-Paisaia gastronomikoa.</li> <li>-Paisaia mitologikoa</li> <li>-Paisaiaren adierazpen</li> <li>artistikoa</li> <li>-Soinuak eta usainak</li> </ul>

*Iturria: neure egintza*

Eraldaketa antropikoei dagokionez, paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren ondorioa diren eta paisaiaren hautemate orokorra eta unitateen mugak baldintzatuko duten elementu ikertuak izan dira. Bestalde, lurraldearen ikuste harremanek, ikuspegi antropikotik, paisaia begiesteko



orduan, ezberdintasun paisajistikoak sortarazten badituzte ezagutzeko, hurrengo ikuskapen analisiak burutu egin dituzte. Azkenik, paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren ondorio diren paisaia ukaezinak identifikatu eta ikertu dira. Euskaraz gain, dimentsio ukaezinak toki zehatz batetara lotu daitezkeen paisaiak identifikatu dituzte. Hauek, paisaia unitateak batak besteetatik bereizi ditzaketen mugak identifikatzeko, bereziki, erabiliak izan direlarik.

a) Paisaia unitateen zehaztapena

Azkenik, Donostialdea-Bidasoa Behea Eremu Funtzionalean 29 paisaia unitate zehaztu dira. Paisaia unitate hauek, bestelako sailkapen baten barnean aurkitzen dira, eremu paisajistiko orokor baten barnean. 8 eremu paisajistiko identifikatu dituzte (9. Taula).

**9. Taula: Donostialdea paisaia unitateen eremu paisajistikoa eta izendapena**

<b>Eremu Paisajistikoa</b>	<b>Paisaia unitateak</b>
Kostaldeko lerrokatzea	Mendizorrotz mendia (Igeldoko kostaldea)
	Mendizorrotz-bordaxoko mendiak
	Jaizkibel-Ulia mendiak (kostaldea)
	Jaizkibel-Ulia mendiak (barnealdea)
Itsasertzeko badiak eta hiriguneak	Donostiako badia
	Donostiako hiri-inguruko ingurabidea
	Pasaiako badia
	Txingudiko badia
Korridoreak	Oria baxuko korridorea
	Andoain-Urnieta korridorea
	Urumea baxuko korridorea
	Oarsoaldeako korridorea
	Iruneko korridorea eta eremu urbanoa
Bigarren mailako elebazioak	Buruntza-Santa Barbara mendiak
	Goiburuko muinoak
	Santiagomendi-San Marko mendiak
	Urkabe-San Martzialeko mendi eta bailarak
Barnealdeko mendiak	Aiako harriak
	Aiako harriko iparraldeko mendiak
	Añarbeko mendiak
	Urumeako mendiak
	Adarra mendia eta Leitzaran bailara
	Andatza mendia
Mendi-oineko hegalkak eta haranak	Jaizkibeleko mendioina
	Oiartzungo bailara
Itsasbazter-aurreko muinodun erliebeak	Oria eta Urumea arteko espazio periurbanoak
	Urumea eta Oiartzun arteko espazio periurbanoak
Itsasadarrak eta padurak	Oriako itsasadarra
	Bidasoako itsasadarra eta padurak

*Iturria: neure egintza*

Bukatzeke, argitu behar da, edafologia, eskualde bioklimatikoak eta esparru klimatiko bereziak ikertuak izan direla. Baina, zehaztutako lan eskala (1:25.000) dela eta, hauek ez dira erabakigarriak izan esparru paisajistiko homogeenak identifikatzeko ezta paisaia unitateak bereizteko. Bestalde, aipatzekoa da, paisaia unitateak behin betiko izendatzeko, Katalogoak, partaidetza publikoa funtsezkoa izan dela azaltzen du. Unitate hauen izenak, erliebe edota lur-erabilpenetan oinarrituz bestalde, lekuko toponimian funtsatu direla azalduz.

Hauen identifikazioan, Paisaiaren Katalogoak, ikerketa bibliografikoa eta landa-lanaz gain, partaidetza prozesuak burutu egin dutela aipatzen du. Bestalde, paisaia unitateak zedarrizteko ea partaidetza publikorik egon denaren aipamenik ez da agertzen. Bakarrik, aurrean aipaturiko unitateen izendapenean eta mugen balioztatzean egondako partaidetza aipatzen baino ez da.

Paisaia unitateak, “*Paisaiaren klabeak*” etaparen emaitzazko kartografiatzat aurkeztua izan da, lehenengo etaparen, “*Identifikazioa eta ezaugarriketa. Ebaluaketa*”, emaitzazko kartografian aurkitzen delarik. Aipatzekoa da, badirela bi mapa paisaia unitateak biltzen dituztenak, “*Paisaia unitateen (aireko argazkiak)*” eta “*Paisaia unitateak*”. Azkenengo honek, AF-ren mugetatik kanpo hedatzen diren unitateak ondoko lurraldeetara hedatuz sortu egin dituzte (30. Irudia). Bestalde, paisaia unitate bakoitzekiko fitxak plazaratuak izan dira, unitate bakoitzaren identifikazioa, ezaugarriketa eta ebaluaketa biltzen dutenak.




#### 4.2.4.3 Paisaia unitateen alderaketa

Aurrean ikusi dugun bezala, Donostialdeko paisaia unitateak esparru paisajistiko desberdinetan taldekatzen dira. Esparru paisajistiko hauek, erliebean, sare hidrografikoan, lur-erabileretan, ikus esposizioan oinarritutako lurraldearen sailkapenaren emaitza dira.

Lehenik eta behin, elementu hidrikoen inguruan (itsasadarrak eta padurak) zehaztutako unitateak ditugu, hauek “*Itsasadarrak eta padurak*” esparru paisajistikoan barneratzen dira, Bidasoa eta Oria ibaien bokaleak barneratzen dituelarik. Ondoko lurraldeaz bereiztua izan da, aberastasun biologikoa eta nekazaritza erabilerak bertan gauzatzen direlako. Baita, paduraren agerpenagatik bereiztuak izan dira. Bi paisaia unitate aurkitzen ditu, AF-ren ipar-mendebalde eta ekialdeko muturrean aurkitzen direnak. “*Oriako itsasadarra*” (RM.2) berezko padura paisaiako txatalak eta ibar-laborantza lurraldeak biltzen duelarik, ondoko lurraldearekin alderatuz. Bestalde, “*Bidasoako itsasadarra eta padura*” (RM.1) barneratzen duen ur-lamina, padura eta baratzeek osatzen dute berezitasuna.

Bestalde, “*Itsasertzeko badiak eta hiriguneak*” esparru paisajistikoak barneratzen dituen paisaia unitateak ditugu (31. Irudia). Hauek, hiri-ehunari egokitzen dira. Donostia hiriguneari bi paisaia unitate atxikitzen zaizkio. “*Donostiako badia*” (BU.1) eta “*Donostiako hiri-inguruko ingurabidea*” (BU.2). Hauek desberdintzeko irizpidea, lehena, hondartza eta alde zaharra ederra eta bigarrena, langile auzoetako paisaia heterogeneoak, familia-bakarreko urbanizazioak, hornikuntza eta zerbitzu eremu handiak eta azpiegiturak biltzen dituelarik. Azken honen mugakide, “*Pasaiako badia*” (BU.3) paisaia unitatea dugu. Hauen bien arteko muga, udal-barrutia izanez. Hauen bereizketa, “*Pasaiako badia*” paisaia urbano-industrialia eta portuarioa dela izanez. Azkenik, “*Txingudiko badia*” (BU.3) dugu. Honek, Hondarribiak eta Hendaiaiko hiriguneei adosten da, sakonki marinela den paisaiatzat definituz.

### 31. Irudia: “Itsasertzeko badiak eta hiriguneak” esparru paisajistikoak barneratzen dituen paisaia unitateak



Iturria: Donostialdea-Bidasoa behea Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa

Bestalde, “Korridoreak” izeneko esparru paisajistikoaren barnean aurkitzen diren paisaia unitateak ditugu. Hauek, erabilera urbano-industrialak ezaugarri duten ibaien beheko tarteko bailarak (Urumea, Oiartzun eta Bidasoa) eta depresio hondoak (Andoain eta Hernani eta Irun eta Errenteria) dira. Hauek, inguruko lurraldeaz desberdintzen dira, egoitzarako lurzorua eta ekonomia-jarduketarako lurzorua direlako eta beraien artean hurrengo ezaugarri bereizgarriak dituzte:

- “Oria baxuko korridorea” (CO.1):

Lasarte-Oria eta Usurbil herrien inguruan egituratuta, non hiri-zabalkundeak eta hiri-ehunak ia erabat metaturiko jarraipena dute. Itxura heterogeneoko nabe handietako paisaia industrialak biltzen ditu.

- “Andoain-Urnieta korridorea” (CO.2):

Oraindik eraiki gabeko zonalde adierazgarriak biltzen ditu.

- “Urumea baxuko Korridorea” (CO.3):

Herriek eta industriek ia lurrazalaren osotasuna hartzen dute. Landaredia, belardiek eta komunikabideen artean mantentzen diren ortuen arrastoek.

- “Oarsoaldeako korridorea” (CO.4):

Ehun industrialeko egiturek, egitura komertzialek eta plataforma logistikoek zorua ia erabat hartzen dute.



-“*Iruneko korridorea eta eremu urbanoa*” (CO.2):

Itsasotik oso gertu dagoen dentsitate altuko ehun industrial, komertzial eta egoitzetarako bideratua biltzen du.

Beste alde batetik, “*Itsasbazter muinodun erliebeak*” izena jasotzen duen esparru paisajistikoa dugu. Honek, “*Urumea beheko korridorea*” (CO.3), paisaia unitateaz banandua ageri da. Mendebaldean, “*Oria eta Urumea arteko espazio periurbanoak*” (PR.1) eta “*Urumea eta Oiartzun arteko espazio periurbanoak*” (PR.2). Hauek, landatar eta hiritar izaeren arteko trantsizio paisaiak identifikatua izan dira. Bertako lurraldean, izaera artifizialeko elementuekin eta erabilera ezberdinekin nahasturiko belardi eta baso txikien mosaikoa agertzen delarik. Gainera, lehen sektorearekin lotutako funtziorik gabeko eraikinak, etxebizitzaren urbanizazioak eta azpiegiturak barneratzen dituzte. Hala eta guztiz ere, bi paisaia unitate desberdinetan banantzea erabaki da. Hauen bereizgarri, “*Urumea eta Oiartzun arteko espazio periurbanoak*” (PR.2), kasuan, basoz inguraturik egotea eta XIX. mendeko guda karlistetako arrastoa den gotorlekua barneratzea da. Bestalde, “*Oria eta Urumea arteko espazio periurbanoak*” (PR.1) kasuan, izaera landatarreko belardi-matrizeak izanik.

Gauza bera gertatzen da, “*Bigarren mailako goraguneak*” esparru paisajistikoaren barnean aurkitzen diren “*Buruntza eta Santa Barbara mendiak*” (ES.1) eta “*Goiburuko muinoak*” (ES.2) paisaia unitateen artean.

Esparru paisajistiko honi dagokionez, garrantzia gutxiagoko erliebeak, ibai tarte, bailara irekiak, belardi, laborantza atlantiarrak eta baso landaketak biltzen dutelako bereiztua izan dela aipatzen da. Gainera, partzelazio minifundista, aprobetxamenduen mosaikoa, heskai eta hesien presentzia mendi hauen paisaiaren nekazaritza-egitura desberdintzen duten elementuak dira. Esparruaren barnean 4 paisaia unitate desberdinak bereiztu egiten dira, hurrengo bereizketa eginez:

- “*Buruntza eta Santa Barbara mendiak*” (ES.1) (32. Irudia)

Erabilera nagusiak belardi eta basokoak dira, aire zabaleko hainbat meategiek irekitako kareharrizko harkaitzak belardiek bere azaleraren zati garrantzitsua hartzen dute eta prozesu karstiko singularrak.

- “Goiburuko muinoak” (ES.2) (32. Irudia)

Erabilera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza. Baserriak eta baso landaredi txatal erretikuluetan, batez ere, larre eta belardiek biltzen da. Unitatean ortuen presentzia dago, iparraldean sagarrondoak aurkitzen direlarik. Aipatzekoa da, baserriak arren sakabanatuak agertzea unitate honen paisaiaren balioa eta izaera landatarra nagusitzen duela azpimarratzen dela.

- “Santiagomendi-San Marko Mendiak” (ES.3) (32. Irudia)

Honen bereizgarri, belardiak eta sagarrondo laborantzak oihan aldaketekin eta baso atlantiarreko adierazpenaren aldizkatzen dira.

**32. Irudia: “Buruntza eta Santa Barbara mendiak” (ES.1), “Goiburuko muinoak” (ES.2) eta “Santiagomendi-San Marko Mendiak” (ES.3) paisaia unitateak.**



*Iturria: Donostialdea-Bidasoa behea Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

- “Urkabe-San Martzialeko mendi eta bailarak” (ES.4)

Baso erabilera eta nekazaritza-abelazkuntza erabilera arteko trantsizio paisaiaz identifikatua izan da, eraikitako paisaiak unitate honen izaera bereizgarria da, izaera menditsu eta landatarra aipatzen da. Are gehiago, unitate honen barnean bestelako bi azpi-unitate bereizten direla aipatzen dute. Mendebaldean, Gurutze bailaran, Oiartzungo auzoaren inguruko eraikin erresidentzialekin eta baserri sakabanatuak daudelako eta ekialdean, antzinako harrobien inguruan egoitza auzoak kokatzen direlako.

Aipatu behar da, “Santiagomendi-San Marko Mendiak” (ES.3) eta “Urkabe-San Martzialeko mendi eta bailarak” (ES.4) paisaia unitateen artean, “Oiartzungo harana” (P.2) unitateaz

bananduak daudela (33. Irudia). Unitate honek, Oiartzungo herrigunea, belardi atlantikoak eta sakabanatutako ortuak bereizgarri dituelarik.

**33. Irudia: “Oiartzungo harana” (P.2), “Santiagomendi-San Marko Mendiak” (ES.3) eta “Urkabe-San Martzialeko mendi eta bailarak” (ES.4) paisaia unitateak.**



*Iturria: Donostialdea-Bidasoa behea Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

“Oiartzungo harana” (P.2) paisaia unitatea aldi berean, “Mendi-oineko magal eta bailarak” esparru paisajistikoaren barnean aurkitzen da. Esparruaren izaera landatar-periurbanoa izanez. Honek, bestelako paisaia unitatea barneratzen du, “Jaizkibeleko medi-oina” (P.1). Hauek, berriro ere Korridoreengatik bananduak ageri dira (“Oarsoaldeko korridorea” eta “Irungo korridorea eta hirigunea”). “Jaizkibeleko medi-oina” (P.1) bere inguruko lurraldeaz bereiztua izan da, Jaizkibel mendiaren hegala eta oinean aurkitzen den nekazaritza eta abeltzaintza izaera duelako eta sarritan landaretza autoktonozko baso-sailak daudelako. Baita, belardien bilbadura zuhaitz-lerroez burutzen delako.

Bukatzeko, AF-ren barnealdean aurkitzen diren erliebe garaienak ditugu, “Barnealdeko mendiak” eta “Itsasaldeko lerrokatzea” esparru paisajistikoak. Lehenengoei dagokionez, erliebe altuenak eta malkartsuenak (malda eta desnibel handiak) biltzen duen lurraldeak ditugu, bertan baso planokaduzifolia eta baso-landaketak nagusitzen direlarik. Esparru paisajistiko honen barnean, sei paisaia unitate bereiztu izan dira. Aipatzekoa da, paisaia unitate guztiak, “Andatza mendia” (M.6) izan ezik, AF-ren hegoaldean jarraian hedatzen direla. Hauek desberdintzeko irizpideak hurrengoak izanik:



- “*Aiako harriak*” (M.1)

Mendigune granitiko menditsua eta garrantzia paisajistiko handikoa, Aiako Harriko Parke Naturalaren nukleoa eta soka garrantzitsuenak hartzen ditu. Orokorrean paisaia naturala izateagatik ezaugarritzen da, nagusiki baso naturalez eta baso landaketez estalia.

- “*Aiako harriko iparraldeko mendiak*” (M.2)

Karboniferoako arbelez osatutako bailara eta mendi paleozoikoak ditugu, baso landaketa ugariariagoa da.

- “*Añarbeko mendiak*” (M.3)

Bere egiturak Añarbeko urtegiak isurtzen duen zirku fisiografikoa gogorarazten duelako eta Lurraldearekiko bere komunikazio (fisikoa eta bisuala) urria bereizgarri du.

- “*Adarra mendia eta Leitzaran bailara*” (M.5)

Gandor harritsuetan amaitzen diren bere gailur bereziak Andoain-Hernani korridoretik oso ikusgarriak direlako (paisaia litologikoa) berezia da.

- “*Andatza mendia*” (M.6)

Altuera gutxien duen unitatea da, alboko mendiekiko itxura naturalagoa izateagatik nabarmentzen da basoa (erribera-basoen egoera ona).

Beste alde batetik, “*Itsadaleko lerrokatzea dugu*” esparru paisajistikoa dugu. Kostaldeko mendi lerrokatzeari eta basoari lotutako esparrua da. AF-ren ipar-mendebaldean, “*Mendizorrotz (Igeldoko kostaldea)*” (AC.1) eta “*Mendizorrotz-Bordatxo mendiak*” (AC.2) ditugu. Hauek, Mendizorrotz mendiaren bi isurialdeei dagokio, bigarren paisaia unitatean Bordatxo mendiak barneratzen duelarik. Hauen desberdinketa, isurialdeaz eta bertatik dauden bistaz gain, bertan aurkitzen diren lur-estaldurak ditugu hein handi batean bereizgarri. “*Mendizorrotz (Igeldoko kostaldea)*” unitatearen mendebaldean paisaia sastrakak, larre eta baso txikien mantxekin, ekialdeko erdialdera aurreratzen den heinean hauek lurraldea hartzen doaz, gehienak hosto galkorreko baso gazteak direlarik. Igeldon belardiak dira erabilera nagusia, fruta arbola eta mahasti laborantzako lursailekin tartekaturik agertzen direlarik. Eta bestean, “*Mendizorrotz-Bordatxo mendiak*” unitatean, fruta arbolak, mozketarako belardiak eta larreak agertzen direlako baserriez tartekaturik.

AF-ren ipar-ekialdean, Donostia hiriaren beste aldera, “*Jaizkibel Ulia mendiak*” (AC.3) eta “*Urkabe - San Martzialgo mendiak eta haranak*” (AC.4) ditugu. Hauen bereizgarri, isurialdeaz eta zerumugaz gain, lur-erabilpenak izanez hein handi batean. Lehenengoan, paisaia naturala, izaera historikoa, flysch materiala eta fauna basatia ikusteko aukera barneratzen duelarik.

Bigarrena, baso-birpopulaketak, ondare elementu garrantzitsuak eta antenak barneratzen dituelarik.

Beraz, bukatzeko aipatu behar da, paisaia unitateen azterketa eta konparaketa gauzatu ondoren, paisaia unitate hauek bereziki, erliebean, elementu antropiko eta hidrikoetan (ibaien) presentzian oinarritu dela, elementu osagarriak unitate hauen bereizketa izanez. Gainera, muga administratiboak, errepideak eta udal mailako lurzoru sailkapena funtsezkoak izan dira.

### **4.3 Paisaia unitateak Paisaia Zehaztapenetan izandako edukiera**

Lan honen lehengo atalean ikusi dugun bezala, Paisaiaren Zehaztapenak azpieskualdeko LAT-etan (LPP-etan) barneratzeko instrumentuak ditugu. Hauek, Katalogoetan jatorria dutelarik, beharrezkoak diren Lurralde Plangintza eta Hirigintza instrumentuan garatuko dira. Beraz, paisaiaren alorreko politika lur-antolabideetan barneratzeko funtsezkoak ditugu. Bestalde, paisaia unitateak, paisaiaren dimentsio guztiak barneratzeaz gain, politika bere osotasunean Lurralde Plangintzan txertatzeko funtsezko tresna ditugu. Aipatzekoa da ere, Paisaiaren Zehaztapenak, Katalogoetan garatzen diren PKH-etan oinarria dutela bereziki. Katalogoetan, identifikatu eta kalifikatutako paisaiantzat kalitate-helburuak zehaztu egiten direlarik (EPH, 2000: 6.art.).

Guzti honengatik, funtsezkoa da paisaia unitateen bitartezko EAeko Lurralde Plangintzaren paisaia-politikaren azterketa gauzatzeko, Zehaztapenak aztertzea. Paisaia unitateak izandako edukieran arreta izanez.

#### ***4.3.1 Balmaseda-Zalla (Enkarterriak)***

Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) *Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez, Lurralde Plan Partzialaren aldaketan* (Eusko Jaurlaritza, 2016b), Paisaiaren Katalogoak AF-rako zehaztutako PKH lortzeko Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaia Zehaztapenei buruzko dokumentu teknikoaren, 2. atalean, “*Antolaketa arauak*”, aurkeztuak izan dira. 13 Paisaia Zehaztapen ditugu<sup>29</sup>:

- “*Paisaia itxuratu eta lurraldea egituratu egiten duten multzo geomorfologikoen babeserako Zehaztapenak* (5. art.).
- *Bideragarritasun ekologikoa eta kalitate paisajistikoa duten paisaia naturalen babesari buruzko Zehaztapenak* (6.art).
- *Lurraldearen ardatz naturaltzat, ibai-paisaien berritzapena eta kontserbazioari buruzko Zehaztapenak* (7.art)

---

<sup>29</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016b, 10-21. or.)



- Nekazaritza eta abeltzaintza paisaiaren babesa eta dibertsitateari buruzko Zehaztapenak (art.8).
- Hazkunde trinkoak barneratzen duen hiri-egitura antolaketaren sorkuntzari buruzko Zehaztapenak (art. 9)
- Nukleoen sarrerak eta landa-hiri eremuen integrazioari buruzko Zehaztapenak (art. 10)
- Inpaktu bisuala gutxiagotu eta paisaian integratuta egongo diren eraikin tipologien sustapenari buruzko Zehaztapenak (art. 11).
- Erabilpen industrial, logistiko, merkataritza, aisialdia edota bestelako erabilpen tertziariozko espezializazioari buruzko Zehaztapenak (art.12).
- Arkitektura tradizionalaren eta elementu arkitektonikoen berritzapenari buruzko Zehaztapenak (art. 13).
- Giza jardueren (harrobiak, zabortegiak, etab.) ondorio diren paisaia aldaketak berriztu eta integratzeari buruzko Zehaztapenak (art.14).
- Paisaian, azpiegitura linealen eta telekomunikazioen integrazioa eta egokitzapenari buruzko Zehaztapenak (art. 15)
- Ibilbide eta begiratokien sorkuntzari buruzko Zehaztapenak (art. 16)
- Arlo Funtzionalaren sarreraren hobekuntzari buruzko Zehaztapenak (art. 17)”

Paisaia unitateak Zehaztapenetan izandako edukiera dagokionez, *Arkitektura tradizionalaren eta elementu arkitektonikoen berritzapenari buruzko Zehaztapenetan*<sup>30</sup> (art. 13), paisaia unitateak agerpena izan dute. Bereziki, “Alen-Armiñon”, “Galdames”, “Lanestosa”, “Grumeran mendiak”, “Turtzioz, Artzentales, Otxaran”, “Gordexola”, “Kadagua Harana” eta “Karrantza Harana” paisaia unitateak.


Paisaiaren Katalogoak, Paisaia Zehaztapen hauei plazaratutako AF-rako PKH orokorra, “*Tradiziozko arkitektura eta elementu erlijiosoak lehengoratzeari eta mantentzeari, eskualdeko nortasuna, ondarea eta historia mantentzen dela bermatzeko*”<sup>31</sup> izan zen, honek, AF-ean identifikatutako balio kulturalerako guneetan oinarria zuelarik (34. Irudia)<sup>32</sup>. Honek, *Arkitektura tradizionalaren eta elementu arkitektonikoen berritzapenari buruzko Zehaztapenetan* (art. 13) biltzen dira.

<sup>30</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2016b, 15-16. or.)

<sup>31</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2016b, 25-26. or.)

<sup>32</sup> Paisaia unitate bakoitzaren arabera PKH zehatzaz ezarriak izan ziren, honek biltzen zuen ondarearen izaeraren arabera. Hala ere, Zehaztapenetan, AF guztiari dagokion PKH barneratua izan da.

**34. Irudia: Balmaseda-Zallako balio kultureleko guneak (horiz).**



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Zehaztapenetan, udal bakoitzaren Plangintza instrumentuak, herri-arkitektura baliotsuaren argazki-katalogoa sortzea iradoki dute. Bestalde, Plangintza orokorraren Katalogoaren bidez, udalerrien herri-arkitektura eta ondare historikoa babestea zehaztu dute. Horretarako, Katalogoak bildu beharreko ondare elementuen zerrendaketa plazaratu dute, paisaia unitate bakoitzean berritzapena behar duten ondare elementuak zehaztuz.


Bestalde, *Ibilbide eta begiratokien sorkuntzari buruzko Zehaztapenetan*<sup>33</sup> (art. 16) AF osorako ezarritako paisaia unitateak aurkitzen ditugu. Paisaiaren Katalogoak, Paisaia Zehaztapan hauei plazaratutako AF-rako helburu orokorra, “*Ibilbideak eta begiratokiak sortzea, Enkarterrietako panoramikarik garrantzitsuenak nabarmentzeko eta paisaiaren ñabardurak ezagutarazteko*”<sup>34</sup> izan zen, beraz, ibilbideetan eta begiratokietan oinarritu ziren<sup>35</sup> (35.Irudia).

<sup>33</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016b, 18- 21. or.)

<sup>34</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016b, 31-32. or.)

<sup>35</sup> Paisaia unitate bakoitzak barneratzen zuen lurraldean hedatzen ziren bideen arabera PKH zehatzak ezarriak izan ziren, hala ere, Zehaztapenetan AF guztiari dagokion PKH barneratua izan da.

### 35. Irudia: Balmaseda-Zallako ibilbideak eta begiratokiak



*Iturria: Balmaseda-Zalla (Enkarriak) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoa*

Zehaztapan hauetan, gogoan hartu eta egokitu beharreko bide eta begiratokiaren zerrendaketa plazaratu dute. Horretarako, paisaia unitate bakoitzak barneratzen dituen ermitak, tontorrak eta bideak zerrendatu dituzte. Ondoren, ibilbide eta begiratokiak seinalatzeko, egokitze eta zabaltzeko ekintzak burutzearen beharra, paisaiaren pertzepzioa iradokitzailea den ibilbide zatiak identifikatzea, hiri-nukleoetan ibilbideen gehiketa ahalbidetzea adierazi dute. Azkenik, tokiko ondare paisajistikoa hobekien hautematea ahalbidetzen duten begiratokiak eta ibilbideetan arreta izatea zehaztu dute, interesa duten eraikinak begiratokiarekin, interpretazio guneekin, parke periurbanoarekin eta aisialdirako eremuekin lotuz.

Beraz, zehaztutako paisaia unitateak, Paisaia Zehaztapanetan agerpena izan arren, lurraldean identifikatutako arkitektura tradizionala, elementu arkitektoniko, ibilbide eta begiratokiei elementuak mugatzeko baino ez dira barneratuak izan. Zehaztapanak hartutako neurriak, elementu zehatz horietan oinarria dutelarik. Bestalde, deigarria da, nahiz eta unitateetan ez oinarritu, elementu zehazten inguruan eta bestelako tipologia paisajistikoetan oinarritzen direla, Katalogoan gauzatutako ikerketan identifikatuak ez direnak izan. Gainera, orokorrean, berritzapen paisajistiko eta integrazio paisajistiko inguruko neurri estetiko zehatzak gailentzen dira, paisaia kudeatzeko Zehaztapanak oso orokorrak dira. Salbuespena, baso naturalei buruz ezarritakoak izanik.

### 4.3.2 Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta)

Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez, *Lurralde Plan Partzialaren aldaketan* (Eusko Jaurlaritza, 2016c) Paisaiaren Katalogoak AF-erako zehaztutako PKH lortzeko Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaia Zehaztapenei buruzko dokumentu teknikoaren, 2. atalean, “*Antolaketa arauak*”, aurkeztuak izan dira<sup>36</sup>. 15 Zehaztapen ditugu:

- *“Hiri-kokaguneekin lotutako hazkundeari buruzko Zehaztapenak (art.5)*
- *Nukleoaren sarbideetarako buruzko Zehaztapenak (6. art. )*
- *Azpiegitura linealei buruzko Zehaztapenak (7. art.)*
- *Jarduera ekonomikozko eremuei buruzko Zehaztapenak (8. art.)*
- *Parke eta esparru publikozko sareei buruzko Zehaztapenak (9. art.)*
- *Ibai-paisaiari buruzko Zehaztapenak (10. Art.)*
- *Paisaia naturalei buruzko Zehaztapenak (11. art.)*
- *Itsasertzeko paisaiari buruzko Zehaztapenak (12. art.)*
- *Landa kokaguneei buruzko Zehaztapenak (13. art.)*
- *Nekazaritza-paisaiari buruzko Zehaztapenak (14. art.)*
- *Balio historiko, sinboliko eta identitarioa biltzen duten elementuei buruzko Zehaztapenak (15. art.)*
- *Erauzketa jarduera eta hondakinen kudeaketarako azpiegiturei buruzko Zehaztapenak (16. art.)*
- *Ibilbide eta begiratoki paisajistikoaren sareari buruzko Zehaztapenak (17. art.)*
- *Hondo eszenikoei buruzko Zehaztapenak (18.art)*
- *Paisaiaren hobekuntzara bideratutako kudeaketari buruzko Zehaztapenak (19. art.)”*

Paisaia unitateei dagokionez, paisaia unitateak ez dute inolako agerpenik izan, hauek Zehaztapenetatik guztiz independenteak izanik. Gainera, Paisaiaren Zehaztapenak paisaia unitateak ez diren bestelako tipologia paisajistikoan eta lurralde zehaztasun handiko elementuetan oinarria dute, Katalogoetan identifikatuak izan ez diren tipologia paisajistiko batzuetan oinarrituz. Bestalde, Zehaztapenak, paisaiaren babesa eta mantentzearen aldeko konnotazioa barneratzen dituzte, balio handiko paisaietan ardura izanik. Konnotazio estetikoak eta turistikoak barneratzeaz gain. Paisaia kudeaketarik buruzko guztiz orokorrak dira, paisaia esku-hartze paisajistiko eta neurri zuzentzaileak guztiz zuzenak izanik.

---

<sup>36</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016c, 9-25. or.)

### 4.3.3 Arabako Errioxa (Guardia)

Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez, Lurralde Plan Partzialaren aldaketan (Eusko Jaurlaritza, 2016d) Paisaiaren Katalogoak AF-rako zehaztutako PKH lortzeko Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaia Zehaztapenei buruzko dokumentu teknikoaren, 2. atalean, “Antolaketa arauak”, aurkeztuak izan dira<sup>37</sup>. 10 Paisaia Zehaztapen ditugu:

- “Arlo Funtzionalaren balio identitario eta ezaugarri paisajistikoei buruzko Zehaztapenak (6.art.)
- Ingurune fisikoaren eta erabileren arteko sinergia eta koherentziari buruzko Zehaztapenak (7. art.)
- Alde zahar eta hiri-landa trantsizioari buruzko Zehaztapenak (8.art.)
- Azpiegitura berriei eta inpaktu paisajistiko handiko elementuei buruzko Zehaztapenak (9. art.)
- Lurzoru ez-hiritargarriaren eraikuntzen erregulazioari buruzko Zehaztapenak (10.art.)
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruzko (bereziki industrialak) Zehaztapenak (11. art.)
- Ibilbide eta paisaia begiratokiei buruzko Zehaztapenak (12. art.)
- Ondare kulturalaren kudeaketari buruzko Zehaztapenak (13. art.)
- Ibai eta erriberen kudeaketari eta baliabide hidrikoari buruzko Zehaztapenak (14. Art.)
- Biztanleriarenaren partaidetzari lotutako instrumentazioari buruzko Zehaztapenak (15. art.).”

Paisaia unitateei dagokionez, Arabako Errioxaren Paisaia Zehaztapenetan, Arlo Funtzionalaren ezaugarri paisajistiko eta identitate-baloreei buruzko Zehaztapenetan (6.art.) Katalogoan identifikatutako PIBE-rekin bat, “San Gines, Uneba, Galijo eta Binasperi erreka multzoa” deituriko paisaia unitateari lotutako basoak eta zuhaitz baztertuen kontserbazioa zehazten da<sup>38</sup>. Katalogoak unitate honi zehaztutako PKH zehatzak<sup>39</sup> hurrengoak izan ziren:

- “22. Helburua: Esparruaren topografia mantendu, bertako lursail landatuak bertara egokituz. Horretarako, haranen hegaletan terrazak egitea ekiditea eta lur mugimenduak edo erliebearen aldaketa dakarten obren lizentziak mugatzea helburua lortzen neurritzat ezartzen zen.
- 23. Helburua: Erreken iparraldean eta hegoaldeko laborantzen, erliebeari dagokion, ipar-hegoaldeko testura kontrastea mantendu, izaera naturala indartuz.”

Unitate honek biltzen duen lurraldea, berez, “Erreken korridore ekologikoak eta ikuspeneoak” deituriko PIBE-an barneratua agertzen da, ere (36. Irudia). Zehaztapenetan, Azpiegitura berrien eta inpaktu paisajistiko handiko Zehaztapenetan (9. art.)<sup>40</sup> barneratua agertzen da. Non, errepide berrien trazaketa topografiara egokitzea eta inpaktu handiko trazaketak ekiditearen

<sup>37</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016d, 7-16. or.)

<sup>38</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016d, 8. or.)


<sup>39</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2012c, 2. Etapari lotutako memoria, 28. or.)

<sup>40</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2016d, 11. or.)



beharra zehazten baino ez da. Nahiz eta, honi Katalogoan osotasun ekologikoa eta egiturazko mantentzea ezarri PKH-tzat.

**36. Irudia: “San Gines, Uneba, Galijo eta Binasperi erreka multzoa” paisaia unitatea eta “Erreken korridore ekologikoak eta ikuspeneoak” deituriko Paisaia-interes bereziko eremuaren helburu espezifikoak.**



Iturria: Arabako Errioxa (Guardia) Paisaiaren Katalogoa.

Unitate honek biltzen duen lurraldeari, *Baliabide hidriko eta erreka eta erriberen kudeaketari buruzko Zehaztapenak* (14. art.)<sup>41</sup> ere dagokio. Bertan, ibaibideen bazterren eremu natural degradatuen errekupeazioa gomendatzen baino ez da. Bestalde, erreken korridoreen hauskortasun handiko eremuetan, eraikuntzak ekiditea ageri da. *Arlo Funtzionalaren ezaugarri paisajistiko eta identitate-baloreei buruzko Zehaztapenetan* (6.art.)<sup>42</sup>.

Bestalde, *Paisaiaren behatoki, bide eta ibilbideei buruzko Zehaztapenetan* (12.art.) “*Labrazako Mendiak*” izendatutako paisaia-unitatean bideak sustatzea aurkezten da<sup>43</sup>. Paisaiaren Katalogoan ezarritako PKH “*unitate honen izaera naturala segurtatzea*” da (37. Irudia). Horretarako proposatutako neurriak “*plangintzan unitate osoa babestea, baso-kudeaketa egokia burutzen dela baieztatzea eta Dueñaseko Pinudiei balioa ematea*” izan ziren. Paisaia unitate honen mendebaldeko eremua, PIBE “*Erreken korridore ekologikoak eta ikuspeneoak*”

<sup>41</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2012d, 15. or.)

<sup>42</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2012d, 8. or.)

<sup>43</sup> (Eusko Jaurlaritza, 2012d, 12- 13. or.)

barnean aurkitzen da<sup>44</sup>. Aurrean aipatzen den bezala, Paisaia Zehaztapenetan aurkitzen delarik. Baso-kudeaketari buruz inongo aipamenak ageriz.

**37. Irudia: “Labrazako Mendiak” paisaia unitaterako eta “Erreken korridore ekologikoak eta ikuspeneoak” Paisaia-interes bereziko eremurako helburu espezifikoak.**



Iturria: Arabako Errioxa (Guardia) Paisaiaren Katalogoa.

Bestelako adibide bat, “Lantziegoko mahasti sasi-landazabala eta Olibadia” paisaia unitatea dugu. Paisaiaren Katalogoan bi helburu zehatz barneratzen zituen<sup>45</sup>:

- “24. Helburua: Erliebe konplexua nahiz unitateari nortasuna ematen dion olibondo eta mahastiz osatutako mosaiko formako ehundura mantentzea.
- 25. Helburua: Zonaldea A-124 errepidearen inguruan antolatzea, Assa herria eta herriaren eta El Carrascal industrialdearen arteko tartea hartzen duena antolatu. Horretarako, eraikinen garapen neurrigabea hirigintzaren bidez kontrolatu”.

Bertako lurraldean biltzen diren mahasti sasi-landazabala PIBE-an “Landazabaleko matrize naturalean” barneratua agertzen da. Honi, Arlo Funtzionalaren ezaugarri paisajistiko eta identitate-baloreei buruzko Zehaztapenetan (6.art.)<sup>46</sup>, lur-sailak banatzen dituzten muino eta mugen erreketara ekiditea. Bestalde, olibondo eta mahastiaren arteko jardueri buruz, *Ingurune fisikoaren eta erabileren arteko sinergiak eta koherentziei buruzko Zehaztapenetan* (7.art.)<sup>47</sup>

<sup>44</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2012c, 2. Etapari lotutako memoria, 29. or.)

<sup>45</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2012c, 2. Etapari lotutako memoria, 29. or.)

<sup>46</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2016d, 8. or.)

<sup>47</sup> (Eusko Jaurlaritzak, 2016d, 8-9. or.)

jarduera hauen arteko sinergia positiboak eta paisaia kalitatea bultzatzea. Baita, olibondoaren agerpena AF-ren ekialdean mantentzea.

Gainera, Paisaiaren Katalogoan zehaztutako 25. helburu hori, Paisaia Zehaztapenetan ez du izan inolako edukierarik. El Carrascal industrialdeari buruzko zehaztapenak ageri dira, honek, PIBE-aren barnean zonalde industrialaren barnean aurkitzen delako, paisaian duen inpaktu negatiboa dela eta. *Nagusiki industrialak diren jarduera ekonomikoei lotutako lurzoruari buruzko Zehazpenak* (11. art.)<sup>48</sup>, industrialde honetan, irudiaren hobekuntza, kontsolidazioa, hesi begetalak, kalitate estetikoak eta ezkutatze bisuala azaltzen baino ez da.

Beraz, orain arte ikusi dugun bezala, zehaztutako paisaia unitateen edukiera mugatua izan da. Katalogoan paisaia unitate bakoitzekiko zehaztutako PKH, orokorrean, PIBE-tara mugatuta gelditzen da. Hauek translazioa Zehaztapenetan zuzena izan delako. Bestalde, nabarmentzekoa da, Zehaztapenak egitura sektoriala barneratzen dutela, lurraldearen elementu puntualetan oinarritzeaz gain, zentzu estetikoak gailentzen dira, esku-hartze paisajistikoak nabarmenduz.

#### **4.4 Paisaia Katalogoen paisaia unitateen diagnostikoa**

Paisaia unitateak Zehaztapenetan edukiera hutsa eta orokorrean, hauetatik independenteak izatearen arrazoa, Paisaia Katalogoek, paisaiaren azterketan jorratutako ikerketan jatorria du. Bereziki, Paisaia Katalogoek erabilitako ikerketa-eskalan sorrera du.

Paisaia Katalogo orok burututako paisaiaren analisisian erabilitako eskala tokiko-eskala da. Teknikoki, eskala handia izendatzen dena. Zehaztasun handiko eskala hori erabiltzeak, paisaia unitateak zehazteko irizpide batzuk azaltzea eta beste batzuk oharkabetzea ekarri du.

Paisaiaren ikerketetan bertako-eskala erabiltzeak, ikusi dugunez, lurralde-esparru sakonena ikertzea dakar, zehaztasun handi horrek paisaia osatzen duten elementu konkretuen ikerketa xehatua ahalbidetzen du. Bertako-escalan gizakiaren eragina eta elementu puntualen gailentasuna hautemangarriago da. Hortaz, aldi berean, lurralde ikerketa sektoriala gauzatzera eramaten gaitu. Aitzitik, oharkabetzen dira lurraldearen egitura eta bertan gauzatzen diren azpi-eskualde prozesuak. Egoera honek paisaia unitateak burututako diagnostiko paisajistikoan ez oinarritzea ekarri du.

Beraz, gogoan hartuz Paisaia Katalogoek dakarten ikerketaren helburua zein den, dagokion Lurralde Plan Partzialean paisaia babestu, kudeatu edo antolatzeke araubide espezifiko bat

---

<sup>48</sup> (*Eusko Jaurlaritza, 2016d, 12. or.*)

hartzeko gai diren eremuak identifikatzea, hots, paisaia unitateak zehaztea, bertako-eskalaren bidez zehaztutako eremuak Lurralde Plangintzarako guztiz erabilgaitzak dira. Paisaia unitateak, Paisaiaren Katalogoak eta Paisaiaren Zehaztapenak bezala, prospekzio izaera barneratu beharko dutelako.


Hala eta guztiz ere, egoera hau, Katalogoetan era oso desberdinetan gauzatu da. Hauek paisaia unitateak zehazteko erabilitako prozedurak eta irizpideak guztiz desberdinak izan direlako. Ondorioz, zehaztutako paisaia unitateak guztiz desberdinak dira. Honen adibide nagusiena, Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) eta Donostildea-Bidasoa behea Paisaia Katalogoen bi AF-en artean partekatzen duten lurraldean zehaztutako paisaia unitateak ditugu (38. Irudia eta 39. Irudia). Ezaugarri paisajistiko berdinak biltzen ditun lurraldea metodo eta irizpide desberdinekin identifikatua izan da. Ondorioz, eskuratutako emaitzak bateragarriak ez izatea dakar.

**38. Irudia: Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) eta Donostildea-Bidasoa behea partekatzen duten lurraldea**



*Iturria: neure egintza*

**39. Irudia: Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) eta Donostildea-Bidasoa behea partekatzen duten lurraldean Katalogo bakoitzak zehaztutako paisaia unitateak**



*Iturria: Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) eta Donostildea-Bidasoa behea Paisaiaren Katalogoak.*



- Balmaseda Zallako (Enkarterriak) paisaia unitateen kasuan:

Paisaia unitateak Paisaia Zehaztapenetan agerpena izan arren, hauek edukiera hutsa izan da, lurraldean identifikatutako arkitektura tradizionala, elementu arkitektoniko, ibilbide eta begiratokiei elementuak mugatzeko baino ez dira barneratuak izan.

Katalogoak zehatutako paisaia unitateak erliebean oinarritzen dira batez ere, ezaugarri bereizgarritzat, lur-erabilera, lur-estalduren mosaikoak, azpiegiturak (bideak, errepideak), ondare eraikiak eta eraikinak izanik. Honek adierazten du, paisaiaren diagnostikoa ez dela funtsezkoa izan unitateak zehazteko. Ondorioz, Katalogoaren ikerketan edukiera hutsa izan dute ere, Zehaztapenatarako baliogabeak izatea ondorioztatzen duena.

- Urola Kostako (Zarautz-Azpeitia) paisaia unitateen kasuan:

Urola Kostako Paisaiaren Katalogoak zehatutako paisaia unitateak erliebean dute oinarria, ondoren, hauen ezaugarriketa eta bereizketa lur-erabilera eta lur-estalduren mosaikoaren arabera gauzatzen dute, ezaugarri bereizgarritzat, elementu puntualak barneratuz ere. Nahiz eta, lurraldean garatzen diren dinamika batzuk paisaia unitateen mugak zehazteko erabiliak izan, Katalogoan gauzatutako paisaiaren diagnostikoa, lehenengo etapan identifikatutako dimentsio paisajistikoetan oinarria du. Hauek, paisaia unitateen ezaugarri bereizgarritzat agertuz ere.

Beraz, Zehaztapenetan paisaia unitateak ez dute edukierarik, Paisaiaren Katalogoak paisaiaren diagnostikoan ez zirelako oinarritu, hauek ezaugarritzeko baizik. Eta kontuan hartuz, PKH ezartzeko orduan, paisaia diagnostikoan oinarria dutela, unitateak guztiz independenteak ageri dira Katalogoaren azterketan, ere bai. Ondorioz, Paisaia Zehaztapenatarako baliogabeak dira ere.

- Arabako Errioxako (Guardia) paisaia unitateen kasuan:

AF honi dagokionez, Paisaia Katalogoetan paisaia unitate bakoitzekiko zehatutako PKH helburuak, orokorrean, PIBE-tara mugatuta gelditzen da, unitateen edukiera mugatua izanez.

Paisaiaren Katalogoan, paisaia unitateen zehaztapenean, paisaiaren diagnostikotik (baloreen identifikazioa, ikuskapen analisia, hauskortasuna eta paisaiaren sekuentzia ebolutiboa) eskuratutako emaitzak ez dira guztiz erabakigarriak izan paisaia unitatea zehazteko. Kontraz, unitateak zehazteko orduan, paisaia-oinarria definitzen duten unitateak funtsezkoak izan dira. Hauek, eskala handiz burututako ikerketa-lan baten emaitza dira, non, hurrengo osagaiak erabakigarriak izan dira: ingurune fisikoaren egituraren forma (forma, maldak, esposizioa, sare hidrografikoa), lurrazalaren testura (landaretza eta lur erabilpenak, lur-sail ehuna, elementu



singularrak) eta giza jatorrizko elementuak. Gainera, Paisaia-oinarria definitzen duten unitateak lurraldeak islatzen duen kanpo-irudi objektiboari eta pertzepzioari erreferentzia baino ez diote egiten.

Katalogo hau, paisaia unitateak zehaztu ondoren, paisaia unitate bakoitzekiko ebaluaketa gauzatu duen bakarra da. Ebaluaketan aurreko fasean ikertutako irizpideak ebaluatuz eta berriro ere paisaia unitate bakoitzaren diagnostikoa eginez. Beraz, lurraldean gauzatzen diren prozesuak eta dinamikak, irizpide pertzepzioak eta zehaztasun handiz (eskala handiaz) mugatutako esparruetara (paisaia unitateetara) guztiz baldintzatuta daude. Honek, eragina zuzena izango du ondoren gauzatuko diren PKH, beraz Paisaia Zehaztapenetan ere.

Prozesuak eta dinamikak esparru guztiz mugatuetan (paisaia unitateak) ikertzen badira, bertatik ondorioztatuko diren Zehaztapenak lurraldearen elementu puntualen inguruan jorratzea eta egitura sektoriala barneratzen guztiz ulergarria da. Eta, paisaiaren ikerketan esparru horiek mugatzeko irizpide pertzepzioak nagusitu badira, ulergarria da ere, bertatik eskuratuko diren neurriak irizpide estetiko eta pertzepzioaren inguruan jorratzea. Guzti honek, Zehaztapenak PIBE-tan arreta izatea ondorioztatuz.

▪ Donostialdea-Bidasoa beheko paisaia unitateen kasuan:

Donostialdea Paisaiaren Katalogoak zehaztutako paisaia unitateen identifikazioa lehenengo fase honetan, erliebe, landaretza eta lur-erabilpen faktoreen konbinaziotik ondorioztaturiko kolore eta forma tesela homogeenak identifikatu egiten dira ikerketa-eskala handian. Bertan, esparru paisajistikoak zehazten direlarik, ondoren, zehaztasun handiko eskalan ezaugarri bisualak, elementu eta enklabe antropikoak, baita, alderdi historikoak ikertuak izan dira.

Aipatzekoa da, Katalogoan aipatzen dela, paisaia unitateen mugak ezartzeko funtsezkoa izan dela paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren azterketa, non, paisaiaren diagnostikoa gauzatu da. Baina, paisaia unitateen azterketa gauzatu ondoren, esan dezakegu, unitateen zehaztapenetara bideratutako paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren ikerketatik eskuratutako informazioa, osagai historikoa eta elementu eta enklabe antropikoekin baino ez dela izan. “*Paisaiaren sekuentzia ebolutiboaren ikerketa*” ataletik, egungo paisaiaren prozesuen azterketatik, paisaiaren osagai historikoa eta elementu eta enklabeei buruzko informazioa eskuratua baino ez dela izan. Enklabe eta giza-elementu artifizialak, “*Paisaiaren klabeak*” atalean ikertutako paisaia osagaien ikerketetan edukiera izan duela. Bestalde, osagai historikoa, eraikitako paisaia ukiezinetan edukiera izan du. Gainera, paisaia unitateen behin betiko mapa atal horren emaitzazko kartografian plazaratua izan da.

Guzti honek, ondorioztatzen du, lurraldean zehaztasun handiz aurkezten diren elementu puntualak eta linealak paisaia unitateen mugaketa zehaztu dutela. Kontraz, paisaiaren sekuentzia ebolutiboan gauzatutako paisaiaren diagnostikoa ez. Eta, gogoan hartuz, paisaiaren diagnostikoa PKH-en oinarria dela, hauek *a posteriori* idatziko diren Paisaia Zehaztapenen oinarria izango direla, paisaia unitateak Paisaia Zehaztapenetan izango duten edukiera guztiz konprometitua aurreikusteen da.

## 5. ONDORIOAK

Paisaiak EAEko Lurralde Plangintzan izandako edukiera aspaldikoa izan arren, beti, lurzoru ez-hiritargarriari eta naturari lotutako edukiera izan du, honek babes konnotazioak barneratzen zuelarik. EAE-k EPH-ra atxikitzen onartu geroztik, ordurarte egondako ikusmoldea gainditzea ahalbidetu beharko zuen. Hala ere, paisaia lurraldearen antolaketa burutzeko baliabidea izan ordez, lurraldean garatzen diren jarduera eta planen ondorioa delaren ideia gailentzen da. Dena den, *90/2014 Dekretuak*, paisaiak Lurralde Plangintzan izan beharreko edukiera arautzea eta mekanismo normalizatuak finkatzea ahalbidetu du. Paisaia modu koherenteago batean barneratzera gidatu duena eta paisaia juridikoki onartu duena. Guzti honengatik, esan dezakegu, araubidean (tresnatzat) garapena izan arren, praktikan, egungo, EPH-ren paisaiaren esanahi integratzailea barneratua ez dagoela.

Hala ere, paisaia tresnatzat garatzeko identifikatutako bitartekoak eta hauek LAT-etan izango duten eskuduntza zehaztua egon arren, hauen inplementazioa, oraingoz, bide luzea eta zaila barneratzen dute. Aipatutako Dekretua plazaratu zenetik, lau AF-ren Paisaiaren Katalogoak burutu baino ez dira egin, eta bakarrik hiru dira Paisaiaren Zehaztapenak jasotzen dituzte (Dekretua baino lehenago buruak izan zirenak). Lau urteko epean, hasierako onespena baino ez dute jaso eta oraindik hamaika Paisaia Katalogo egitear daude.

Adituek dioten bezala, Lurralde Plangintzan, paisaia bere egituran, irudikapenetan eta gizarte eskakizunetan aldakorra eta dinamikoa dela barneratzeak, gauzatuko den politikak bestelako inplikazioak bildu beharko ditu. Honek ezin da bakarrik babes edo paisaia hobetzeko politikari mugatu, prozesuak kudeatzeko gai den paisaia-politika guztiz beharrezkoa da. Horregatik, paisaia-politika paisaiaren baloreetan eta izaeran eragina duten lurralde aldaketei eta prozesuei bideratzea guztiz beharrezko luke (Mata, 2006a). Eta paisaia unitateak paisaiaren kudeaketa gauzatzeko bitarteko tresna bateratzaileak ditugu. Paisaia unitateak ezartzeak, AF baten lurralde oro paisaiaren aldetik koherenteak diren eremuetan sailkatzea dakar. Lurralde esparru hauek araubide espezifiko bat jasoko dutelarik. Araubide hau, Paisaia Katalogoetan definitzen diren PHZ bidez, Zehaztapenetan ezarri behar dira, dagokion AF-aren LPP-ean edukiera izan ditzan. Eta LPS eta Hirigintzan garatu ditzan. Beraz, paisaia-politika bere osotasunean Lurralde Plangintzan ezartzeko funtsezko tresnak ditugu, tresna hauek politika bere osotasunean ezartzeko erabili behar direlarik.

Guzti honek, nabarmentzen du, EPH-k zehaztutako politika Lurralde Plangintzan barneratzeko helburua lortzeko, hauek derrigorrez Paisaia Zehaztapenetan izan beharreko edukiera

erabatekoa izan behar dela. Eta orain arte ikusi dugun bezala, aurkako egoera baten aurrean aurkitzen gara. Gainera, paisaia unitateak ez diren bestelako irizpideetan eta tipologia paisajistikoetan oinarritzen dira. Aldi berean, esku-hartze paisajistiko zehazten gomendatzeak nagusitzen dira, barneratze paisajistikoaren alde eta inpaktu bisualen aurkako ekintza paisajistikoak nagusituz. Ondorioz, lurraldearen irudia eta pertzepzioaren hobekuntza dakarten neurriak nabariak dira, neurri zuzentzaileak nagusituz. Aldiz, lurraldean aurkitzen diren mehatxuei buruzko kudeaketa jasotzen duten neurriak orokorrak dira.

Guzti honen jatorria, Katalogoen erroetan aurkitzen da, bereziki, hauek jorratutako lan-eskalan (eskala handia). Zehaztasun maila honek, guztiz erabilgaitzak diren kudeaketa eremuak (paisaia unitateak) ezartzera ondorioztatu duelako. Bestalde, kontuan izan behar da lurralde berberari (EAERI) dagozkion Katalogoak direla, eta gaurdaino, paisaia unitateak identifikatzeko guztiz desberdinak diren metodologiak erabili dituztela. Egoera honek, EAE mailan, inolako irizpide bateraturik jarraituz sortutako Katalogoen gehiketa izango dela ekarriko du. Lurralde Plangintzak paisaia politikei dagokionez hartu beharreko erabakiak zailduz.

Honengatik, Katalogoen elaborazioak gogoan hartu behar ditu ondoko lurraldeak, ez bakarrik paisaia ikerketa metodo eta irizpide berdinak erabiltzeagatik, baita, AF-ren artean dagoen lurraldea iritzi bereko kudeaketa jasotzeko. Muga administratiboak lurraldeak bereiztu arren, paisaia ez luke derrigorrez lurralde esparruaren muga administratiboarekin bat egin behar. Paisaia bestelako dimentsioak barneratzen dituelako, beraz paisaiaren ikerketa muga zorrotz horien baitan burutzeak, errealitateari muga zorrotzak ezartzea dakar, eta paisaiari dagokionez errealitatea jarraia eta aldakorra da.

Egoera hau bada ere, paisaia-politika ez da inolako utopia eta oraindik bidea luzea da. Egun lurraldean aurkezten diren erronkak batasun-senaz eta udal-barruti maila gainezkatuz landuak izan behar dira. Lurraldearen bere testuinguruan ikertzeko eta lurraldean lotzen diren paisaia desberdinen erlazioak ikuskatzeko. Horretarako, funtsezkoa da, unitateen ezarpena lur-antolabideen ezaugarriari eta bitarteko hauen helburuei era kontsekuentean sortuak izatea. EPH-k zehaztutako paisaia, bere osotasunean, Lurralde Plangintzan funtsezko-pieza izan dezan.

Guzti honengatik, etorkizuneko ikerketatzat, EAeko Lurralde Plangintzan paisaia-politika osotasunean barneratzera bideratuta dagoen, paisaia unitateak zehazteko metodo bateratu, zehatz eta eraginkorra egitea eta barreiatzea aurkezten da. Hau da, azpi-eskualde eskalan oinarritzen den prozedura. Era honetan, unitateen ezarpena paisaiaren diagnostikoan oinarritzen

delarik. Paisaiaren diagnostikoa, etorkizunean, babestu, kudeatu eta antolatu nahi den gizarte, lurralde eta paisaiari buruzko politiken giltzarria baita.

Bukatzeko, aipatu behar da, lan honen helburuak eta hauek lortzeko garatutako azterketak behin burutuak izanda. Sortutako eztabaida nabarmena argitzeko beharra dago. Egungo Katalogoetan zehaztutako unitateak lurraldea ikertzeko tresnatzat bakarrik izan badira (eta ez lurraldea kudeatzeko tresnak). Galdera da, non aurkitzen da egungo hasierako onespina jaso duten Zehaztapenen erroak? Hots, etorkizunean garatuko den politikaren erroak? Erantzuteko, funtsezkoa da, PKH-en eta hauen moldaketa Paisaiaren Zehaztapenetan biltzen duen azterketa osatua gauzatzea. Master-Amairako Lan honen denbora eta luzera mugaketa dela eta, gauzatua ezin izan den eginkizuna izanik. Etorkizunera begira, guztiz interesgarria den beste ikerketa bidea izanik.



## **6. ESKERRAK**

Lehenik eta behin, Master-Amaierako Lan honen bi zuzendariei, Orbange Ormaetxea Arenaza eta Mari Jose Ainz Ibarrondori eskerrak eman nahi dizkiet. Betiere, laguntzeko prest eta jarritako arduragatik. Bestalde, nire familiari. Beraien laguntza barik Master eta lan honen buruketa ezinezkoa izango baitzen.

## 7. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

### Iturri orokorrak

- Cortina, A. (d.g.). *El reconocimiento jurídico del paisaje. Articulación del paisaje en el marco normativo español*. Centro de documentación del paisaje de Gran Canaria. Eskuragarria: [http://www.documentacionpaisaje.org/sites/default/files/centrodocumentos/reconocimiento\\_juridico\\_del\\_paisaje.pdf](http://www.documentacionpaisaje.org/sites/default/files/centrodocumentos/reconocimiento_juridico_del_paisaje.pdf)
- Gómez, J. (2008). *La mirada del geógrafo sobre el paisaje: del conocimiento a la gestión*. Hemen: Maderuelo, J. (dir.), Paisaje y territorio, (11-56. or.). Madril: Abada.
- Mata, R. (2006a). *Un concepto de paisaje para la gestión sostenible del territorio*. Hemen: Mata, R. eta Tarroja, Á. (koord.), El paisaje y la gestión del territorio, (199-239. or.). Bartzelona: Diputació de Barcelona.
- Mata, R. (2006b). *Métodos de estudio del paisaje e instrumentos para su gestión. Consideraciones a partir de experiencias de planificación territorial*. Hemen: Mata, R. eta Tarroja, Á. (koord.), El paisaje y la gestión del territorio, (199-239 or.). Bartzelona: Diputació de Barcelona.
- Nogué, J. (2010). *El paisaje en la ordenación del territorio. La experiencia del Observatorio del Paisaje de Cataluña*. Estudios Geográficos, LXXI bol., 269zk., 415-448 or.
- Nogué, J. eta Sala, P. (2008). *El paisaje en la Ordenación del Territorio. Los Catálogos de paisaje de Cataluña*. Cuadernos Geográficos, 43. bol., 004zk., 69-98 or.  
Hemen: <http://www.ugr.es/~cuadgeo/docs/articulos/043/043-004.pdf>
- Nogué, J.; Sala, P. eta Grau, J. (2016). *Els catàlegs de paisatge de Catalunya: metodologia*. Olot: Observatori del Paisatge de Catalunya; ATLL, Concessionària de la Generalitat, SA.
- Pérez, A., Boronbio, M., Castillo, F. eta Payán, M. (2014). *Metodología y clasificación de tipos de paisaje en Galicia*. Geografía e Ordenamento do Território (GOT), 6. zk., 259-282 or. Eskuragarria: <http://www.scielo.mec.pt/pdf/got/n6/n6a15.pdf>
- Pérez, E. (2002). *Unidades de paisaje: Aproximación científica y aplicaciones*. Hemen: Zoido, F. eta Venegas, C. (koord.), Paisaje y ordenación del territorio, (122-135. or.). Sevilla: Junta de Andalucía, Consejería de Obras Públicas y Transportes.

Zoido, F. (2002). *El paisaje, fundamento de un buen gobierno del territorio*. Hemen: Zoido, F. eta Venegas, C. (koord.), Paisaje y ordenación del territorio, (41-60. or). Sevilla: Junta de Andalucía, Consejería de Obras Públicas y Transportes

Zoido, F. (2005). *Bases para la aplicación del Convenio Europeo del Paisaje en España*. Eskuragarria: <http://paisajeyterritorio.es/assets/bases-para-la-aplicacion-del-convenio-europeo-del-paisaje-en-espana.-zoido-naranja%2C-f.pdf>

Zoido, F. (2010). *El Convenio Europeo del Paisaje*.

Eskuragarria: <http://paisajeyterritorio.es/assets/el-convenio-europeo-del-paisaje.-por-zoido-naranja%2C-f.pdf>

### **Legegintza-erreferentziak**

Agindua, 2016ko urriaren 28koa, *Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Guardiako (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren 2. aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei buruzkoa*. (EHAA, 218. zk., 2016ko azaroaren 17a. Hurrenkera-zk.: 4886).

Agindua, 2016ko urriaren 28koa, *Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei buruzkoa*. (EHAA, 218. zk., 2016ko azaroaren 17a. Hurrenkera-zk.: 4887).

Agindua, 2016ko urriaren 28koa, *Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez hasieran onartzen baita Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa*. (EHAA, 218. zk., 2016ko azaroaren 17a. Hurrenkera-zk.: 4888.)

*Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaiaren Lege-proiektua onartua*. 2012ko urtarrilak 24. (Eusko Jaurlaritzaren Kointseiluan hartutako erabakia).

Eskuragarri: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/8869-aprobado-proyecto-ley-del-paisaje-euskadi-acuerdo-del-consejo-gobierno-del-2012?track=1>

*Europako Paisaiaren Hitzarmena*. 2000ko urriaren 20a. (Europako Kontseilua, Florentzia,).

Eskuragarri: <https://rm.coe.int/16802f3f6b>

- 177/2014 Dekretua, 2014ko irailaren 16koa, *zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala*. (EHAA, 198. zk., 2014ko urriaren 17a. Hurrenkera-zk.: 4348).
- 2/2006 Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, *lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa*. (EHAA, 138. Zk., 2006ko uztailak 20. Hurrenkera-zk.: 15396).
- 28/1997 Dekretua, 1997ko otsailaren 11koa, *Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena*. (EHAA, 29. Zk., 1997ko otsailak 12a. Hurrenkera-zk.: 28).
- 4/1990 Legea, 1990ko maiatzaren 31koa, *Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa*. (EHAA, 131. Zk., 1990ko ekainak 12. Hurrenkera-zk.: 2053).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa*. (EHAA, 112. zk., 2014ko ekainaren 16a. Hurrenkera-zk.: 2623).

#### **Dokumentu ofizialen erreferentziak**

- Eusko Jaurlaritza. (1997). *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak*. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-564/es/contenidos/informacion/dots/eu\\_1165/indice3\\_e.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-564/es/contenidos/informacion/dots/eu_1165/indice3_e.html)
- Eusko Jaurlaritza. (2002). *Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002 2020 - Ingurumen Esparru Programa 2002-2006*. Eskuragarria: [http://www.euskadi.eus/web01s2ing/eu/contenidos/plan/eavds\\_pma/eu\\_9688/pma\\_2002\\_2006.html](http://www.euskadi.eus/web01s2ing/eu/contenidos/plan/eavds_pma/eu_9688/pma_2002_2006.html)
- Eusko Jaurlaritza. (2012a). *Balmaseda Zallako (Enkarterrik) Paisaiaren Katalogoa*. Eskuragarria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/paisaiaren-katalogoak-zehaztapenak/r49-cpaisaia/eu/>
- Eusko Jaurlaritza. (2012b). *Urola Kosta (Zarautz-Azpeitia) Paisaiaren Katalogoa*. Eskuragarria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/paisaiaren-katalogoak-zehaztapenak/r49-cpaisaia/eu/>
- Eusko Jaurlaritza. (2012c). *Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Katalogoa*. Eskuragarria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/paisaiaren-katalogoak-zehaztapenak/r49-cpaisaia/eu/>

- Eusko Jaurlaritza (2014). *Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala*. Eskuragarria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informazioa/euskal-autonomia-erkidegoko-nekazaritza-eta-basozaintzako-lurralde-plan-sektoriala/r49-565/eu/>
- Eusko Jaurlaritza (2016a). *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspena*. Aurrerapena. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-565/eu/contenidos/informacion/revision\\_dot/eu\\_def/index.shtml](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-565/eu/contenidos/informacion/revision_dot/eu_def/index.shtml)
- Eusko Jaurlaritza. (2016b). *Balmaseda- Zallako (Enkarterriak) Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez*. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp\\_encartac\\_aprob\\_definitiva/es\\_ptp/adjuntos/Doc.%20T%C3%A9cnico.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp_encartac_aprob_definitiva/es_ptp/adjuntos/Doc.%20T%C3%A9cnico.pdf)
- Eusko Jaurlaritza. (2016c). *Zarautz-Azpeitiako (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren 2. aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei dagokionez*. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp\\_uro\\_la\\_kosta\\_indice/es\\_1672/adjuntos/20161028%20Doc.%20Tec.%20Urola%20Kosta%20Aprob.%20Inicial.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp_uro_la_kosta_indice/es_1672/adjuntos/20161028%20Doc.%20Tec.%20Urola%20Kosta%20Aprob.%20Inicial.pdf)
- Eusko Jaurlaritza. (2016d). *Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialaren bigarren aldaketa, Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez*. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp\\_Guardia\\_2mod\\_doc\\_tecnico/es\\_def/adjuntos/161028Mod%20PTP%20Guardia%20Paisaje.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp_Guardia_2mod_doc_tecnico/es_def/adjuntos/161028Mod%20PTP%20Guardia%20Paisaje.pdf)
- Eusko Jaurlaritza. (2017a). *Paisaiaren Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak*. Eskuragarria: [http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru\\_laguntza/2016/paisaiaren-ekintza-ppanak-prestatzeko-diru-laguntzak-2016/](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru_laguntza/2016/paisaiaren-ekintza-ppanak-prestatzeko-diru-laguntzak-2016/)
- Eusko Jaurlaritza. (2017b). *Paisaian Integratzearen Azterlanak egiteko Gida*. Eskuragarria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/noticia/2017\\_03\\_guia\\_paisaje/eu\\_def/adjuntos/Guia%20paisaje\\_FINAL\\_EUS.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/noticia/2017_03_guia_paisaje/eu_def/adjuntos/Guia%20paisaje_FINAL_EUS.pdf)
- Eusko Jaurlaritza. (2017c). *Donostialdea-Bidasoa beheko Paisaiaren Katalogoa*. Eskuragarria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/paisaiaren-katalogoak-zehaztapenak/r49-cpaisaia/eu/>



## **8. ERANSKINAK**

**1. Eranskina: Balmaseda-Zalla Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoan identifikatutako Arlo Funtzionalean gehien eragiten duten jardueren eta prozesuen dinamikak**

<b>Lurralde-sailkapena</b>	<b>Identifikatutako prozesuak eta jarduerak</b>
Tontorretako eta goi-kotak	-komunikazio antenak -altuerazko bazkak -basoko-suteak -baso, pagadi, harizti eta artadi zaharren baso-berritzea (baso-landaketen eragina. Eukalipto eta pinudia)
Hegalak eta erdi-kotak	- larreak izan ziren, eta ia desagertu egin dira (txakolinaren eragina). - harrobiak - zaborteziak - argindar-lineak - herrixka txikien hazkunde prozesua
Haran-hondoa eta behe-kotak	- neurri gabeko hiri jarraituen eraikitzea - harrobiak eta zaborteziak

*Iturria: neure egintza*

**2. Eranskina: Balmaseda-Zalla Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoaren lehenengo etapan identifikatutako mehatxuak eta aukerak.**

<b>Mehatxuak</b>	<b>Aukerak</b>
1.Kultur ondarea galtzea 2.Tipologia tradizionalak desagertzea 3.Hiri jarraituak sortzea 4.Harrobiak eta zaborteziak 5.Egur-industria desagertzea 6.Laborantza eta nekazaritza-jarduera tradizionalak bertan behera uztea 7.Dibertsifikaziorik eza baso-jardueretan 8.Azpiegitura berriak gainezka dauden eremuetan	1.Balioan jartzea eta ingurumena babestea 2.Paisaia-balioei lotutako turismo-ustiapena 3.Kultur ondarea babestea, zaharberritzea, eta balioan jartzea 4.Kadagua ardatz egituratzailea 5.Industria-hondarrak eta hutsik dauden industria-lurzoruak berreskuratzea 6.Nekazaritza-jarduerak berreskuratzea 7.Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikinen, industrien eta azpiegituren integrazio bisuala

*Iturria: neure egintza*

**3. Eranskina: Balmaseda-Zalla Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoaren lehenengo etaparen emaitzazko kartografian paisaiaren balioarekin lotutako mapetan jasotzen den informazioa.**

<b>Emaitza kartografikoa</b>	<b>Ikertutako gaiak</b>	
Balio historikoen mapa	Meatze-guneak Galtzada erromatarra Hirigune historikoa Ondare multzoa Ondare industriala Dorretxea Jauregia Indiano-etxea Etxe-nobleak Burdinola Errota Zubia	
Estetika-balioen mapa	Balio natural handia Baso autoktonoa Belardia Larrea Koniferen-nagusitasuna Gailurrak Haitzartea Intereseko paisaia dinamikoak Ondare-multzoa Batzar etxea Lantegia	
Herri-arkitekturaren mapa	Euskal baserria / Turtziar baserria Etxe kantabriarra / Etxe gaztelania Eraikin arkitektura eremuak	
Balio-sinbolikoen mapa	Tumulu gunea Hirigune-historikoa Gaztelu zahar Intereseko eraikinak Santutegi eliza / Zezen plazarako baseliza / Baseliza Eraitsitako baseliza	
Paisaiaren balio produktiboen mapa	Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea.	Balio estrategiko handia Belardia eta laborantza atlantikoa Baso-landaketak
	Industria sektorea	Hiri-lurzorua Lurzoru urbanizaezina Erauzketa jarduerak Erauzketako ustiapenak
	Zerbitzu sektorea	Ostatuak (hotela, terma, etab.) Produktuak (bodega, haragi-industria, etab.) Erakar-gaiak (museoak, haitzuloak, etab.).

*Iturria: neure egintza*

**4. Eranskina: Balmaseda-Zalla Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoaren lehenengo etaparen emaitzazko kartografiaren "Paisaia-inpaktuak" mapan jasotzen diren inpaktuak.**

<b>Inpaktuak</b>
Hiri-lurzoru industrialak
Lurzoru kutsatua
Harrobia
Zabortegia
Hirigunea
Azpiestazio elektrikoa
Sare elektrikoa/ Trenbide sarea / Bide sarea
Erauzketa jarduera
Hondakinen isurpena

*Iturria: neure egintza*

**5. Eranskina: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoaren lehenengo etapa identifikatutako mehatxuak eta aukerak.**

<b>Mehatxuak</b>	<b>Aukerak</b>
1. Landa-eremuko biztanleriaren urritzea	1. Arlo Funtzionalaren paisaia aberastasuna
2. Industria eta urbanizazio gune berriak	2. Ibai inguruak berreskuratzea (unitate guztietan)
3. Lurzoru urbanizaezinaren presioa	3. Ia paisaia unitate guztietan sartzeko aukera
4. Errepide eta trenbide azpiegiturak	4. Ekologia balio handiko elementuak
5. Paisaia industria andeatu	5. Eusko label produktuak (Urola Kostako itsas ertza paisaia unitatean).
6. Harrobi berrien aukera	
7. Telekomunikazio antenak	


*Iturria: neure egintza*

**6. Eranskina: Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Arlo Funtzionalaren Paisaiaren Katalogoaren lehenengo etaparen emaitzazko kartografiaren "Arriskuen mapa"-n jasotzen den informazioa.**

<b>Elementuak</b>	<b>Sailkapena</b>
<b>Harrobiak eta Hondategiak</b>	Aktiboak Abandonatuak eta aire zabalean erauzteko Zabortegi aktiboak Beste zabortegiak
<b>Elementu ez integratuak</b>	Bide-loturak Industria-guneak erabili gabeko eremuak Ezponda eta lurrerauzketak Aparkalekurako zonalde handiak
<b>Elementu isolatuak</b>	Espioiak Komunikazio antenak Goi eta erdi tentsioko lineak Araztegia Hondakinen tratamendu planta Azpiestazio elektrikoa Abeltzaintza ustiaketa, Arrain-haztegia

*Iturria: neure egintza*

**7. Eranskina: Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Katalogoan zehaztutako Paisaia oinarriaren unitateak**



*Iturria: Arabako Errioxako (Guardia) Paisaiaren Katalogoa*







**Gestión del paisaje. Patrimonio, territorio y ciudad**  
**Paisaiaren kudeaketa. Ondarea, lurraldea eta hiria**  
**Landscape management. Heritage, territory and city**

## Resumen/Laburpena/Summary

Euskal Autonomia Erkidegoak Paisaiaren Europako Hitzarmenera atxikitzeak, Lurralde Plangintzan paisaiaren ulermena eta edukierari buruzko inflexio-puntua dugu. Paisaia Lurralde Plangintzarako tresnatzat aitortzen duen esanahi berritzaile eta bateratzailea ezartzeaz gain, paisaia alorreko politika Lurralde Plangintzan barneratzeko bitartekoak identifikatu egiten dituelako.

Hauen artean, Paisaiaren Katalogoak eta Paisaiaren Zehaztapenak gailentzen dira, hauek Paisaiaren Europako Hitzarmenak bere osotasunean barneratzen duten instrumentu bakarrak direlako. Eta Paisaiaren Zehaztapenak Katalogoetan oinarrituz, dagozkien Lurralde Plan Partzialean ezarriko direlako. Aldi berean, Paisaiaren Katalogoek jaso behar duten edukieraren artean, adeitasun berezia barneratzen duten paisaia unitateak ditugu. Hauek ere, lurralde orori egokitzeaz gain, paisaia politika bere osotasunean gauzatzeko abiapuntuak direlako.

Hala eta guztiz ere, Lurralde Plangintzan paisaia juridikoki garatu arren, Lurralde Antolakuntzarako Tresnek ez dute Paisaiaren Europako Hitzarmenak zehaztutako paisaia bere osotasunean barneratzen. Bestalde, egungo lau Arlo Funtzional Paisaiaren Katalogoak jaso arren, eta hauetatik hiru Zehaztapenak hasierako onespina jaso arren, paisaiaren alorreko politika ez da Lurralde Plangintzan bere osotasunean barneratzen. Honen zergatia, paisaia unitateak instrumentu horietan izandako edukieran jatorri izanez.

Guzti honengatik, Paisaiaren Europako Hitzarmena bere osotasunean barneratzen ez duen Lurralde Plangintza baten aurrean aurkituz.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea